

12



SARIA

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

NAFARROKO FORU
KOMUNITATEKO TOKIKO
GARAPENJASANBARRIKO
JARDUNBIDE
EGOKIETAKO

2021 - 2022



SARIAK EMATEKO EKITALDIA

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



AL21 Red Navarra de Entidades
Locales hacia la Sostenibilidad
Red NELS
Nafarroako Toki Entitateen
Jasangarritasunerako Sarea

12



SARIA

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

NAFARROKO FORU
KOMUNITATEKO TOKIKO
GARAPENJASANBARRIKO
JARDUNBIDE
EGOKIETAKO

2021 - 2022

Aurkezpena

Nafarroako Tokian Tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien Jose Ignacio Sanz Arbizu Sariak hamabigarren edizioa bete du aurten eta, bai nireztat bai Departamentu osoarentzat, oso pozgarria da ikustea 2022 honetan izaniko par-taidetza handia eta proposamenen maila on-ona.

Aurten aurkeztutako hautagaitzek ederki erakus-ten dute Nafarroako toki entitateen eta herritar elkarteen ahalegina eta uste osoa, gure gizar-tean dauden eskari eta larrialdiei jasangarritasu-nean oinarriturik erantzuteko.

Esan ohi da jasangarritasuna egungo beharrei erantzuteko ahalegina dela baina etorkizuneko beharrendako arreta kolokan jarri gabe. Dena den, hori baino askoz ere gehiago da. Izan ere, horrez gain, gure ohiko jardueran begirada eta ikuspegi ezberdinak txertatzeko ahalegina da. Txertatzea, adibidez, genero ikuspegia, zahartze aktiboan oinarritutako begirada, toki ekonomia-rekiko kezka, toki biodibertsitatearen babesa, klima-aldaketaren prebentzioa, hein batean jada saihestezina den berotze globalerako egokitzapena, eta, hortaz landara, despopulatzearen eta bestelakoaren arriskua kontuan hartzea.

Jasangarritasuna, halaber, komunitate erresilien-teak sortzea da, ingurumenean eta gizartean diren erronkei aurre egiteko: hau da, gizarte egituraketa, ezagutza eta hezkuntza lantzea, orain arte ezagutu ez ditugun zailtasunak ekartzen dizkiguten egoera horiei aurre egiteko gauza izan gaitezen.

Aurkeztu diren proiektuen maila on-ona da na-barmentzekoa: guztiak ere jardunbide egokitzat jo dira eta, aukeratu diren lehen hiruez gain, bes-te lauk epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan dute.

Honatz lehen hiru jarduketa sarituak: Buruxken bilketa berreskuratzea, gizarteari eta inguru-menari begira duen balioa ikusarazteko; Tokiko Jasangarritasuna Larragako Ikastetxetik ekinez, eta Santa Barbara Muinoan Lurraldea Zaintzeko Eskola. Hirurak ere kalitatezkoak dira, lurralde-ra egokituak daude eta, horrez gain, bestelako begiradak txertatu dituzte eta, halaber, toki ko-munitateak sendotzeko ideia hori, une honetan hain beharrezkoak diren gizarte berrikuntzak sustatzeko.

Bakoitzak bere moldean, guztiek erakutsi dute gure egoerari erantzuteko behar diren gizarte eta kultur aldaketak gauzatuko badira, elkarlana beharko dela entitateen artean, zorrotasun tek-nikoz eta eskakizunez jokatu beharko dela, eta halaber, herritarrak kontzientziatu eta belaunal-di berriak hezi beharko ditugula. Gure jarduera ekonomikoak eta sozialak sakon eraldatu behar ditugu, eta hori nekez egingen da proiektu sari-tuek argi eta garbi erakutsitako elementu horiek gabe.

Sariak, halaber, erakutsi dute zeinen bultzada eta garrantzi handia duten gaur egun Ekonomia Zir-kularrak eta Ingurumen Hezkuntzak. 14 proiektuak bere osoan dira toki entitateek jasangarritasunaren arloan darabilten lanaren erakusgarria: klima-aldaketa, toki ekonomia, mugikortasun jasangarria eta azpiegitura berdea, beste gai as-koren artean.

Nafarroako Gobernu osoan, eta bereziki, gure Departamentuan, espero dugu sariak beren hel-bururako balio izatea, hau da, toki eta gizarte entitateak motibatzen jarraitzeko, trantsizio eko-logikoan eta garapen jasangarrian aurrera egiten segitze aldera.

Itziar Gómez López
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kont-seilaria.

12



SARIA

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

NAFARROKO FORU
KOMUNITATEKO TOKIKO
GARAPENJASANBARRIKO
JARDUNBIDE
EGOKIETAKO

2021 - 2022

Aurkibidea

JARDUNBIDERIK ONENAK

Buruxken bilketa berreskuratzea, gizarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko
DEIERRIKO UDALA 4

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez
LA MANCOMUNIDAD DE VALDIZARBE / IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA 10

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola
TUTERAKO UDALA ETA EL CASTILLO FUNDAZIOA 16

AIPAMEN BEREZIAK

Olategia – Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia
NOAIN / ELORTZIBARKO UDALERRIA 27

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean
LEGARDAKO UDALA 34

Rebizicleta
ANASAP - NAFARROAKO OSASUN MENTALERAKO ELKARTEA 42

Hezegune txikiak egitea:
Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia
ARANGUREN IBARRA ETA EGUESIBAR 48

JARDUNBIDE EGOKIAK

Berdesia Estrategia - hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobeak sortze aldera
BERDESIA ELKARTEA 53

Iruñea Iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian
IRUÑEKO UDALA 59

Inguratzaileren isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan
XABIER ZUBIALDE LEGARRETA 67

Ardantzea, klimara egokitutako lorategia
ATARRABIA 72

Enplegurako baritzeak: Urraulbeiti
URRAULBEITIKO UDALA 77

Azpiegitura berdea hobetzea
“Legarda bidea-bizitza bidea“
MENDABIAKO UDALA 83

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa
LODOSAKO UDALA - PREBENTZIO MAHAIA 91

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Buruxken bilketa berreskuratzea, gi- zarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

Deierriko Udala

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Buruxken bilketa berreskuratzea, gizarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

JARDUERAREN KOKALEKUA

Deierriko Udala

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Estelleria

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Ayuntamiento del Valle de Yerri/Deierriko Udala

ENTITATE MOTA

Toki entitatea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2020/06/01**

Bukaera: **2021/12/31 (lehen fasea)**

Beste data interesgarri batzuk: 2020/09/21 (lehen buruxka bilketa)

HARREMANA

Edorta Lezaun Etxalar

Nueva, 22. Aritzala. 31177

Tel. 948 542 174

www.yerri.es / ayuntamiento@yerri.es / alcaldia@yerri.es

1. INFORMAZIOA

2. DESKRIBAPENA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

4. EGOERAREN AZTERKETA

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Buruxken bilketa berreskuratzea, gi- zarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

Deierriko Udala

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Elikagaiak alferrik galdu eta xahutzen dira. Horrek argi erakusten du elikadura sistema ez dela eraginkorra eta jasangarria, eta ekonomia linealaren adibidea dela. FAOren arabera, munduko elikagaien herena urtero galtzen edo xahutzen da, gutxi gorabehera. Bestela esanik, munduko nekazaritza-lurraren azaleraren % 30 (1.400 milioi ha) alferrik galtzen diren elikagaiak lantzeko erabiltzen da. Kalkuluen arabera, 3,49 Gt CO₂ eq da (hau da, BEG isuri guztien 10 aldiz baino gehiago Espainiako estatuan). Europan, FUSIONS proiektuak bere kalkulua egin zuen, hots, katean guztiaren % 11 galtzen edo alferrik xahutzen da elikagai dagokienez. Nafarroan ez genekien nola zegoen sektorea elikagaien galerrari dagokionez.

2.2. Jarduketa

2.2.1. Prozesua

Ekimena Deierriko Udalak sustatu eta gidatu du, eta proiektu pilotu baten bidez probatu da, NUPen eta INTIAren lankidetzari esker (biak ere gure erakunde bazkideak). Halaber, finantzazioa aipatu behar da, Nafarroako 2014ko Landa Garapenerako Planari esker lortu baita, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza honen bitartez: “Europak landa-eremuetan inbertitzen du”, eta Nafarroako Gobernuak ere laguntzen du.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

Elikagaien landa galerek gizartean eta ingurumenean duten eragina murrizten laguntzea. Gainera, lehen sektorearen garrantzia eta elikagaien balioa ikusaraztea, eta elikagaiak alferrik galtzeari buruz sentsibilizatzeko aldaketa-eragileak prestatzea.

2.2.3. Garatutako estrategiak

Buruxkak biltzea jarduera tradizionala da, baina gaur egun ez da egiten. Uztaren ondotik alorretan gelditzen diren elikagaien bilketan datza (eskuz, gehienbat), eta ez dira saltzen. Buruxka proiektuak boluntarioek lagunduta bildu eta hainbat kolektibo sozialen artean banatzen ditu, elikagaien bizitza luzatzeko eta egoera zailetan dauden pertsoneri laguntzeko.

Proposamenaren gako-ardatzetako bat elkarlana da, hainbat erakunderen sare-lanaren sustapenean baitatza: nekazariak beren alorrak eskura jartzen dituzte, gizarte-erakunde batzuek elikagaiak egoera zaurgarrian dauden pertsoneri helarazten dizkiete; eta boluntarioek buruxkak biltzen dituzte.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Buruxken bilketa berreskuratzea, gi- zarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

Deierriko Udala

Udala, gaur egun, lanean ari da ekonomia sozial eta solidarioko enpresa bat sortzeko, elikagaiak eraldatze aldera eta proiektuari jasangarritasun ekonomikoa emate aldera. Labe bat jarriko da, elikagaien bizitza erabilgarria luzatzeko. Horrela, ekimenak jasangarritasunari heldu dio haren hiru dimentsioetan: ingurumena, gizartea eta ekonomia.

2.3. Jarduketara garatu ondoko egoera

Tokiko sare bat garatzea lortu da elikagaiak berreskuratze, eta, era berean, mahai gainean jarri da elikagaiak alorrean galtzeari irtenbidea eman beharra, eta elikadura-sistema jasangarrien garrantzia ikusarazi beharra.

Zenbakiei begira, sarean 15 ekoizle eta 7 gizarte entitatek parte hartu dute. 4 nekazaritza entitatek babestu dute: CPAEN/NNPEKk, EHNEk, UCANK eta UAGNK.

Gainera, 23 buruxka bilketa egin dira eta 159 boluntarioak parte hartu dute, bai eta 3 entitatek ere. Hauek dira: Navarra Más Voluntaria, Lizarrako Gizakia Helburu eta Zakan. 8.030 kilo elikagai banatzea lortu da eta, haiekin, 10 produktoren lagunak prestatu dira. Kalkuluen arabera, buruxka bilketen bidez, 5,8 tona CO2 isuri eragotzi dira eta 5,2 milioi litro ur aurreztu.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Buruxken bilketa berreskuratzea, gi- zarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

Deierriko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Arestian esan dugun bezala, 15 ekoizle eta 7 gi-zarte entitate ari dira sarean, eta 4 nekazaritza entitatearen babesa jaso da. Lanpostu bat sortu da.

Buruxka bilketetan, 159 boluntariok parte hartu dute, bai eta 3 entitatek ere.

8.030 kilo elikagai banatzea lortu da eta, haiekin, 10 produkturen lagunak prestatu dira.

Kalkuluen arabera, buruxka bilketen bidez, 5,8 tona CO2 isuri eragotzi dira eta 5,2 milioi litro ur aurreztu.

3.2. Elkartegintza

Ekimenak entitate sare baten inguruko elkarlana du oinarri. Sarean kide dira, batetik, alorretara sartzeko baimena ematen duten nekazaritza ekoizleak, hein batean nekazaritza entitateek proiektuaz egindako zabalkundeari esker; bestetik, produktuen buruxka bilketan ari diren boluntarioan, eta azkenik, bildutako buruxkak hartu eta pertsona zaurgarrien artean banatzen dituzten gizarte entitateak; horrenbestez, lankidetza proposamenaren oinarrian dago.

3.3. Jasangarritasuna

Aipatu dugun bezalaxe, ekimenak jasangarritasunari heldu dio haren hiru dimentsioetan, hau da, ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari begira. Halaber, honela dago lerrokatuta GJHekin:

- Ekonomikoa (8GJH): Estellerrian enplegua sortzea ahalbidetuko duten ekimenak bultzatuz; egoera zailean dauden sektoreetan eraginez eta lehen sektoreari loturiko aukera berritzaileak sustatuz.

- Soziala (2.,3.,5. eta 17GJH): landa ingurunean egoera zailean daudenei aukerak eskainiz, eta jendea kontzientziatzeko eta konpromisoa hartzeko gizarte mugimendua bat sortuz elikagaien galera eta xahuketaren inguruan, bai eta kalitatezko elikadura osasungarriaren inguruan ere.

- Ingurumenekoa (12. eta 13.GJH): Garapen jasangarriko helburuen 12.3 helmugarekin bat, erdira jaitsi behar da elikagaien xahuketa pertsona bakoitzeko 2030erako, eta ekoizpen nahiz hornidura kateetan zehar gertatzen den elikagai galera murriztu.



Buruxken bilketa berreskuratzea, gi- zarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

Deierriko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen in- dartztea

Sare lana proposamenaren alderdirik aberasgarrienetako bat da, helburu berdinarekin lotzen baititu gizarteko hainbat sektore.

Hainbat balio sustatzen dira, hala nola lankidetzeta eta erantzunkidetasuna, bai eta natur ingurunea estimatzea ere. Bestalde, hiri-mundua landa-ingurunera hurbiltzea ahalbidetzen du, elikagaiak nahiz hurbiltasuneko nekazaritzak duten balioa are indar handiagoz aintzat hartzeko aukera emanda.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte- ratzea

Proposamenaren bidez, elikagaiak jaso eta banatzen dituzten pertsonak egiten ditugu partaide, eta kalitatezko elikagai freskoak jartzen ditugu haien eskura, interes handikoak; izan ere, elikagaiak banatzeko entitateek gutxiago eskura ditzakete fruta, barazkiak eta gisako produktuak.

Gainera, aukera berdintasunaren alderdiei heltzen zaie zentzu zabalean. Batetik, arestian esan dugun bezalaxe, buruxka bilketan, boluntarioen behar eta aukeren arabera banatzen dira lanak, eta bestetik, sexuan, arrazan, jatorri etnikoan, l erlijioan edo iritzietan, desgaitasunean, adinean edo sexu-joeran oinarritutako bazterkeria oro eragozten da.



Azkenik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena hartzen da kontuan, eta jardueretan genero ikuspegia txertatzen da, baita jakinarazpenetan ere.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuin- guruan eta transferibilitatea

Ekimena aitzindaria da Nafarroan, eta erakutsi du Nafarroan badagoela aukera elikagai freskoen banaketarako bide iraunkor eta antolatutak sortzeko. Ekimenaren bidez, Katalunian arrakastaz probatutako eredu bat transferitu da, eta Nafarroan garatzeko aukera badagoela erakutsi du.

3.7. Transferentziak

Ekimenak gure lurraldera ekarri eta errepikatu du Espigoladors izeneko esperientzia, eta erakutsi dugu erabat dela Nafarroan errepikagarria.

Proiektu barnean, arestian aipatu dugun bezalaxe, ekimena nafar esparrura transferitzeko aukera aztertu da, eta bi erakunderekin jarri ginen harremanetan, eta haietako batekin, transferentziako buruxka bilketa bat egin zen.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Buruxken bilketa berreskuratzea, gi- zarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko

Deierriko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Elikagai galeren inguruko entitateen sarea, inplikaturako eragileen jarrera onarekin.
- Boluntarioen inplikazioa.
- Deierriko Udalaren apustua eta aurrera jarraitzeko borondatea, NUPek lagundurik.
- Deierriko Udalaren baliabideen disponibilitatea.
- Biltegiatze-zentrorako eta lantegirako instalazioak.
- Emaizta onen bidez frogatutako ekimena.

4.1.2. Aukerak

- Lurraldeka banatzeko bide iraunkor eta antolatua sortzea.
- 2017-2027 aldiko Nafarroako Hondakinen Plana betetzen laguntzea.
- Etorkezunean elikagai galerei eta xahuketari buruz egiten den legearekin bat etortzea.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

- Sareko eragileen denbora-premien arteko desorekak.
- Nekazaritza ekoizleen sarea zabaltzeko eritimoa.

4.2.2. Mehatxuak

- Osasun araudia ez dago oso bideratua lantegi partekatuak bultzatzera. Konplexutasun administratiboa.
- Aldaketak borondate politikoetan.
- Krisi ekonomikoaren mehatxua Europan.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEAS JUN 2020 - DIC 2021
Bazkidea 1: Deierriko Udala	48.503,18 €
Bazkidea 2: INTIA	1.570 €
Bazkidea 3: UPNA	2.084,844 €
Finantzataileak: FEADER / Nafarroako Gobernua	79.216,846 €
GUZTIRA	124.090,86 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

Izarbeibarko Mankomunitatea

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

JARDUERAREN KOKALEKUA

Izarbeibarko Mankomunitatea (Larraga)

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Larraga

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Izarbeibarko Mankomunitatea

ENTITATE MOTA

Toki entitatea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2022/03/01**

Bukaera: **2022/05/25**

Beste data interesgarri batzuk: 2022/05/20 (proiektuaren aurkezpena)

HARREMANA

Silvia Ruiz de Larramendi: Casadamón

Mendigorrako errepidea 4, Gares

Tel. 948 341 076

www.mancomunidadvaldizarbe.com / medioambiente@mancomunidadvaldizarbe.com

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

Izarbeibarko Mankomunitatea

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Larragako egoeratik abiatu ginen. Ikastetxe publikoan, ikasle immigranteak % 70 dira. Larragan, etorkinak, biztanleriaren % 20 inguru dira. Agerikoa zen herriko herritar gehienak herriko ikastetxetik aldeniak zirela. Izan ere, bertako pertsonen matrikulazioek oso nabarmen egin zuten behera azken urteetan. Horri guztiorri loturik, Larragan bereizketa ratioak ez dira bereziki onak. Izan ere, Nafarroako Hondakin Partzuegoak gai organikoa biltzeko antolaturiko aurreko lehiaketan, azken tokian gelditu ziren.

2.2. Jarduketa

Ikastetxeak egindako deiar erantzunez, Izarbeibarko Mankomunitatea jarrerak eta jokamoldeak hasi zen lantzen, horrek herrian jasangarritasunaren aldeko aurrerapausoa eragin zezan, ikastetxeak antolatzen dituen hezkuntza-jarduera guztiei balioa emate aldera. Larraga bezalako herri bat jarri nahi da natur baliabideen kudeaketa onaren mapan. Bilera aunitz egin ziren ikastetxeko zuzendaritzarekin, udalarekin, eta herriko hainbat sektoreekin, ekintza egitarau oso-oso prestatzeko. Ekintzek hari bat zuten, argi eta garbi: hots, ikastetxetik lan egitea herrian eta bertako sektore sozial guztie-

tan eragiteko (GURASO ELKARTEAK, KOLEKTIBOAK, MERKATARIAK, OSTALARITZA, KONTSERBA-ENPRESAK).

2 hilabetez, ikastetxeko zuzendaritzarekin maiz elkartu eta zikloka garatu beharreko lan guztia banatu genuen. Ikasle zaharrenen eskuetan, zuzeneko elkarreagin utzi genuen, bai eta herrian egin beharreko landa-lana ere.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

Izarbeibarko Mankomunitatea

2.2.1. Prozesua

Hainbat gai landu ziren, hala nola hondakinak ikastetxean eta herrian bereiztea, elikagai xahukeria ostalaritzan eta kontserba-lantegietan. Halaber, janari hondarrei buruzko tailerren bidez eta garaian garaiko eta hurbileko elikagaiak kontsumitzea bultzatuz (Nafarroako Elikagai Bankuarekin elkarlanean), Emausko Trapuketariekin oihalezko poltsak egin ziren edukiontzietako oihal-atalen bidez. Horretarako, AMUDELA emakume-elkartearen laguntza jaso zen, joste-makinak utzi baitzituzten lantegi haietarako, bai eta denbora eta lana eskaini ere.

Ikastetxean, horma-irudiak egin ziren, bai eta artelanak ere, gai organikoko pigmentuak baliatuz.

Halaber, lan guztia gidatu duen maskotan oinarriturik, ipuin bat egin zen.

Herriko denda eta ostatu guztiek bisitatu ziren, hondakinak bereizteari buruzko elkarriketak eginez, eta batez ere, gainerakoa frakzioa ahalik eta gehien gutxitu behar dela azpimarratuta. Izan ere, saria, lortzen bada, ikastetxeko altzarietarako erabiliko da.

Moratieleko ontzi planta bisitatu eta uraren ziklo integralean sakondu zen.

Ikastetxean, jasangarritasunari buruzko hainbat erakusketa jarri ziren ikusgai.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Jendaurrean aurkeztu zen; han ziren familiak, herriko agintariak, probintziakoak, eta hezkuntza-ziklo bakoitzean egiten den lana azaldu zen. Halaber, proiektu osoa azaltzen duen bideoa aurkeztu zen, bai eta bi musika emanaldi ere (ingurumenaren aldeko jota bat, 110etik gora haurrek eta irakasleek abesturik, eta letra skap kantu bateko gai orokorretara egokitua). Aurkezpenan, gainera, herri kirolak egin ziren hondakinak bereizteko, jasangarritasunaren aldeko ginkana, marrazkiak egin ziren GOTI maskotaren egilearekin, edota “los otros peces del río” eta ingurumen departamentuak emandako birziklapen jolas birtuala.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

Helburu nagusia: lankidetzazko ikaskuntza-prozesuak sustatzea, hezkuntza-komunitatea gai izan dadin erronkak ulertzeko, erantzukizunak bere gain hartzeko, erabakiak hartzeko eta behar diren ekintzak gauzatzeko, ingurumena errespetatzen duten gizarte jasangarriagoak eraikitze aldera. Tokiko merkataritza bultzatzea eta, azkenik, zabortegean amaitzen den hondakin frakzioa nabarmen murriztea.

2.2.3. Garatutako estrategiak

Mankomunitatearen eta ikastetxearen arteko aldizkako bilerak. Emausko Trapuketariekin eta Nafarroako Elikagaien Bankuarekin koordinatzea. Egin beharreko zereginak zikloen arabera banatzea eta horien egutegia egitea. Egin beharreko ahalegina sinbolizatuko zuen maskota bat

egitea (“mantso baina seguru”). Herriko artista eta kolektiboekin koordinatzea.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Larragako San Miguel Ikastetxea jasangarritasunaren aldeko bultzagarri nagusia da bere herrian bertan. Frogatu da ikastetxeko haurrak gai direla munta handiko proiektu bat aurrera eramateko.

Jasangarritasunaren aldeko lanaren garrantzia ikusarazi da, “Globaletik tokikora” esaldiarekin bat; ekonomia zirkularreko praktika bat ere egin da, eta horrek onura ekarri dio herriari. Prebentzioa bultzatuz, tuperrak eta oihalezko poltsak merkataritzan banatuz, ikusi da tokiko merkataritza laguntzea eta kontsumo onuragarria direla Larragako gizarte osoarentzat.

2.4. Oharrak

Proiektu guztia bideo batena bildu da. Bideoa erantsiko dugu.

12 
PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

Izarbeibarko Mankomunitatea

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Proiekturi arretaz erreparatu zaio gure eskualdeko ikastetxe guztietan, bai eta gure mankomunitatean sarturik dauden herrietan ere. Foru Komunitateko hedabide nagusiek elkarrizketak argitaratu zituzten.

3.2. Elkartegintza

Gai izan ginen herriko sektore askori deialdia egin eta guztiak antolatzeko: Larragako gizarte kolektibo guztiak, ikastetxeko familia guztiak, Guraso Elkarte eta klaustroa buru zirela, udala, AMUDELA emakume-taldea, elikagai bankua, Emausko Trapuketariak, herriko kontserba-enpresak, merkatariak eta ostalaritza; baita herriko musulmanen eta etorkinen zati handi bat ere, eta proiektuaren mezu garrantzitsuenak arabierara itzuli ziren.

Ska-p musika taldearen onespina eta babesia izan zen "El vals del obrero" abestia aldatzeko, eta ikastetxe osoan zehar jasangarritasunaren aldeko letrak emateko".

Musika lankidetzan ere aritu zitzaizkigun ingurumenaren aldeko jota egiteko. Bertako artistek artelanak hondakin organikoekin egiten lagundu zuten. NIK enpresa publikoak eta ingurumeneko departamentuak birziklapenaren joko birtuala laga zuten, eta Nafarroako hondakin partzuergoak eta Nafarroako Gobernuak proiektua finantzatu zuten.

3.3. Jasangarritasuna

Proiektu honetan jasotako jarduera guztiek jasangarritasunaren hiru hankak hartu nahi dituzte kontuan: ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Ikastetxeak ikasleen balioa nabarmendu nahi izan du, eta, ondorioz, ikastetxea bera, erreferentzia galtzen ari baitzen Larragako haurren lehen hezkuntzarako leku egoki gisa. Komunitate osoaren, eta bakoitzaren kulturaren eta erlijio guztien arteko integrazioa eta harremana nabarmenak izan dira. Horren ondorioz, eta ikas-

tetxeak berak egindako proposamen gisa, aitortza egin zaie eskuzabaltasunez lagundu duten bi pertsonari, bai eskolako konpostajearen eta praktika horri lotutako baratzea zaintzen aritu direlako, bai uraren ziklo integralean sakontzen ibili direlako; gainera, bisita egin da Larragako edaten duen ura ematen duen iturrira, Ubaguara, hain zuzen ere.



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

Izarbeibarko Mankomunitatea

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte- ratzea

Proiektu honen garapenean, berdintasun-printzipioa sartzearen aldeko apustua egin du Izarbeibarko Mankomunitateak. Bideoan parte hartzen duten pertsonak parekidetasunez aukeratu dira nahita. Letrek, edukiek eta irudiek hizkuntza ez-sexistaren alderdi hori hartu dute kontuan. Tailer bat lankidetzan egin zen Larragako emakumeen elkartearekin (AMUDELA). Boluntario gehienak emakumeak izan ziren.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testu- guruan eta transferibilitatea

Kasu zehatz honetan, egoera konplexu eta zail batean dagoen ikastetxearen balioa nabarmentzeko urratsa ematea da berrikuntza. Gure ustez, halaber, transferigarria da, immigrazio-portzentaje handia duten eremuetara, bizikidetz horren errealitateak eragina baitu bai matrikulazioetan, baita landa-eremuko ikastetxe publikoen zilegitasunean ere.

3.7. Transferentziak

Proiektu hau ikastetxe eta herri askotara alda daiteke; batez ere Nafarroako Erdialdera eta hegoaldera, integrazio arazo sozial berbera baitute.



12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Tokiko Jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez

Izarbeibarko Mankomunitatea

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Indargune nabarmenetako bat izan da ikastetxe baten deia erantzutea –Larragako San Migel ikastetxeak egindakoari, adibidez–, ingurumen-hezkuntzan dugun ibilbidea eta esperientzia baliaturik, beren herriko jasangarritasun arazoetan indarrez presente egoten laguntzeko.

4.1.2. Aukerak

- Planeta osoan dugun egoera honetan, ingurumeneko gaiek gero eta pisu handiagoa dute gure erabakietan. Beraz, alde batetik, espezie gisa bizirik irauteagatik eta, bestetik, erantzukizunagatik, uste dugu gure eragin-eremuan egoera hori aprobetxatu behar dugula; bereziki, hondakinetan, uretan, elikagai xahukerian edo bererabilpenean.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Ikasle berrien izen-emateetan gertatzen den jaitzerei era horizontalagoan eta egiturazkoagoan ekin behar die Hezkuntza Departamentuak.

4.2.2. Mehatxuak

Mehatxurik nabarmenena matrikulazioak pixkanka galtzea da, bai eta ikastetxea egiazki desagertzeko arriskua ere.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2022
Bazkidea 1: Nafarroako Gobernua (Hondakin Funtsa)	6.807 €
Bazkidea 2: Izarbeibarko Mankomunitatea	2.918 €
GUZTIRA	9.725 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

- 1. INFORMAZIOA**
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA
Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

JARDUERAREN KOKALEKUA
Tutera

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA
Santa Barbara Muinoa, Tutera

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA
Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

ENTITATE MOTA
Toki entitatea/Hezkuntza Fundazioa

JARDUKETAREN GAKO-DATAK
Hasiera: **23/04/2021**
Bukaera: **14/06/2022**
Beste data interesgarri batzuk: 07/03/2022 (Hitzarmena sinatzea)

HARREMANA

Silvia Ruiz de Larramendi: Abel del Rey
El Castillo Fundazioa - C/ Subida al Monumento, 4. Tutera (Nafarroa) 31500
Tel. 649 330 354
www.fundacionetcastillo.com/custodia-del-territorio / abeldelrey@fundacionetcastillo.com



Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Santa Barbara muinoa funtsezko gunea da Tuterako paisaian. Bertan, hiria sortu eta Tuterako Gaztelua egon zen. Gune hori, gaur egun, hiri-inguruko parke bat da, eta hainbat hobekuntza-jarduera egin dira bertan. Hala ere, ingurune horren azalera handian badira mantentze-arazoak, bada bandalismoa eta zinkinkeria ere bai.

Bestalde, El Castillo Fundazioa hezkuntza-erakundea da, PCA eta Oinarrizko LH programak ematen ditu eta parke horren ondoan dago. Eskolak (tamainaz txikia) gune hori erabiltzen zuen, ikasleak hara ateratzen baitziren jostaldian eta hamaiketako jatera. Dena, askotan zikina uzten zuten, ikasleek ez baitzuten loturarik gunearekin.

2.2. Jarduketa

Ikasleen jarduera-proposamen batean oinarrituta eta ikastetxeak garatzen duen zerbitzu-ikaskuntzako metodologia aplikatuta, Tuterako Udalaren eta El Castillo Fundazioaren arteko lankidetzak planteatu zen, eskolak espazio hori hezkuntza-ingurune gisa erabili ahal izan zezan, eta, bertan, curriculumean jasotako prestakuntza-jarduerak garatu ahal izan zitzaizkien. Jarduerak, aldi berean, espazio hori hobetzera bideratuta egonen ziren, eta Tuterako herritar guztiengan eragina izanen zuen. Udalak oso modu egokian jaso zuen proposamen hori, eta akordio hori lortzeko bitarteko eta kudeaketa egokiak jarri zituen abian.

Horretarako, lurraldea zaintzeko figura aukeratu zen tresna gisa. Figura hori oso lotuta dago naturaguneekin, eta ingurune horretan oso

aplikagarria den hiri-dimentsioa du. Ingurune horretan, ingurumena hobetzeko helburuak ez ezik, paisaia eta historia arloko balioa duen espazio bat hobetzeko xedeak ere ezarri ziren.

Jarduketan artean, gune hori zaintzea eta hobetzea zeuden, baina, zehazki, ikastetxearen ondo-ondoko hegalaren ingurumena lehenagoratzeko eta hiri-baratzeko bat sortzeko, muinoan kokatutako hiri-lursail batean, erabilerarik ez zuena.

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

Jarduera horiek ikasturtean zehar egin ziren: aldian behingo zabor-garbitaketak, muino-hegala lehengoratzea higadura zuzentzeko, habia-kaxak jartzea eta muinoko hegaztien ginkana interaktiboak sortzea, lursaila altzariz hornitzea eta landaketa egitea "Huerta del Castillo" delakoa sortzeko, eta produktuak sukaldaritza-tailerrean landutako plateretako lehengai gisa erabiltzea.

Proiektua garatzeko, Lurraldea Zaintzeko Estatu Sarearen, Biodibertsitate Fundazioaren eta Espainiako Ornitologia Elkartearen (SEO/Birdlife) laguntza eta babesa jaso dira.

2.2.1. Prozesua

Hona hemen prozesuan eman diren pausoak:

- 1. 2021EKO MARTXOA:** Ikasleen eskaria ikastetxearen inguruko espazioa aisialdiko zein eskolakako jardueretarako erabiltzeko.
- 2. 2021EKO APIRILA:** Biodibertsitate Fundazioarekin harremanetan jartzea, lurraldea zaintzeko figuraren egokitasuna ebaluatzeko, Tuterako Udalari hitzarmen bat proposatzeko.
- 3. 2021EKO APIRILA:** Tuterako Udalarekin harremanetan jartzea Zaintza Hitzarmenaren proposamenerako.
- 4. 2021EKO MAIATZA:** Proiektua Nafarroako Gobernuaren hezkuntza berritzatzeko deialdira aurkeztea.
- 5. 2021EKO IRAILA-2022KO EKAINA:** Proiektuaren barnean programatutako jardueren garapena:

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

- Baratzeko lursaila altzariz hornitzea eta landaketa egitea.
- Habia-kutxak eta hegazti-ginkanak egitea, SEO/Birdlife-ren lankidetzarekin eta aholkularitzarekin.
- Ikastetxearen ondo-ondoko muino-hegalaren ingurumena lehengoratzea.
- Santa Barbara muinoko parkean aldian behin zaborra biltzea.

6. 2022ko MARTXOA: Tuterako Udalak eta El Castillo Fundazioak lurraldea zaintzeko hitzarmena sinatu zuten.

Aipatu behar da hezkuntza-proiektuaren izaera berritzaile handia, horrelako lehen akordioa baita estatu osoan, hezkuntza-erakunde baten eta toki-erakunde baten artekoa, Bada, lan nekeza izan da Udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoentzat, sinatzeko formula egokia izan arte. Horregatik sinatu zen hitzarmena behin ikasturtea hasitakoan. Hala ere, Udalak proiektua garatzeko borondatea osoa erakutsi zuen eta proiektua behar bezala burutzeko beharrezko baliabideak jarri zituen.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

Hona hemen zaintza hitzarmenean sinatutako helburuak eta konpromisoak:

- Santa Barbara muinoan dagoen El Castillo Fundazioaren ikastetxea inguratzen duen ingurunearen paisaia- eta ingurumen-kalitatea hobetzea, espazio hondatuak zaharberrituz eta espazio hori gehiago zainduz.

- Ikastetxearen ondoan dagoen Santa Barbara muinoaren hegala landareztatzea, hezkuntza xedeetarako eta muinoaren paisaia-kalitatea hobetzeko.
- Muinoaren inguruan erabiltzen ez diren orubeetako baten ingurumen- eta paisaia-kalitatea hobetzea, eskola-baratzeko sortuz eta kudeatuz.

2.2.3. Garatutako estrategiak

Estrategia nagusia lurraldea zaintzeko figura erabiltzea izan da, ikaskuntza-metodologia aplikatzeko tresna gisa, hezkuntza-jarduera eraldatzaileak eta komunitatea hobetzekoak garatzeko.

Zehatzago esanik, zaintza-erakundeak (El Castillo Fundazioa) honako estrategia hauek garatu ditu hitzarmenaren barnean:

- Ikastetxeko ikasleak Santa Barbarako muinoaren ondoko ikastetxearen ingurumen- eta paisaia-kalitatea hobetzeko lanetan jartzea, espazio horiek garbituz, landareztatuz eta ingurumena zainduz.
- Ikasleek ikastetxearen ingurunearekin eta bizi diren komunitatearekin duten lotura handitzea, hezkuntza-jarduera eraldatzaileen bidez.
- Tuterako Udalarekin lankidetzan aritzea ikastetxearen ondoko muinoaren hegala landareak jartzeko lanetan, paisaiaren kalitatea hobetzeko, hezkuntza xedeak gogoan, ingurumen-hobekuntzarekin lotutako edukien esanahia hobetzeko.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

- Osasunarekin eta aniztasunarekin lotutako alderdiak lantzea, Santa Barbara muinoan dagoen hiri-lursailean eskola-baratzea sortuz. Jabetzaren aldetik (Tuterako Udala), estrategia honako puntu hauetan zehaztu da:
 - El Castillo Fundazioak Tuterako herritar guztiengatzen espazio hori hobetzeko eta gozatzeko egin dituen hezkuntza-lanak babestea.
 - El Castillo Fundazioarekin lankidetzan aritzea muino-hegalean landareak jartzeko lanetan, Udalaren lorezaintza-kontrataren laguntzaren bidez.
 - Paseo del Castillo kaleko 23. zenbakian dagoen lurzattia eskola-baratze gisa erabiltzeko lagatzea.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Proiektuan ezarritako helburu guztiak lortu dira, eta eskolako ikasleek beren eskola-curriculumeko jarduerak garatzea lortu da, Tuterako herritar guztien espazioa hobetuz.

Mendi-magala lehengoratzeko, baratzea martxan jartzeko eta espazioa hobetzeko jarduketek hobekuntza nabarmena ekarri dute muinora eta ikastetxera, garbiketen, habia-kaxen eta hegaztien gaineko ginkanak sortzearen bidez.

Hitzarmena 5 urterako sinatu zen hasieran, eta sinergia bat da Tuterako tokiko komunitatearen eta El Castillo Fundazioaren hezkuntza-komunitatearen artean, espazioa hezkuntza-helburuekin bat zaintzeko.

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2.4. Oharrak

<https://youtu.be/rZnmxe6kYU4>

estekan bildua dago ikastetxeko ikasleek proiektua labur azaltzeko egin duten bideoa.

Bestalde:

<https://fundacionetcastillo.com/custodia-del-territorio/>

gure webean zehatzago daude jasoak proiektuan egin diren jarduerak.

Proiektua edonon egin daiteke hezkuntza arloan. Oso egonkortasun handia dakar ingurunea zaintzeko. Ikastetxeak oso egonkorak baitira denboran. Gainera, beste erakunde batzuetan boluntarioen artean izan daitezkeen

gorabeherek ez dute eraginik gure parte-hartzaileengan.



Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Ondoren, proiektuak zer arlotan izan duen eragirik handiena azalduko dugu:

A) Etxebizitza jasagarria eta garapen komunitarioa

1. Erabakiak hartzeko eta baliabideak esleitzeko plangintza eta partaidetza komunitarioa:

Atal honetan aipatu behar da lurraldea zaintzeko figurak berak eta sinatutako hitzarmenak berekin parte-hartzea dakartela, hezkuntza-erakunde batek baliabideen kudeaketan eta Santa Barbara muinoa bezalako espazio publiko bat hobetzeari buruzko erabakiak hartzeko. Horrek eragin nabarmena izan du espazio hobetuari dagokionez, bai maila kuantitatiboan, gunearen 720 m²-ko azalera handitu delako, muinoa hobetzeko jarduketan bidez, bai maila kualitatiboan, zikinkeria murriztu delako eta inguruneke paisaia hobetu delako.

2. Hirigune, auzo eta kokaguneen barnealdea berritzea eta birgaitzea:

Jarduketa hau bi auzoren artean dagoen espazio batean egin da, hala nola Alde Zaharrean eta Las Tejerías auzoan. Auzo horiek lursail j abandonatu eta hondatu asko dituzte, eta horietako batean kokatu da eskolako hiri-baratzea. Jardueraren garapenak auzo horien kalitatea hobetzen lagunduko du.



B) Hiri- eta eskualde-garapen jasagarria

1. Kutsadura murriztea eta ingurumen-osasuna hobetzea:

Jarduerak muinoaren ingurumen-osasuna kualitatiboki hobetzea dakarte. Honatx jarduerak: zaborrak biltzea, muino-hegalak lehengoratztea eta landareztatzea, lursail abandonatu batean eskolako hiri-baratze bat sortzea, habia-etxolak jartzea eta muinoko hegaztiak ezagutzeko ibilbideak sortzea. Baina, ikuspegi kuantitatibotik, jarduera horiek aipatze hutsa nahiko adierazgarria izan daiteke proiektu horrek muinoaren ingurumen-osasunean izan duen eraginarentzat.

2. Zaborra hobeki biltzea, birziklatzea eta bererrerabiltzea:

Horri loturiko hainbat ekintza egin dira proiektuan. Hilero zabor bilketa egin da, SEO/Birdlife

koordinatzen duen e-litter hiritar zientziaren proiektuan parte hartuta. Proiektu honek metodologia eta aplikazio bat ditu, biltzen diren hondakinak erregistratzen eta sailkatzen joateko. Ondoren, hondakin horiek pisatu egiten dira eta bereizi egiten dira dagokion edukiontzian uzteko.

Bestalde, Zurgintzako eta Altzarigintzako LHko 1. mailako ikasleek, Hondakinen Partzuergoko Prebentzio eta Bultzada Zirkularreko Bulegoak sustatutako ingurumen-hezkuntzako programako teknikariek aholkatuta, 1.000 litroko bi konpostatze eraiki zituzten. Biak ere baratzean kokatu dira eta sukaldeko tailerrean eta zurgintzako tailerreko zati batean sortzen diren hondakinak konpostatzen dira.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. Hiriaren lorategia eta espazio publikoaren erabilera eraginkorra:

Proiektuak gehien eragindako eremuetako bat da; izan ere, espazio publiko bat hobetzea ekarri du, hau da, hiri-parke bat; bertan, landaredia eta lorategiak landatu baitira. Adierazle gisa, aurtun zuzenean jardun da Santa Barbara muinoaren parkeko 340 m²-ko azalera duen hegalean.

4. Ekoizpen- eta kontsumo-ziklo hobek, baliabide ez-berriztagarriak ordeztzea edo murriztea barne:

Programa osoarekin batera, bestelako ekoizpen- eta kontsumo-ereduak lantzeko unitate didaktikoak erabili dira, eta horiek zuzenean aplikatu zaizkio lanari muinoko jardueretan eta tailerretan; horrela, espezie autoktonoen erabilera, hurbileko produktuak, hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena sustatu dira.

5. Natur baliabideen eta ingurumenaren babesa eta kontserbazioa:

Jarduketan artean, muinoan egin diren hegazti-ginkanek izan dute atal honetan inpaktu handiena, eta ingurune horren balioak hobeki eza-gutzeko aukera eman du, herritarrek gehiago hegaztiak errespetatu ditzaten. Hegazti-espezie nagusientzako habia-kaxak jartzeak ere espazio horretako hegaztiak babesteko eta kontserbatzeko xede argia du.



6. Leku historiko/kultural garrantzitsuenak zaintzea:

Lehen aipatu bezala, gune honetan sortu zen Tuteran, eta bertan egon zen kokatuta eskolari izena ematen dion gaztelua. Historiako eskolatan egindako lanaren baitan, baliabide hori erabili da ikasleak ingurune horren garrantziaz jabetzeko. Era berean, muinoan zehar dauden aztarnategi historikoei buruzko informazio-panelak garbitu ziren, horietako asko bandalizatu baitzeuden.

C) Kokaguneen kudeaketa jasangarria, eraginkorra, arduratsua eta gardena

1. Delituen murrizketa eta prebentzioa:

Muinoaren instalazioetan gertatzen den bandalismoa delitutzat hartu ezin den arren,

arau-haustetzat baizik, horrek eragin larria du bai diru publikoetan, bai espazio horren segurtasunaren pertzepzioan huraxe bisitatzen duen jendearentzat. Muinoan egiten diren zaintza-jarduerak haren egoera hobetzeko eta haren gainean egiten diren jarduera bandalikoak murrizteko balio izan dute.

Ikasleek berek, egin dituzten jarduerak berrikustean, hobetu beharreko edo hondatu ahal izan diren alderdiak atzeman eta jakinarazten dizkiote Udalari, ikastetxeko irakasleen bitartez.

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. Prestakuntza hobea hondamendien aurka, arintzea eta berreraikitzea:

Muinoaren hegaletan ingurumena lehengoratzeke jarduketek higadura zuzentzeko sistemak izan dituzte, karkaben gainean jardunez eta eremu horretan urtero gertatzen diren euri-jasen urak herrestan eramateko indarra murrizteko sistemak aplikatuz. Horretarako, erliebeak zuzendu dira, eta terrazak egiteko eta landareak jartzeko sistema txikiak sortu dira espezie tapiatzaileekin.

3. Gizarteratzea eta bazterketa gutxitzea:

El Castillo Fundazioko eskolarekin egindako hitzarmena irizpide horren aldeko apustu garbia da. Eskolak gizarte-osagai argia du, ematen dituen programak hezkuntza-sisteman arrakastarik izan ez duten eta gizarte-bazterketako arrisku argia duten pertsonen jasotzen baitituzte. Eskola honek hezkuntza-eredu alternatibo eta berritzaileen alde egiten duen apustua (proiektu honetan garatu dena, adibidez) pertsona horien motibazioa handitzera bideratuta dago, ikasten jarraitzeko.

4. Ekintza eta aldaketak inspiratzen dituen lidergoa, politika publikoaren arloko aldaketak barne:

Gune horren zaintza hezkuntza-erakunde baten esku uzteak herritarren inplikazioaren eta ekintzaren aldeko apustua adierazten du hiria hobetze aldera, politika publikoaren arloan.

3.2. Elkartegintza

Jarduera horren ondorioz, lurraldea zaintzeko hitzarmen bat sinatu dute Tuterako Udalak eta El Castillo Fundazioak. Hitzarmen hau 5 urteko eperako sinatu zen. Bestalde, jarduketaren barruan maila desberdinetako beste erakunde batzuek ere parte hartu dute, eta proiektuaren garapenean lagundu eta aholkuak eman dituzte.

1. Toki entitateak

- Tuterako Udala.

2. Irabazi asmorik gabeko erakundeak: kooperatibak, korporazioak, fundazioak, federazioak eta elkarteak.

- El Castillo Fundazioa.

3. Unibertsitate-, zientzia- eta ikerketa-erakundeak.

- Lurraldea zaintzeko plataforma.
- Biodibertsitate Fundazioa.
- SEO/Birdlife.

3.3. Jasangarritasuna

Jasangarritasunari dagokionez, proiektu honek zuzenean eragiten du jasangarritasuna egituratzen duten hiru eremuetan:

1. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA: proiektua bideragarria da; izan ere, zaintza-erakundeak egin beharreko lan horiek kostu handia izanen lukete, Tuterako Udalak enkargatuz gero. Beraz, funts publikoen kostuak murrizten ditu.

2. GIZARTERATZEA: Herritarren eta hezkuntzaren konpromisoa lortzeko jarduera bat da, hobe betzeko dagoen espazio publiko batekin, herritar guztiengan eraginez, inolako gizarte-kolektiborik baztertu gabe. Gainera, aktibo sozial bat eskaintzen du ikasleek gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eskuratzeari dagokionez, ikasleek espazio publikoarekin duten konpromisoa areagotzeko.

3. INGURUMENAREKIKO ERRESPETUA: Jarduera balioak errespetatzeaz gain, ikasleak haiez ohartzen dira, aztertzen dituzte eta hobe betzen dituzte; aldi berean, gainerako biztanleei transmititzen dizkiete, herritar guztiek horiekiko duten errespetua areagotze aldera.

Halaber, jarduera honek ekarri dituen aldaketek honako eremu hauetan dute eragina:

a) Lege eta erregelamendu esparruak, arau subsidiarioak edo estandarrik, xede izan dituzten gaien eta arazoaren ezagutza formala eskainiz.

b) Erreplikatzeko aukera duten eskualde- edo toki-mailako gizarte-politikak eta/edo estrategia sektorialak. Tuterako Udalean ez zegoen hitzarmen-eredu berri bat sortzea lortu da, Lurraldea Zaintzeko Hitzarmena, alegia. Horrek beste erakunde batzuei ateak ireki diezazkieke praktika hori herrian erreplikatzeko.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

c) Erakunde-esparruak eta erabakiak hartzeko prozesuek rol argiak eta erantzukizunak esleitzen dituzte hainbat mailatan eta eragile-taldetan, hala nola gobernu-erakunde zentraletan eta tokiko erakundeetan eta oinarri komunitarioko erakundeetan.

d) Giza baliabideak, baliabide teknikoak, finantzarioak eta naturalak modu eraginkorrarean erabiltzen dituzten kudeaketa-sistema eraginkorrak, gardenak eta arduratsuak.

Erakunde jabeak, kasu honetan Udalak, gizarte-erakunde batengan duen konfiantzak, gune horretan zaindu eta jardun dezan, espazio horretan eragina duten eragileak ugaritzen ditu eta, horrez gain, beste urrats bat da partaidetza-eskalan, iritziak biltze hutsa gainditzea baitu eta partaidetzazko kudeaketa-maila batean sartzen baita.

2030 Agendaren helburuen barnean, jarduketa horrek eragin zuzena du milurtekoko 17 helburuetatik 3tan, eta, zehazki, helburu horietan sartutako 14 helmugatan:

- 11. GJH - HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK: Helmugak: M11.1, M11.3, M11.4, M11.6, M11.7, M11.a, M11.b.
- 12. GJH - EKOIZPEN ETA KONTSUMO ERANTZUNGARRIAK: Helmugak: M12.2, M12.3 M12.4, M12.5, M12.8.
- 15. GJH - LURREKO BIZITZA ETA EKOSISTEMAK: Helmugak: M15.3, M15.8.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Jarduketak atal honetan baloratzen diren alderdiak azpimarratzen ditu, honela:

a) Ekintza eta aldaketak inspiratzen dituen lidergoa, politika publikoaren arloko aldaketak barne.

Toki entitateen kudeaketan parte hartzeko tresna bat txertatuz espazio publikoetan jardutean, sinergiak lortzeko eta komunitatearen onura sustatzeko, hitzarmena sinatu duten erakundeen arteko onuren bidez.

b) Pertsonak, auzoak eta komunitateak indartzea eta haien ekarpenak gehitzea.

Jarduera horrek El Castillo Fundazioko esko-

laren ingurunea hobetu du, eskolaren beraren ekarpenaren bidez, eta hobekuntza eragile bat da auzo osoan eta hirian, Santa Barbara muinoaren tamaina eta garrantzia kontuan hartuta.

c) Transferentziarako, egokitzapenerako eta erreplikagarritasunerako aukerak.

Neurri hori edozein gizarte-ingurunetara eraman daiteke, oro har, eta bereziki hezkuntza-eremura.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte- ratzea

Jarduerak eragin argia du El Castillo Fundazioko ikasleen artean. Ikastetxe horretako ikasleek gizarte-bazterketa jasateko arrisku handia dute, horietako asko eskola-porroteko esperientzietatik baitatoz.

Horrelako jarduerak, ikasle horiek beren eskola-ingurunea baloratzeko motibazioa areagotzeaz gain, dagoeneko badiren eta geroan izanen diren herritarren gaitasun sozial eta zibikoa nabarmen areagotzen dute.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testu- guruan eta transferibilitatea

Jarduera berritzailea da, ez bakarrik toki-mailan, baita estatu-mailan ere. Izan ere, gaur egun, hezkuntza-erakunde bati lotutako lurraldeko zaintza-esperientzia bakarra da, Estatuko Lurraldeko Zaintza Plataformak aitortu bezalaxe.

Era berean, arestian ere esan dugunez, esperientzia horren transferigarritasuna eta erreplikazioa oso egingarria da, batez ere hezkuntza-ingurunean, non win-win prozesuak sor baititzake, non eskola-erakundeak lehen mailako hezkuntza-baliabide bat duen, eskola-motibazioa hobetzeko hezkuntza-metodologia berritzaileak aplikatzeko aukera ematen duena, eta espazioaren jabeak hura hobetzea lortzen du.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



Lurraldea zaintzeko figurak berak konpromiso inplizitua hartzen du zaindu behar den espazioarekin.

3.7. Transferentziak

Horren haritik, proiektuak honako berezitasun hauek ditu:

a) Funtsezko eragina du espazio horiek zientzia-laboretegi gisa erabil ditzaketen hezkuntza-erakundeetan, curriculum-edukiak aplikatu eta kontrastatzeko, eta hainbat gaitasun garatzeko.

b) Aurrerapen bat da Tuterako Udalaren herritarren partaidetzarako politketan, gizarte-erakunde baten esku uzten baitu espazio publiko baten zaintza eta hobekuntza.

c) Jasangarria eta transferigarria da argi eta garbi, denboran iraunen duen ikaskuntza- eta aldaketa-prozesu jarraitu baten barnean. Horren haritik, hezkuntza-erakundeek aldi baterako egonkortasunak egonkortasuna ematen dio jarduketari, eta baliteke egonkortasun hori hain arrunta ez izatea boluntarioen gorabeheren mende egon daitezkeen beste gizarte-erakunde batzuen artean.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Zaintza-erakundearen (El Castillo Fundazioa) eta jabearen (Tuterako Udala) artean sinergiak eta win-win prozesuak sortzea.
- Ikasleen motibazioa eta edukien esanahia areagotzea, eta kontzeptuak eta gaitasunak ingurune erreal batean aplikatzea.
- Ikasleen gaitasun soziala eta zibikoa garatzea; izan ere, ikasleen ustez, espazio publikoa ere parte da, eta zaindu egin behar da.
- Degradatutako bi inguruneren ingurumen-hobekuntza areagotzea eta espazio publiko eta natural baten balioa handitzea, ingurumen-hezkuntza eta parkearen osagai naturalen balioak sustatuz.
- Hitzarmenak herritarren parte-hartze maila handitzea dakar, neurri batean espazio publiko baten kudeaketa partekatua baita.
- Eskola-porrot tasa handia eta gizarte-bazterketako arrisku handia duten ikasleen ikasteko motibazioa areagotzen du.
- Nazio mailako esperientzia berritzailea, hezkuntza-erakunde baten eta tokiko erakunde baten artean ez baitzen zaintza-akordiorik egin.

4.1.2. Aukerak

- Zaintza-erakundearen (El Castillo Fundazioa) eta jabearen (Tuterako Udala) artean sinergiak eta win-win prozesuak sortzea.

- Ikasleen motibazioa eta edukien esanahia areagotzea, eta kontzeptuak eta gaitasunak ingurune erreal batean aplikatzea.
- Ikasleen gaitasun soziala eta zibikoa garatzea; izan ere, ikasleen ustez, espazio publikoa ere parte da, eta zaindu egin behar da.
- Degradatutako bi inguruneren ingurumen-hobekuntza areagotzea eta espazio publiko eta natural baten balioa handitzea, ingurumen-hezkuntza eta parkearen osagai naturalen balioa sustatuz.
- Hitzarmenak herritarren parte-hartze maila handitzea dakar, neurri batean espazio publiko baten kudeaketa partekatua baita.
- Eskola-porrot tasa handia eta gizarte-bazterketako arrisku handia duten ikasleen ikasteko motibazioa areagotzen du.
- Nazio mailako esperientzia berritzailea, hezkuntza-erakunde baten eta tokiko erakunde baten artean ez baitzen zaintza-akordiorik egin.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Eraginkorrak ez diren jarduera jakin batzuetarako ezagutza teknikorik ez izatea.

4.2.2. Mehatxuak

- Ikastetxeen izaera juridikoa; horrek zailtasunak ekar ditzake lurraldea zaintzeko hitzarmenak antolatzerakoan.

- Udaletan gerta daitezkeen aldaketa politikoak, horrelako politiketan aldaketak eragin ditzaketenak eta hitzarmenak baliogabetzea ekar dezaketenak.
- Jarduera horiek eskola-egutegitik kanpo mantentzeko baliabide teknikorik eta giza baliabiderik ez izatea.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola

Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2021
Bazkidea 1: Tuterako Udala	
Bazkidea 2: El Castillo Fundazioa	1.500 €
GUZTIRA	



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

JARDUERAREN KOKALEKUA

Noain (Elortzibar)

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Noain - Elortzibarko Udalerria

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Administrazio publikoa

ENTITATE MOTA

Administrazio publikoa

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2023**

Bukaera: **Ez da bukatu**

Beste data interesgarri batzuk: -

HARREMANA

Monika Usanos Santo Domingo

Taxoareko Mendilerroa z/g Lorenea. Noain 31110

Tel. 948 074 848

www.noain.es / agenda21@noain.es

1. INFORMAZIOA

2. DESKRIBAPENA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

4. EGOERAREN AZTERKETA

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

2. DESKRIBAPENA

2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Iruñerriko Mankomunitatea arduratzen da Noaingo hondakin en kudeaketaz. 2013an, kudeaketa barnean ez zen gai organikoa bereizita biltzen.

Noain-Elortzibarko Udalak Lorezaintza eta Agenda 21eko alor ahaltsua zuen, bai eta Lorenea izeneko jasangarritasun zentroa ere, eta harremanetan ere bazebilen Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin. Gauzak horrela, Noainen sortzen den gai organikoa han bertan nola kudeatu ikusteko beharra sortu zen.

2.2. Jarduketa

Hegazti-konpostategi bat sortu nahi da, gai organikoa herritarrek parte hartuz kudeatzeko. Hegazti-konpostategia oiloendako barruti itxi bat da; barnean hiru konpostontzi daude eta bi patio txikiz osaturiko bidea kanpora ateratzeko. 11 oiloendako lekua du eta Noainen kokatua dago, Zentzumenen Parke barnean, baratze eremuan.

Familiak edo boluntarioak arduratzen dira oiloak elikatu eta zaintzeaz. Hau da, etxeko hondar organikoak gutxienez astean behin ekartzeko konpromisoa hartzen dute, eta hilean behin oilategia gobernatzeko. Hau da, egun horretan ekarri zaizkien hondar organikoak eramaten dizkiete, oiloei ere ura aldatzen diete, oilategia garbitu eta oiloek egun horretan errun dituzten arrautzak biltzen eta beren etxera eramaten dituzten, hau da, arratzak egun horretako boluntarioarentzat dira, izan gizabanakoa, izan familia.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Proiektua Udaleko Tokiko Agenda 2030eko lan-gileek kontrolatu eta kudeatzen dute, udaleko lorategi zerbitzuak lagundurik.

Ekimenaren bidez lortzen den konposta parkeko baratzeetarako edo lorategi-eremuetarako erabiltzen da; horrenbestez, proiektu hau, hondakinak jasangarritasunez kudeatzeko eta herritarrek parte hartzeko ekimena izan ez ezik, ekonomia zirkularreko proiektua ere bada.

2.2.1. Prozesua

Hegazti-konpostategiaren ideia sortu zen, etxeko hondakin organikoak konpostatzeko sistema deszentralizatu bat bilatu beharrak bultzaturik, hainbat gauzatan oinarritua: auzo konpostontzi erabiltzeraz eta merkea behar zen, baina behar bezain motibagarria jendeak parte hartzeko.

Hegazti-konpostategia Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Ramón Plana aholkulariak ideiatu zuten. Vermican S.L. enpresak diseinatu, Elkarkide S.L. enpresa sozialak eraikia eta Noain-Elortzibarko Udalak kudeatua; hasieran, Varazdin gizarterazte eta laneratze Fundazioak ere bai, garai hartan parkeko autokontsumo baratzea ere kudeatzen zuelako.

10-12 oilo bizitzeko oilategia diseinatu zen. 1.200 litroko hiru konpostontzi kubiko ditu hondakinak konpostatzeko, eta bi kanpo-patio, sei hilekoan behin patio bat eta bestea txandakatuzeko.

Behin, hegazti-konpostategia eraikita, proiektua Noaingo bizilagunei azaldu zitzaizkien solasaldi baten bidez, boluntarioak ekimenerako erakartzeko. Hasiera, 26 parte-hartzaile izan ziren, baina berehala, 30, eta itxaron zerrenda ere osatu zen. Hasieran, ekimenean parte hartzeko, jendeak udalerrian eroldaturik egon behar zuen. Gaur egun, gai organikoa biltzeko edukiontzia dagoenez geroztik, eskaria txikiagoa da eta proiektuan interesa duen jende orok parte har dezake, baldin eta udalerrian bizi bada edo lan egiten badu.

Parte-hartzaileek, hasieran, ordu erdiko presakuntza txikia jaso behar dute proiektuaz arduratzen den udal teknikariarekin. Interesduneki jarduna eta konpromisoak azaltzen dizkie.

Bederatzi urtean, parte-hartzaileek egin beharreko prozedura batzuk aldatu dira oilategian, funtzionamendura egokitzen joan da, baina hasierako funtsak bere horretan dirau. Horrela, parte-hartzaileek funtsezko bi konpromiso dituzte.

Batetik, astean behin beren hondakin organikoak ekarri behar dituzte. Sortzen dituzten guztiak ekar ditzakete, familia batzuek ekartzen dituzten bezala, baina gutxienez astean behin bai. Horrela egiten dela kontrolatze aldera, hondakinak ekartzen dituztenean, edukiontzi gorriaren ondoan eskura dagoen orri batean apuntatu behar dituzte. Hondakin-poltsak edukiontzi horretara bota behar dituzte eta parkearen sarreran dago.

12 PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

Orrian, izena eta esleituia duten hileko zenbakia idazteaz gain, hondakinak zenbat pisatzen duen ere adierazi behar dute. Horri esker, badakigu zenbat gai organiko birziklatzen den urtean oilategian.

Eta, bestetik, parte-hartzaile bakoitzari egun bat egokitu zaio "baserritar" lana egiteko. Egun horretan, ahal bada arratsaldez, eta eguzkia sartu aurretik, oiloak gobernatu behar dituzte; hau da, egun horretan ekarri zaizkien hondakinak eraman behar zaizkie, askak garbitu, ikusi oilategia eta errutoki garbiak ote dauden, eta pentsua eman, gai organiko aunitz eraman ez bada, eta oiloek egun horretan errun dituzten arrautzak hartu eta eraman. Hara joan dela kontrolatzeko, orri bat bete behar da oilategian, hau da, zenbat arrautza bildu dituzten eta gainerako lanak egin dituzten edo ez.

Giltza behar da oilategian sartzeko. Parte-hartzaile bakoitzak bat du, eta nahi adina aldiz joan daitezke, baina egokitzen zaien egunean bakarrik eraman ditzakete arrautzak. Konposta, hasiera, Varazdin gizarteratze eta laneratze enpresaren bidez egin zen, hau da, parkeko auto-bilketako baratzea kudeatzen zuen enpresa bera zen. Gaur egun, berriz Udaleko lorazaintza zerbitzuak kudeatzen du, eta baratzea ere bai. Oilategiak hiru konpostontzi ditu. Oiloak haietako bakar batean bakarrik sar daitezke, beti berbera da, hara hondar organikoak botatzen baitira, eta han ere, beraz, oiloek hondarrak jan, eragin, mokokatu eta nahasten dituzte, eta oiloek han ere beren gorozkiak uzten dituzte.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

Behin konpostontzi hori betea dagoenean, aldameneko konpostontzira aldatzen da; horrela, konposta egiteko prozesuari eragiten zaio. Hori hilabete eta erditik hilabete eta erdira gertatzen da, eta, jakina, ekartzen den hondakin kopurua araberakoa da. Beraz, berriz ere konpostontzia libre geratzen da hara hondakinak botatzen jarraitzeko. Oilategian hiru konpostontzi duedenez, hondakinak konpostontzi batetik beste batera eramaten dira, lehenbizikoa betea dagoenean. Horrela, azken konpostontzira iristen denean, konposta egina dago eta galbahe batetik baizik ez da pasatu behar konpostatu ez diren hondarrak ezabatzeko, hau da, zurak, hezurak eta maskorrak; hondar horiek prozesura itzultzen dira. Konposta mugitzeko prozesu hori udaleko langile batzuek egiten dute, eta oilategiaren funtzionamendu orokorra gainbegiratzeaz ere arduratzen dira.

Prozesuan lortzen den konposta parkean erabiltzen da; baratzean, batez ere. Aipatu behar da, ekimenaren lehen hiru urteetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak laguntza handia eman zuela proiektua abian jartzeko eta haren jarraipena egin zuen, lortzen zen konpostaren parametro aunitz, arrautzak, hara eramandako gai kopurua eta parte-hartzaileen gogobetetasuna neurtuz. Era berean, oiloen inguruan sor zitezkeen arazoek gaineko aholkuak eman zituen. Prozesuari jarraipena egin zion pertsonak, Francesco Storinok, proiektua bere doktoretza-tesiaren zati baterako erabili zuen.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

- Hondakin organikoak konpostatzeko sistema deszentralizatu bat sortzea, erraz erabiltzeko modukoa, kostu txikikoa, erakargarria parte hartzeko.
- Familiek beren hondakin organikoen kudeaketan parte har dezaten sustatzea
- Materia organikoa in situ kudeatzea eta bererabiltzea. Hondakin organikoak udalerriko familiengandik datoz, eta birziklatzearen emaitza kalitate handiko konposta da, oilategiaren ondoan dagoen Zentzumenen Parkeko baratzerako erabiltzen da.
- Erakarpenean parte gehiago sortzea Zentzumenen Parkean, oilategia erajargarria baita, haurren eta helduen erakargarri.
- Hondakinak kudeatzeko, herritarrek parte-hartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko proiektu baten bidez ingurumen hezkuntza bultzatzea Zentzumenen Parkean udalerriko herritarrentzat.
- Instituzio publikoek, enpresek eta hezkuntza arloak ahaleginetan bat egitea.
- Lehen mailako konposta lortzea Zentzumenen parkeko baratzerako eta kalitatezko arrautzak parte-hartzaileendako.

2.2.3. Garatutako estrategiak

- Maila anitzeko lankidetzak: tokiko administrazioa (Noaingo-Elortzibarko Udala, unibertsitatea (NUP), enpresa pribatua (Vermican S.L., Ramón Plana aholkularia) eta gizarte-enpresa (Elkarkide S.L. eta Varazdin Fundazioa).

- Hondakinak birziklatzea sustatzen duen proiektu berritzailea. Materia organikoa birziklatzen da, oiloen eta kalitatezko arrautzen truke.
- Oilategi-konpostategi bat sortzea materia organikoa birziklatzeko.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Zentzumenen parkeko oilategi-konpostategia proiektua finkatua dago, eta familiek parte hartzen jarraitzen dute hura kudeatzeko. Urtean, batez beste, XX kg materia organiko birziklatzea lortzen da, eta familiak oso pozik daude parte hartzearekin.

Bestalde, oilategia eta oiloak oso erakargarriak dira parkean paseatzen duten pertsonentzat. Berez ere bada erakargarria, baina batez ere haurrak dituzten familientzat.

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Lehen hiru urteetan, NUPEk proiektuaren jarraipen zientifikoa egin zuen. Francesco Storin aritu zen, zehazki, hau da, bere tesiaren zati bat oilategi-konpostategiaren azterketan oinarritu zuena. Horregatik, funtzionamenduko lehen hiru urteetan, 2013tik 2015era, proiektuak izan zuen eraginari buruzko datu zehatz asko ditugu. 16.435 kg hondakin organiko eman zitzaizkion oilategiari, guztiak etxeokak; batez ere, inausketa zehatuaren eta parkeko baratzearen hondarren batekin. Kalitate oneko 5.418 kg konpost eta 6.224 arrautza lortu ziren.

Lehenengo hiru urteetan, 5 nazionalitateko 59 pertsonak edo familiak parte hartu zuten. Gainera, ekimenari buruzko inkesta egin zitzairen, eta proiektuarekiko gogobetetasuna oso handia izan zen.

Oilategia abian egon den 9 urte baino gehiagoan, kalkulatu da 30 tona materia organiko birziklatu direla, eta horren truke, 16.000 arrautza eta 10 tona konpost inguru lortu direla. Gainera, 116 familiak edo pertsonak parte hartu dute ekimenean.

3.2. Elkartegintza

Jardunbide egoki honetan lankidetzan aritu da Noain-Elortzibarko Udala Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin. Unibertsitateak, zehazki, proiektua diseinatzen eta abian jartzen lagundu zuen, eta lehen urteetan, haren jarraipena egin

zuen. Varazdin gizarteratze eta laneratze Fundazioak proiektua lehen lau urteetan kudeatzen lagundu zuen. Maestro Compostador enpresa txikiak, NUPEkin batera, oilategi-konpostategia ideiatu zuen hasieran. Vermican S.L. enpresak oilategia diseinatu zuen, eta Elkarkide S.L. gizarteratze eta laneratze enpresak oilategiaren egitura eraiki zuen.

Eta jakina, proiektua ez zen aurrera aterako, hasieratik beretik jardunbide egoki honetan aritu diren 116 familien parte-hartzerik eta konpromisorik gabe.

3.3. Jasangarritasuna

Oilategi-konpostategi proiektuak kostu txikia izan du ezarpenean eta mantentze-lanetan. Oso proiektu integratzailea da gizarterari begira. Izan ere, era askotako jendeak parte hartu du, hainbat nazionalitatetakoak, maila sozioekonomiko honetakoa eta hartakoa, familia-unitate honetakoa eta hartakoa, familia haurdunak, helduak haurrik gabe, gizabanakoak, eta are, azken urtean, udalerriko institutuko ikasgela bateko ikasleek parte hartu dute, curriculum egokitua zutenek, hain zuzen ere. Gainera, duela hiru urte, parte-hartzaileek bete beharreko fitxak egokitu ziren (zer hondakin dakartzaten azaltzeko eta oilategia kontrolatzeko orria), ikusmenean arazoak zituen pertsona bat hasi zelako.

Ingurumenaren jasangarritasunaren ikuspegitik, proiektuak erabat errespetatzen du in-

gurumena, etxeko hondakin organikoak tokian kudeatzea baita proiektuaren helburu nagusietako bat. Jarduerak, izan ere, xede du gure zaborretako gai organikoak ez dadila arazoa izan baliabidea baizik.

Oilategi-konpostategi proiektuak kudeaketa sistema eraginkorra, gardena eta arduratsua lortu du hondakin organikoak eskala txikian kudeatzeko eta, dagoeneko, 9 urte eta erditik gora darama funtzionatzen.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Proiektu honek udalerriko bizilagunen lankidetzaren behar izan du abian jartzeko. Horrek komunitatea indartu du, 100 pertsonak baino gehiagok parte hartu baitute zuzenean. Baina kontuan hartzen badugu parte-hartzaile horietako asko hiru edo lau kideko familiak direla, inpaktua handiagoa da. Gainera, proiektua udalerriko parke nagusian dago, erreferentziatzeko parkea da, urtean milaka pertsonak bisitatzen dutena. Ondorioz, proiektu inspiratzailea da eta aldaketak eragin ditzake bisitatzen gaituzten pertsona edo erakundeetan. Bizilagunek harrotasunez erakutsi ohi dituzte parkea eta oilategiaren ekimena, eta horrek komunitatea indartzen du.

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte- ratzea

Oso proiektu integratzailea da gizarteari begira. Izan ere, hainbat nazionalitatetako pertsonak parte hartu dute (bereziki, ekialdeko herrialdeetakoak, baina halaber badura Erdialdeko eta Hego Amerikakoak eta ingeles bat). , Maila sozioekonomiko honetako eta hartako pertsonak, familia-unitate honetakoak eta hartakoak, familia haurdunak, helduak haurrik gabe, gizabanakoak, eta are, azken urtean, udalerriko institutuko ikasgela bateko ikasleek parte hartu dute, curriculum egokitua zutenek, hain zuzen ere. Gainera, duela hiru urte, parte-hartzaileek bete beharreko fitxak egokitu ziren (zer hondakin dakartzaten azaltzeko eta oilategia kontrolatzeko orria), ikusmenean arazoak zituen pertsona bat hasi zelako, eta, egun, oraindik ere ari da.

Azpimarratu behar da gaur egun emakume gehiago ari direla gizonak baino, ia halako bi gehiago dira, baina, halaber, bikoteak ari dira. Proiektuan alde edo moldez parte hartu duten enpresetako bi gizarteratze eta laneratze arloko enpresak edo fundazioak dira: hots, Elkarkide S.L. eta Varazdin Fundazioa, hurrenez hurren.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testu- guruan eta transferibilitatea

Jardunbide egoki hau hasi zenean, inguruan ez zen hondakin organikoen kudeaketarik egiten, salbu eta etxebizitzak lorategi bat bazuen, or-



duan konpostontzi bat eskatzen ahal baitzizaion Mankomunitateari. Oso esperientzia berritzailea izan zen etxeko hondakin organikoak tokian-tokian eta pizgarrien bidez (oilok eta arrautzak) kudeatzea xede zuen ekimen hau sortzea. Izan ere, proiektua ezarri zenetik, erakunde aunitzek (udalak, ikastetxeak, elkarteak,...) eta norbanakoek proiektuarekiko interesa agertu dute. Deitu digute eta instalazioa ikustera etorri dira.

2016ko ekainean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Udako Euskal Unibertsitatearekin eta Noain-Elortzibarko Udalarekin batera, "Praktika agroekologikoa: oilategi-konpostagailua biohondakinen prebentziorako" izeneko udako bi ikastaro antolatu zituen. Ikastaroak Noaingo Zentzumenen Parkean egin ziren, goizeko ordutegian bost orduko iraupenarekin, eta bi

jardunalditan banatu zen, hizkuntzaren arabera: euskaraz eta gaztelaniaz. Oilategi-konpostategi proiektua, gainera, hainbat artikulu zientifikotan argitaratu dute NUPEko hainbat ikaslek.

3.7. Transferentziak

Araiako Udala (Araba) antzeko sistema bat abiarazi zuen, Noingo esperientzian oinarriturik. Elkarkide enpresak bat dauka funtzionamenduan Iruñeko Gaztelugibelen. Herritar batzuek beren kasa sortu dituzte Irunberrin, Agoitzen, Biurrunen, Ollokin... Vermican eta Elkarkide enpresek, hau da, Noingo oilategi-konpostategia diseinatu eta eraiki zuten enpresek, horrelakoak egin eta saltzen dituzte, gaur egun.

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia

Noain - Elortzibarko Udalerria

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Eredu erraza da, merkea, aise erreplikatzekoa eta aise ere errealtate honetara eta hartara egokitzekoa. Ez du azpiegitura handirik behar, ezta gauzatzeko bitartekorik ere. Herritarrek hondakinen kudeaketan aritu beharko dute. Kudeaketa-eredu hurbila da.

4.1.2. Aukerak

- Oilategi-konpostategia aukera ona da beste udal, elkarte edo erakunde batzuentzat beren hondakin organikoak in situ kudeatzeko. Oso proiektu erakusgarria eta irisgarria da. Oso praktika pedagogiko ona da; izan ere, Zentzumenen Parkeko bisita gidatuaren parte da, eta, batzuetan, gure ekimena bakarrik bisitatzen da.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Jarduera erraza izan arren, teknikari batek gainbegiratu behar du. Kasu honetan, Tokiko Agenda 2030eko langileei dagokie. Boluntarioak behar dituzu hori egiteko. Zenbaitetan, oiloek parasito edo gaixotasun arazoak izaten dituzte, eta horrek inplikazio tekniko handiagoa eragin dezake.

4.2.2. Mehatxuak

Proiektu hau gauzatzea eragotziko duten araudi berriak indarrean sartzea. Adibidez, aurtan, oiloak kanpora ateratzeko erabiltzen duten patioa aldatu behar izan dugu, hegaztien gripearen eraginez patioek itxita egon behar zutelako, oi-

loak basa hegaztiekin harremanean ez egoteko. Oilategi-konpostategia etxebizitzetatik oso hurbil dagoen eremu batean jartzen bada, gerta liteke eragin negatiboak izatea, gaizki kudeatzen bada, hala nola euliak edo usainak. Karraskariak ugaritzen diren urteetan, oilo-konpostategiak espezie horiek erakar ditzake, eta horrek arazoak sor ditzake.

Edukiontzi organikoa oso arriskutsua izan zen jardunbide egoki honetarako. Izan ere, Noainen (Elortzibar) ezartzearekin batera, proiektuan parte hartzeko prest zeuden pertsonen kopurua jaitsi egin zela nabaritu zen. Ezarri aurretik, parte hartzeko itxaron zerrenda zegoen. Ezarri ondoren, ez dugu arazorik izan proiektua aurrera eramateko. Dena den, 30 familiarendako da, horretarako diseinatuta dago oilategia, eta gaur egun, 26 familiak hartzen dute parte, batez beste.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2013	URTEA 2014-2017	URTEA 2018-2021	GUZTIRA
Bazkidea 1	2.000 €	850 €	1.697,35 €	4.547,35 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

JARDUERAREN KOKALEKUA

Legarda

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Legardako udal-barrutia

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Legardako Udala

ENTITATE MOTA

Udala

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **01/01/2021**

Bukaera: **01/06/2022**

Beste data interesgarri batzuk: 2021/11/26 CNIS sariak

HARREMANA

Silvestre Belzunegui Otano

Karrika Nagusia nº 4. Iruña. 31133

Tel. 948 344 555 / 693 438 036

www.legarda.es / legarda@mancomunidad-valdizarbe.es



Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Deskribatuko ditugun estrategien aurretik, herriak eraginkortasun energetiko apaleko udal instalazioak zituen, 0 km-ko kontsumoko energia berriztagarri oso gutxi ekoizten zen, eta ez zegoen aukerarik herriak ibilgailu elektrikoen aldeko apustua egin zezan, besteak beste. Bestalde, konektibitatea kobrezko ADSL linea baten bidez egiten zen, ase-asea, eta konektibitate txarra zuena. Ez zegoen modurik interneten abiadura onean nabigatzeko, ezta gauzen Internet sarea (IoT) aplikatzeko edo urrutiko moldean lan egiteko aukerarik ere, adibidez. Muga horien ondorioz, ezin ziren teknologia berriak erabili arlo guztietan, eta horrek ondorio nabarmena zituen hala arrakala digitalean nola biztanleriaren finkapenean.

2.2. Jarduketa

2.2.1. Prozesua

Jarduketak neurri sorta bat barnebildu du. Elkarren osagarri dira eta honela daude sailkatuta:

- Ingurumeneko neurriak.
- Teknologia berrien aplikazioa.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak OROKORRA

• Estrategia orokor bat ezartzea 2030 Agendaren GJHeekin eta eraldaketa digitalekin bat datorren landa-garapeneko eredu berri bat lortzeko.

ESPECÍFICOS

- Lurraldea modu jasangarrian kudeatzea, energia berriztagarrien erabilera sustatuz, eta landa-ingurunea klima-aldaketaren aurkako borrokaren lehen lerroan kokatuta.
- Landa-zerbitzuak biziberritzea berrikuntza digital eta sozialaren bidez, bizi-kalitatea hobetuz biztanleria finkatzeko, herria erakargarria izan dadin bizitzeko.
- Bizilagunen baldintza ekonomikoak, sozialak eta/edo ingurumenekoak hobetzea, teknologiari eta baliabide digitalei esker, bai eta herri adimentsu bihurtzeari esker ere.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizatoranzko bidean

Legardako Udala

2.2.3. Garatutako estrategiak

2.2.3.1. Ingurumeneko neurriak

2.2.3.1.1. *Actualización del “Modelo estratégico de urbanismo para un desarrollo territorial sostenible”, mediante “Lurralde-garapen jasangarria lortzeko hirigintza-eredu estrategikoa” eguneratzea, partaidetzazko prozesuaren bidez.*

2.2.3.1.1.2. Mugikortasun jasangarria

- Eremuan hedatzea, herrian ezarritako doako karga-gunea ibilgailu elektrikoetarako erabiltzeko.
- Hobari fiskalak.
- RuralCar erabileraren sustapena.

2.2.3.1.1.3. Eraginkortasun energetikoa

- LED bidezko argiteria publikoaren berrikuntza eta farolen zaharberritzea bukatzea.

2.2.3.1.1.4. Energia berriztagarriak

- Eguzki-instalazioak handitzea.
- “TODA energia” energia-komunitateari atxikitzea.
- Udal kontsumo elektrikoa energia berriztagarrien bidez egitea.

2.2.3.1.1.5. Udal lorategietako uraren kudeaketa eraginkorra eta jasangarria.

2.2.3.1.1.6. Landaketak eta inguruneak lehengoratztea.

2.2.3.2. Teknologia berrien aplikazioa

2.2.3.1.2.1. *Adineko eta/edo mendekotasunen bat duten pertsonen doako monitorizazioa, haien kokapena aurkitzeko eta alarmak sortzeko aukera emanaz.*

2.2.3.1.2.2. *Telelana: udaletxean 3 postu moldatu dira, doan konektatzeko.*

2.2.3.1.2.3. Wifi librea espazio publikoetan.

2.2.3.1.2.4. *Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Karpeta Pertsonalerako sarbidea eta erabilera erraztea.*

2.2.3.1.2.5. *Udal artxiboa informatizatzea eta digitalizatzea, webgunetik kontsulta eginda.*

2.2.3.1.2.6. *Udal lorategiak app bidez modu adimentsuan ureztatzea.*

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Praktika ezarri ondoko analisia hainbat datu motaren bidez baloratu daiteke.

Jardunbide egokiek, hau da, telelana egiteko aukerak, gure adinekoak zaintzeak, teknologia berrien eta berrikuntzaren aldeko apustuak, ingurumena zaintzeko neurri jasangarriak bultzatzeak eta zerbitzu publikoak hobetzeak, biztanleen bizi-kalitatea eta gogobetetasuna hobetzea lortu dute. Horrelaxe ikusten da, adibidez, esatean biztanleria-hazkunde handiena duen udalerrietako bat dela Izarbebarren. Hazkunde horrek berezitasun bat erakusten du; horrela, beste herri batzuek urbanizazio berriak garatu dituzte; Legardak, aldiz, beste aukera batzuk bilatu eta landu ditu, hala nola hirigunea birgaitzea, hazkundea jasangarritasunezko irizpideetan oinarrituta.

Teknologia berrien digitalizazioa eta integrazioa faktore erabakigarriak izan dira gure landa-eremuan lehiakortasuna eta jasangarritasuna areagotzeko.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Herri-sentimendua areagotu da, eta komunitate-sentimendua ere bai.

2.4. Oharrak

Legarda landa-eremuko herri txikia da, baliabidez urria. Bada, aintzat hartu behar da Legarda gauza izatea arestian zaldutako neurriak ezartzeko. Horrexegatik erabaki du Legardako Udalak sari honetara aurkeztea, jakinik ere lehian aritu beharko duela askoz ere munta handiagoko proiektu batzuekin; haietako batzuen aurrekontuak, gainera, ez du zerikusirik gure herrikoarekin, eta guk ere ez dugu geure teknikaririk izan egitasmoa garatzeko.

Bestalde, gure ustez, interesa edo balioa neurria bera martxan jartzean datza, eta balio handiagoa du eskala txikian ezartzen bada (kontuan hartuta horrek herri txiki batean dituen zailtasun guztiak), ekintza bera eskala handiagoko herrietan gauzatzeko bada baino.

Garatutako esperientziak akuilu onak izan daitezke herri txikiarentzat zein handiagorentzat, gurea bezalako proiektuak egiteko eta jasangarritasun handiagoko toki garapena lortzeko. Azaldu ditugun neurriek hainbat sari merezi izan dituzte jasangarritasunaren arloan, bai estatu mailan, bai toki mailan. Horren erakusgarri da komunikabideetan izan duten zabalkundea, erantsi ditugun artikulu eta bideoetan ageri den bezala. Ekintza guztiak udalaren webgunean daude ikusgai:

www.legarda.es.

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Aurkezten den jardunbide egokiak eragin onuragarria izan du jendearen bizi-baldintzetan, honako arlo hauetan:

a) Etxebizitza jasangarria eta garapen komunitarioa

Komunitateko azpiegiturei dagokienez (deialdiaren 2. puntua): komunitateko zerbitzuak eta azpiegiturak hobetu dira (zuntz optikozko banda zabala erabiliz), eta, horri esker, ekintza onuragarriak garatu ahal izan dira bizilagunenentako, hala nola:

- Adineko eta/edo mendeko pertsonak sentsoreen bidez doan monitorizatzeari dagokionez, mendekotasuna duten hainbat pertsonak komunitatean egoten laguntzen dien sistema hori erabiltzen dute; erabiltzaileak eta haien familiak oso pozik daude.
- Wifi libreak eta udal-bulegoetan telelana egiteko aukerari esker, pertsona batzuk herrian bertan ari dira lanean.
- Biztanleriaren % 80k Osasun Karpeta Pertsonala dauka eta erabiltzen du.
- Artxibo digitalari dagokionez, maiatzean abian jarri denez, oraindik ez dago erabiltzaileen daturik.

Erabakiak hartzerakoan komunitateak izan behar duen plangintzari eta parte-hartzeari dagokionez (4. puntua), hainbat prozesu parte-hartzaile egin dira "Lurraldearen Garapen

Jasangarrirako Hirigintza Eredu Estrategikoa" prestatzeko eta eguneratzeko. Herritar gehinek onartua.

b) Hiri- eta eskualde-garapen jasangarria

Kutsadura murrizteari eta ingurumen-osasuna hobetzeari dagokionez (deialdiaren 2. puntua), neurri hauek izan dute inpakturik handiena:

- Mugikortasun jasangarria lortzera bideratutakoak: doako karga-gunearen hedapena. Izan ere, Legardan autoa kargatu ohi duten inguruko herrietako ibilgailu elektrikoak ikustean egiaztatzen dena, eta RuralCar erabileraren sustapena, 2022ko ekainean ezarri denez oraindik datu objektiborik ezin da lortu.
- Bestalde, urtero egiten diren zuhaitz-landaketek karbono-aztarna murrizten laguntzen dute, eta landareak udal-mintegi txiki batetik lortzen dira.

Herriko lorategiei dagokienez (5. puntua), udal lorategietako uraren kudeaketa eraginkor eta jasangarriak, hau da, app bidez modu adimentsuan ureztatzeak, kontsumoa % 30 murriztea lortu du; gehien bat tantakako ureztapena erabiltzen da. Energiaren erabilera eta ekoizpen eraginkorrangoari dagokionez (8. puntua), argi publikoak LED moldean berritzearekin batera, kontsumo elektrikoa % 80 murriztea lortu da. Bestalde, udal kontsumo elektriko guztia energia berriztagarrietatik datorrenez, eguzki-instalazio fotovoltaiakoak handitzearekin batera, KWko elektrizitate-

kontsumoa % 75 murriztu da. Era berean, modulu fotovoltaiako gehiago izateak aukera eman du ibilgailu elektrikoak neurri batean ekoizpen propioko energia berriztagarriarekin kargatzeko.

3.2. Elkartegintza

Herriko eragile gehienak proiektuetan aritu dira. Udala, Legardako parrokia (baimena eman dute antena bat elizdorrean paratzeko, LoRaWAM sarea sortze aldera), Larramiar Kultur Elkarte (bilerak, hitzaldiak eta beste egiteko biltokia), bizilagunen boluntariora (farolak zaharberritu eta margotzea), eta Izarreibarko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitateak emaniko laguntza administratiboa, legarka hartan sarturik baitago.

Beste jarduketa batzuetarako, Nafarroako hainbat entitateren laguntza behar izan da, hala nola Osasunbidea, ezarpenari dagokion praktitarako eta Osasun Karpeta Pertsonala erabiltzeko, edo Nafarroako Merkataritza Ganbera "TODA Energía" Komunitate Energetikoa osatzeko bultzadarako.

Nafarroatik kanpo, Herri Abegitsuen sare Nazionala aipatu behar da (Telelana eta RuralCar).

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

3.3. Jasangarritasuna

Etorkizunari begira, Udalerako diseinatu den estrategiaren barruan, lehentasunezko zat jotzen zen ekonomikoki bideragarriak ziren eta herri jasangarri bat lortzera bideratuta zeuden mota guztietako ekintzak egitea.

Udalerri honek uste du jasangarritasuna hainbat ekintzaren bidez lortzen dela, eta ekintza horiek eredu estrategikoa direla, eta bi jardueraildo nagusitan oinarritzen dela: ingurumeneko neurriak eta teknologia berrien aplikazioa.

Aurkezten diren jardunbide egokiak ekonomikoki bideragarriak dira, gizarteari begira ez dira baztertzailak eta ingurumena errespetatzen dute, eta, batez ere, baliabide guztien erabilera eraginkorragoa egiten dute kudeaketa-sistema eraginkor baten bidez (d puntua).

“Agenda 2030 eta Nafarroako politika publikoak Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat etortzea” erreferentziatzen hartuta, aurkeztutako neurriak lagungarriak dira helburu hauek betetzeko:

• 6GH. Nafarroan ura eta saneamendua eskuratzeko politika helburu hauek lortzera bideratuta dago:

- 6.4. helmuga. Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra handitzea eta ur gezaren erauzketa-ren eta horniduraren jasangarritasuna ziurtatzea.

- 6.6. helmuga. Urarekin lotutako ekosistemak babestea eta lehengoratzeta.

1.5. eta 2.6. neurriak. Udal-lorategietako uraren kudeaketa eraginkorra eta jasangarria (ureztatze, toki iturburu bat erabiltzea, ureztatze-sare independente bat instalatzea, ur gutxi behar duten espezieak landatzea, tantakako ureztatzea) eta udal-lorategien ureztatze adimentsuko sistema, app bidezkoa, behar denean soilik ureztatuz.

• 7GH. Nafarroako energia-politika helburu hauek lortzera bideratuta dago:

- 7.2. helmuga. Energia berriztagarriak handitzea.

- 7.3. helmuga. Energia-eraginkortasuna hobetzea.

1.3 eta 1.4 neurriak. LED bidezko argiteria publikoa berritzeko lanak eta farolak zaharberritzeko lanen amaiera, eta energia berriztagarrietan azaldu ditugun neurriak: eguzki-instalazioak handitzea, “TODA-energía” komunitate energetikoari atxikitzea eta udal-kontsumo elektrikoaren energia berriztagarrietatik etortzea.

• OD8. Nafarroako politika ekonomikoa helburu hauek lortzera bideratuta dago:

- Helburua 8.3. Ekintzailatza sustatzea. 2.2 eta 2.3 neurriak. Herrian ekintzailatza sustatzeko funtsezko zat jotzen da espazio publikoetan Wifi librea izatea (Wifi4EU proiektuaren barruan, herrian zehar banatutako 12 sarbide-puntu instalatzen dira) eta telelana egiteko

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

aukera. Horretarako, Udalak 3 postuko gela bat prestatu du udaletxeko goiko solairuan, herritik lan egin nahi dutenek Internetera doan konektatu ahal izateko.

• 10GH. Nafarroan desberdintasuna murriztearekin lotutako gizarte- eta ekonomia-politikak helburu hauek lortzera bideratuta daude:

- 10.2. helmuga. Gizarteratzea eta gizarte-ko hesioa sustatzea.

10.3. helmuga. Aukera-berdintasuna sustatzea.

2.1. eta 2.4. neurriak. Adinekoak eta/edo mendekoak doan monitorizatzeak aukera ematen du senide bati edo izendatutako pertsona bati abisatzeko mugimendurik ez badago, edo telebistaren kontsumoa, tenperatura desegokia, kaleko atea ireki dela, etab. Horri esker, non dauden jakinen da eta alarmak sortu ahal izanen dira, gizarteratzea erraztuko da, herrian bertan bizitzeko aukera emanda, bizimodu independenteagoa eginda eta batzuetan instituzionalizatuak izatea saihestuta.

Bestalde, teknologia berriak eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna sustatzeko, Legardako Udala Nafarroako lehen herria izan da Osasun Karpeta Pertsonalerako sarbidea eta erabilera bizilagunei errazten.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

• 13GH. Nafarroan Klima-aldaketarekin lotutako ingurumen-politika helburu hauek lortzera bideratuta dago:

- 13.2. helmuga. Klima-aldaketari buruzko neurriak sartzea.

1.2 eta 1.6 neurriak. Mugikortasun jasangarriari deskribatutako neurriak barnebiltzen ditu: udalerrian ibilgailu elektrikoendako jarria den doako karga-gunea eremuan hedatzea, zirkulazio-zergan hobari fiskalak ezartzea ibilgailu elektrikoak erosteko, eta RuralCar erabilerara sustatzea.

Eta zuhaitz-landaketen eta inguruneak lehengoratzearen 1.6 neurria. Urtero landaketak egiten dira lehengoratu nahi diren edo zuhaitzik ez duten eremuetan. Ekintza horrek landaketen jarraipena egitea eskatzen du, gutxienez 5 urtez. Zuhaitzak landatzea da atmosferara isurtzen diren CO2 isuriak xurgatzen lagundu dezakeen kostu txikieneko neurrietako bat. Bestalde, ermita zahar bat zaharberritzen ari da, ia eroria dagoena, erabilerara zibilerako; eta aintzira txiki bat eginen da, aisialdirako eta biodibertsitatea bultzatzeko.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Egin diren jardunbide egokiei esker, Legarda erreferente eta lider bihurtu da Nafarroan eta Espainian tokiko jasangarritasunari dagokionez. Horrek komunitate-sentimendua indartu du herrian, eta horrek esan nahi du bizilagunak erabat prest daudela garatutako proiektuetan modu aktiboan parte hartzeko. Hona adibide batzuk: parte-hartze handia izatea “Lurraldearen garapen jasangarrirako hirigintza eredu estrategikoa” agiria egiteko; bizilagunen laguntza, kaleetako lurpeko hodiedatik zuntz optikoko kableak jartzeko; Osasun Karpeta Pertsonalaren erabiltzeak onarpen handia izan du; herritarrek farolak zaharberritu eta margotzeko lanetan parte hartzea, etab.

Jarduera horiek beste herri batzuetara transferitu daitezke, eta erreferentzia eta inspirazio-iturri gisa balio dezakete beste udalerrri batzuek beren testuingurura egokitzeko eta antzeko egoeretan erreplikatzeko. Horretarako, beharrezkoa da jarduera horiek jakinarazteko estrategia on bat gauzatzea, interesa duten beste herri batzuek ezagutu ahal izan ditzaten dela hedabideen bidez, dela web orriaren bidez, dela ekimena foroetan aurkeztuz edo dela Udalarekin zuzenean harremanetan jarriz, etab. Administrazio publikoek funtsezko eginkizuna dute jardunbide egoki horiek ezagutarazteko.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektu guztietan genero berdintasuna eta gizarteratzea hartzen dira kontuan. Udal honek beti izan du genero berdintasuna sustatzeko konpromisoa. Horren adibide da “Hizkera ez-sexistaren gida bat” argitaratu izana, genero berdintasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak egitea, hots, udal webguneko “Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna” atalean kontsulta daitezkeenak:

<http://www.legarda.es/category/igualdad/>.

Bestalde, kontsultategi medikuko itxarongelan zirkuitu itxiko pantaila bat jarri da, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak berdintasunaren arloan egindako edukiak txertatuta. Gizarteratzeari dagokionez, dominak mendetasunen bat duten pertsonak komunitatearen barnean mantentzeko aukera eman du, zerbitzuaren erabiltzaileen senideek adierazten duten bezala.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatean

Ekintza batzuek izaera berritzailea dute, teknologia berriak aplikatu dira Gauzen Internet sarea (IoT) aprobetxatuz LoRaWAN teknologiarekin, bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko eta tokiko jasangarritasunean eredugarria den herria lortzeko. Neurri berritzaileen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: argiteria publikoa berritzea, kale-argiak bota beharrean, horiek berreskuratzea erabaki baita, konpondu eta margotu egin baitira; kargagailu elektrikoa elikatzen duen

ekoizpen propioko eguzki-energia erabiltzea; eta landa-eremuko despopulazioa eragozteko lagungarriak diren neurri sozialak, hala nola, pertsona kalteberentzako doako domina, telelana edo Osasun Karpeta Pertsonalerako sarbidea erraztea (Nafarroako udalerrri bakarra izan da hori egiten, hau da, Udal bakarra izan da harremanetan jartzen Udala Osasunbidearekin, hura ezartzea eta erabiltzea errazteko, joan-etorriak egin behar ez izateko). Transferigarritasunari dagokionez, praktika horiek, behin haien eragina egiaztatu ondoren, erreferentzia eta inspirazio-iturri gisa balio dezakete antzeko egoeretan aplikatzeko, kontuan hartuta Nafarroan ugariak direla gurea bezalako tamaina txikiko toki erakundeak, eta, bestalde, ez dutela kostu ekonomiko handirik.

3.7. Transferentziak

Aurkeztu diren jarduera batzuk komunikabideetan ezagutzera eman direnez, beste herri batzuek beren interesa agertu duten jarduerak haien testuinguruan aplikatzeko, barne direla bai erabilitako teknologiak nola tokiko jasangarritasunaren arloko estrategiak, edo abian jartzeko modua, haien ezarpenean eskuratu den esperientzia eta horietako bakoitzaren kostu ekonomikoa. Adibide zehatza izan daiteke RuralCar mugikortasun jasangarrira aplikazioa, Ibarreko gainerako udalei ezagutzera eman zaiena, bakoitzak beren herrian bultzatzea, gure landa-ingurunean gertatzen diren mugikortasun-arazoak konpontzeko modua baita (gainera, egungo egoera ekonomiko ezagunak areagotutakoak).

12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean

Legardako Udala

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Agiri adostu bat eskura izatea (“Lurralde-garapen jasangarria lortzeko hirigintza-eredu estrategikoa”), egin beharreko proiektuen oinarritzat.
- Herritarren konpromisoa eta inplikazioa, herritarren dinamismo nahikoarekin.
- Udala erabat konprometituta dago bere ibilbide-orriarekin.
- Lan komunitarioa.
- Bizi-kalitate handia, oro har.
- Demografiaren susperraldia (azken 20 urtean biztanleria % 50 baino gehiago hazi da).
- Hiriguneetatik hurbil egotea
- Jasangarritasunaren eta digitalizazioaren arloan herri aitzindaria izatea.

4.1.2. Aukerak

- Laguntza autonomikoen eskaintza zabala, ingurumen eta jasangarritasun arloko proiektuen garapena bultzatzeko.
- Kontzientzia ekologiko eta digital globala.
- Landa-gune txikiak bultzatzea, tokiko garapen jasangarria lortzeko.
- Gobernuaren laguntza Agendako 2030eko helburuak lortzeko.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

- Baliabide ekonomiko urriak.
- Berezko langilerik ez proiektuak gauzatzeko.
- Kasu batzuetan, biztanle bakoitzeko kostua handia da.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

- Banakako ekintzak, batzuk batera egin behar-ko liratekeenean.
- Gizarte-eta kirol-jardueretarako ekipamendu komunitariorik ez izatea.

4.2.2. Mehatxuak

- Kanpo-finantzaketarekiko mendekotasun handia.
- Inbertsio publiko ezegonkorra.
- Klima-aldaketaren ondorioak.
- Garraio publikoa ez da nahikoa.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2021	URTEA 2022	GUZTIRA
Bazkidea 1: Europar Batasuna	15.000 €		15.000 €
Bazkidea 2: Nafarroako Gobernua	6.052 €	1.600 €	7.652 €
Bazkidea 3: Legardako Udala	10.706 €	3.248 €	13.954 €
AURREKONTUA GUZTIRA			36.606 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Rebizicleta

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkartea)

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Rebizicleta

JARDUERAREN KOKALEKUA

Lizarra

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Estellerria

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkartea)

ENTITATE MOTA

Irabazi-asmorik gabeko elkartea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **17/02/2022**

Bukaera: **17/07/2022**

Beste data interesgarri batzuk: 09/2022

HARREMANA

Aitziber Yáñez Lusaereta

Altzania ibaia kalea nº20, atzealdea. Iruñea. 31006

Tel. 948 248 630

www.anasaps.org

1. INFORMAZIOA

2. DESKRIBAPENA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

4. EGOERAREN AZTERKETA

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



Rebizicleta

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkarteak)

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

COVID-19ak eragindako konfinamenduaren ondorioz, gure elkarteko kideentzat jarduera kopuru nabarmena antolatzeko beharra sortu zen, guztiak ere aire zabalean. Tuterako gure ordezkarietan aliantza bat sortu zen bizikleta elkarre batekin eta, Iruñean, berriz, Udalarekin, gure bazkideei bizikletak uzte aldera eta bizikletaz paseatzeko jarduera egite aldera. Esperientzia onuragarri horren ondorioz, eta bazkideen interesa ikusirik, proiektu zeharkakoago bat egiteko ideia sortu zen, pertsonen ezagutzak eman eta jaso zituzten. Horretarako, gizarte ekintzako proiektu bat diseinatu zen Lizarran bizikletak birziklatzeko, betiere gaixotasun mentala duten pertsonen garatua, Udalak lagatuko lokal batean, horretarako egokitua, Lizarra pilotalekuko tabernan, eta Estellerriko jende guztiari zuzendua.

Proiektuaren izena Rebizicleta, hau da, hitz-jokoa da: “reciclar”, “bicicleta” gaztelaniaz, eta “bizi” euskaraz.

2.2. Jarduketa

Rebizicleta bizikleta erabiliak eta emandakoak konpontzeko tailer bat da, baliabide bat sortzeko eta, haren bidez, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen parte hartzeko, beren ekarpenak egite aldera, eta gizarte elkarrekin dezentzen. Helburu asko ditu, baina nagusia da pertsona horiek gizarteratzea eta haien gaineko estigma ezabatzea. Tailerra hiru hilabetez egin da, astearteetan, 10:00etatik 12:00etara eta, ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara. Hau da, herritarrek eta erakundeek emandako bizikletak jaso eta bestelako bizitza eman zaie. Era berean, toki egokia izan da beren bizikletak

konpontzeko beharra zutenentzat edo bizikletak nola konpondu edo nola mantendu azaldu nahi zutenentzat, aipatu ordutegi horretan etorri direlako. Behin konpondurik edo prest daudenentzat, bizikletak Estellerriko gizarteari eskaini zaizkio, eta eskatu duen orok bigarren eskuko bizikleta bat eskuratzeko aukera izan du. Pertsonen proiektu honen bidez gure jardueraren berri izateaz haratago, eta gure ekimenak eragin sozial handiagoa izate aldera, 5 kilo elikagai ekartzeko eskatu zaie bizikleta nahi zutenentzat. Ondoren, ANASAPS elkarteak janari hori guztia Elikagai Bankuari eman dio. Horrela, aliantzak ere sortu dira gizarte eragileen artean, eta Estellerriko gizarte ekintza ere sendotu eta handitu da.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Rebizicleta

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkarteak)

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2.2.1. Prozesua

Proiektuak hainbat fase izan ditu. Lehenik eta behin, hasierako ideia diseinatu eta hobetzea, taldearen bilera batean sortua. Ondoren, proiektuak behar zituen ekintza guztiak planifikatu dira, behar ziren diru eta giza baliabideekin batera, bai eta ekintza bakoitzaren arduraduna eta ekintzak gauzatzeko epea ere. Era berean, gogoeta egiteko unerik izan da, bai eta proiektua birzuzentzeko eta ebaluatzeko unerik ere.

Nabarmendu beharreko ekintzen artean, aipatu behar da ekimena elkarte barnean, taldean eta bazkideen artean ezagutzera emateko ekintza, bai eta kanpoaldean ere, hedabideek lagundurik eta mailing-a eginez. Halaber, Estellerriko hainbat tokitan kartelak paratu dira. Proiektua gauzatze aldera, funtsezkoa izan da bizikletak konpontzen zekien pertsona boluntario bat aritu izana; gainera, pedagogia gaitasun handikoa ANASAPS elkarteko bazkideei ezagutzak irakasteko.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

- Eskuzko abilezia, kontzentrazioa eta ekarpen-sentimendua sustatzea osasun mentaleko arazoak dituzten elkarte-kideen artean.
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak beren komunitatean gizarteratu daitezen bultzatzea, proiektua garatzen aritu diren eragileekin partekatuz.

- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen gaitasunen balioa nabarmentzea, gizarteak haien gainean duen estigma ezabatzeko.

2.2.3. Garatutako estrategiak

Proiektua garatu den bitartean, hainbat estrategia gauzatu dira; nagusiki, eragileen partaidetza eta gidaritza proiektuan sustatzeko, pertsona guztiek ekimena bere egin zezaten eta proiektua aurrera atera zedin.

Gutziz egokia izan da proiektua elkarte barnean ez uztea eta kanpora ateratzea, beste entitate eta talde batzuei ekarpena egiteko. Osasun mentaleko pertsonen gizarteratzeaz gain, bestelako xedeak izan dira, hala nola kontsumo arduratsua eta ingurumenean dugun inpaktua ahalik eta gehien gutxitzea.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Proiektuaren ebaluazioa pozgarria izan da. Gogobetetasun galdetegi bat eman zaie proiektuan alde edo moldez aritu diren bazkideei eta boluntarioei, hau da, hala diseinuan eta konponketa-tailerrean, nola jarduera eta lan guztien antolaketa eta komunitateko eragileekiko komunikazioan, etab., aritu direnei. Gogobetetasun maila handia izan da; izan ere, pertsonak adierazi dute ikasi dutela eta beren komunitatean parte-hartzaile eta erabilgarri sentitu direla. Horrek eragina du haien autokontzeptuan; horrenbestez, bizi-kalitatean.

Aldi berean, nabarmendu da ingurumenean inpaktu txikiagoa duen jarduera bat garatu dela.

Zenbakiei erreparatuta, esan behar da 42 bizikleta jaso ditugula dohaintzan; 19 bizikleta Estellerriko pertsoneri eman zaizkie, erabil dituzaten (haiek berek eskaturik). Onuradun mota, oro har, ANASAPS elkarteko bazkidea izan da, baliabiderik gabeko pertsonak, haurrak, gazteak, bizikleta erosteko baliabiderik ez zutenak.

Bestalde, aipatu behar da beste erakunde batzuek zeharka jaso dutela onura, hala nola Elikagai Bankuak, bizikletaren ordainez ekarri dizkiguten elikagaiak jaso dituelako.

2.4. Oharrak

Gauzak hobetze aldera, komunitateko ahalik eta eragilerik gehien engaiatu eta parte hartzea aurreikusitako da, proiektua bera aberasteko eta helburu nagusietako bat indartzeko, hots, parte-hartze soziala eta komunitatean kide izatearen sentimendua sustatzea, eta komunitateari ekarpena egiten diotela sentitzea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsoneri dagokeenez. Proiektuaz dagoen gogobetetasun maila ikusirik, eta ikasitakoa eta hobetu beharrekoa kontuan harturik, esperientzia heldu den urtean errepikatuko da.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Rebizicleta

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkartea)

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina


Rebizicleta proiektuaren azken eragina uste baino handiagoa izan da. Izan ere, proiektuan aurrera egin ahala eta partaidetza-eremuak zabaldu diren neurrian, bestelako helburuak izan ditugu eta, batez ere, gizarte eragile gehiago lotu ditugu. Horra hor proiektuaren hurrengo edizioetarako erronka, hau da, eragile gehiago lotzea. Era berean, uste baino emaitza hobek izan dira hala zenbakietan nola irismenean; beraz, hurrengo edizioetako helburuak munta handiagokoak izanen dira.

Eragina, gainera, ukigarria izan da. Izan ere, ikaskuntza bat izan da bizikleten mekanikaren gainean, beren denbora eta trebetasuna eskaini duten pertsonen artean konponketak egiteko. Era berean, aldaketa bat izan da egungo kontsumo-praktikan; hau da, ez dugu bota erabili nahi ez dugun huraxe, eta bizikletak biziberritu ditugu.

3.2. Elkartegintza

Jarduera hau ANASAPS elkartearen baitan diseinatu eta ezarri da. Irabazi-asmorik gabeko elkar-atea da, eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien inguruko bizi-kalitatea, partaidetza soziala eta eskubideen gauzapena hobetzearen alde dihardu.

Proiektuaren fase bakoitzean, hainbat espazio eta topagune parte-hartzaile sortu dira jardueraren egiteko, non, elkar-erantzun, profesionalak



eta boluntarioek hainbat mailatan parte hartu duten, bakoitzak ahal zuen mailan edo interesa zuen hartan, hala nola jardueraren diseinuan eta garapenean. Gainera, aliantza eta elkarlana ezarri dira beste gizarte eragile batzuekin, hala nola Elikagai Bankuarekin eta Gurutze Gorriarekin. Horretaz, bereziki gaude pozik, jardueraren helburua zabaldu delako eta gizarte-erantzuna areagotu delako.

3.3. Jasangarritasuna

Proiektua gauzatze aldera, ANASAPS elkarteak -abiarazten duen proiektu bakoitzean egin ohi duenez- bideragarritasun azterlana egin zuen,

eta proiektua mantentzeko aukera aztertu zen, Iruñeko egoitzan errepikatzeko parada edota elkarteak dituen gainerako ordezkari-taldeetan, hau da, Tuteran, Tafallan, Lizarran eta Donezteben. Era berean, proiektua ezagutzera emateko aukera aztertu zen, bai ANASAPS elkarteak xede duen kolektibo bererendako lanean ari diren pertsonen artean, bai desgaitasuna duten edo bazterturik dauden pertsonen artean.

Hasierako gauzapena ikusirik, gure iritziz beste esparru batzuetan errepika daiteke eta entitatean bertan ere segida eman daskioke.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Rebizicleta

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkarteak)

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Proiektu honen bidez atzeman dugu nola sustatu den lidergoa erakundean, hala bazkide senideena nola osasun mentaleko arazoak dituzten bazkideena. Hori oso aberasgarria izan da eta, batez ere, aukera baliatu nahi dugu aipatu lidergoa mantendu eta sendotzeko, eta elkarte-mugimenduen beste esparru batzuetara zabaltzeko, bai eta pertsona bakoitzaren bizitza-proiektura ere.

Bestalde, GHJko eta Agenda 2030eko helburu askori erantzuten dien oso proiektu zeharkakoa eta normalizatzailea gidatzeko aukera eman dio proiektu honek ANASAPS elkarteari. Era berean, ANASAPSek gizarteko beste eragile batzuekin sentitu du bere lidergoa, bai eta proiektu honen dinamizatzaile eta bultzatzaile eginkizuna ere, hots, bai Estellerriko biztanleekin, bai gizarte eragileekin, aldi berean bestelako onurak erakarri dizkielako beste talde eta erakunde batzuei.

Proiektua aise errepika daiteke hala erakundearen baitan, ANASAPS elkartearen beste 4 ordezkartzako edozeinetan, nola osasun mentalaren, desgaitasunaren, gizarte bazterketaren eta hirugarren adinaren arloan dabilzan erakundeetan, bai eta adingabeen artean ere.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektu honek pertsona guztien parte-hartzea sustatu du, edozein aldagai alde batera utzita,



hala nola adina, sexua eta kultura. Hain zuzen ere, gaitasun eta abilezia ezberdineko pertsonen parte-hartze maila handiak aberastu du proiektua.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Orain arte, Estellerrian ez da ezaugarri bereko proiekturik izan. Dena dela, haren diseinuan oso kontuan hartu da eskualde honetako idiosinkrasia, Estellerrian handiak baitira txirindularitza tradizioa eta zaletasuna.

3.7. Transferentziak

Arestian adierazi dugun bezala, proiektua gauzatu ondoren, uste dugu aise errepika daitekeela. Eñlkarte barnean eginen da, eta ANASAPSek ezagutza eskaintzen dio proiektua errepikatu nahi duen erakunde orori.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Rebizicleta

ANASAPS (Nafarroako Osasun Mentalerako Elkartea)

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

Partaidetza maila handia komunitatean. Eragin onuragarria izan da osasun mentaleko arazoak dituztenengan, bai komunitateari ekarpena egitearen sentimenduari begira, bai hartan parte-hartzaile izatearen sentimenduari begira. Diru kostu txikia du; tresnak eta osagarriak baizik ez. Boluntarioen laguntza.

4.1.2. Aukerak

Lankidetzak komunitateko eragileekin. Pertsona gehiagorengana iristea, eta haiek osasun mentaleko arazoez eta arazo horiek pairatzen dituzten pertsonen duten irudia aldatzea. Bizikleta bat emateko aukera izatea haren beharra dutenei.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Proiektua diseinatu eta ezarri berri denez, badu hobetzeko tartea, are irismen handiagoa izan dezan.

4.2.2. Mehatxuak

Ez izatea eskura espazio iraunkorrik jarduera hobetzeko, zabaltzeko eta ordutegi zabalagoan eskaintzeko.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

Ez dago bazkiderik. Proiektua ANASAPS elkar-teak bakarrik gauzatu du.

Aurrekontua, guztira (€)

KONTZEPTUA	GUZTIRA GASTATUA 2022
Material gastuak eta beste	458,40 €
%15 Soldatak eta ordainsariak 1. teknikaria	2.357,00 €
15% Sueldos y Salarios Técnico 2	2.351,25 €
GUZTIRA	5.166,65 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Hezegune txikiak egitea: Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

- 1. INFORMAZIOA**
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Hezegune txikiak egitea: Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia

JARDUERAREN KOKALEKUA

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Aranguren Ibarreko Udala

ENTITATE MOTA

Toki entitatea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2015 urtea**

Bukaera: **Ez da amaitu, proiektua aurrera doa**

Beste data interesgarri batzuk:

2017: Azterlanaren hasiera, anfibioren urteko erroldak, hezegune txiki berriak egitea eta odonatoen azterlanen hasiera.

2019: Hezegune txiki berriak egitea.

2021: Aranguren Ibarreko odonatoen gida argitaratzea.

HARREMANA

Guiomar Santamaría Solana

Mutiloa plaza z/g

Tel. 948 293 866

www.aranguren.es / medioambiente@aranguren.es



Hezegune txikiak egitea: Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Iruñerrian biodibertsitatea galtzen ari da. Urbanizazioak, nekazaritza areagotzeak eta azpiegitura handiek espezie askoren galera eragiten dute. Ziurrenik, inguru hezeak edo maila freatiko altukoak izan dira kaltetuenak; ondorioz, haiei loturiko fauna eta landaredia. Habitatakat galtzearekin batera habitaten arteko konektibitatea galdu da, klima-aldaketaren eragina ere hor dago...

2.2. Jarduketa

Arazo horretaz eta koordinazioan lan egin beharraz jabeturik, Aranguren Ibarreko eta Eguesibar-

ko Udalek bat egin dute bertako hezegune sarea handitzeko. Sarean, egun, badira hezegune batzuk Mutiloan, Elian eta Egulbatin.

2015. urtean, Hezeguneak eta hezegune txikiak Iruñerriko ekialdean sortzeko Proiektua idatzi zen, Nafarroako Gobernuarekin batera, konektibitate biologikoa handitzeko, La Caixa Gizarte Ekintzak finantzaturik. Zehazki, 9 kokagunetan hezegune txikiak egin ziren bi udalerrietako hainbat kontzejutan. Gero, 2017an eta 2019an, hezegune gehiago egin ziren beste 5 kokagunetan. Beraz, 22 hezegune txiki dira 14 kokagunetan.

2017az geroztik, urtero anfibio eta odonato populazioen laginketak egiten dira, bai eta hezegune txikiak mantentzeko lanak ere, bertan bizi diren espezieen beharretara hobeki egokitzeko, inguruetan landaketak eginez, berezko iragazgaitzen bidez, hesiak paratuz aziendarengandik babesteko, etab.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Hezegune txikiak egitea: Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

2.2.1. Prozesua

Hezegune txikiak egin ondoren, urtero azterlan bat egiten da xede-espezieek hezeguneak noraino kolonizatu dituzten jakiteko. Aldi berean, guneetan behar diren hobekuntzak egiten dira, txostenetan gomendatutakoarekin bat.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

- Habitat hezeak leheneratzea.
- Anfibio populazioak zaintzea, bai eta habitat hezeei loturiko beste fauna eta flora espezie batzuk ere.
- Habitaten konektibitatea erraztea.
- Bizi diren lurraldeko ingurumen-aberastasuna ezagutaraztea biztanleei.

2.2.3. Garatutako estrategiak

Hezegune txikiak sortzea, eta ondotik, etengabe zaintzea; hezegune txikiak kolonizatzen ari diren espezieen azterlana egitea urteroko errolden bidez, eta horren guztiaren balioa nabarmentzea, bizilagunendako ekintzen bitartez.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Gaur egun, 22 hezegune txiki ditugu 14 kokagunetan. Halaber, bestelako ur-masak lagintzen dira, hala nola askak, drainatzeak, hiriko urmaelak eta ibai tarteak. Horiek guztiak anfibioek kolonizatu dituzte, bat izan ezik, eta beste bi espezie agertzea espero da, horietako bat galzorian Nafarroan.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Halaber, odonato populazioen laginketak egiten dira, eta eskuratutako datuekin, argitalpena bat egin da.

2.4. Oharrak

Azaldutako ekintzez landara, herritarrak ingurumenaren gainean sentsibilizatzeko lana egiten da, hainbat ekintzaren bidez: argitalpenak, ikastaro monografikoak, bisita gidatuak, solasaldiak, etab.



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Hezegune txikiak egitea: Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Egin zirenetik hasi dira hezegune txikiak kolonizatzen. 8 espezie bizi dira: Lissotriton helveticus (uhandre palmatua), Triturus marmoratus (uhandre marmolairea), Pelodytes punctatus (apor pikarta), Bufo spinosus (apo arrunt iberiarra), Hyla molleri (zuhaitz-igel arrunta) eta Pelophylax perezi (ur-igel arrunta), Epidalea calamita, (apo lasterkaria) eta Alytes obstetricans (txantxikua).

Beste bi espezie ere bizi daitezke: Discoglossus galganoi (iberiar apo pintatua), hots, Nafarroan galzorian dago. Jasota dagoenaren arabera, gutxienez 1970eko hamarkadara arte bizi izan zen Aranguren Ibarrean eta Iruñerriko beste leku batzuetan (Gosá & Bergerandi, 1994); azken urteotan, Nafarroako hiru herritan ikusi da. Beste espeziea, berriz, Rana dalmatina (baso-igel jauzkaria) da; istiletako batean ugaldu zitekeen, espeziearen guneren bat hurbil mantendu izan balitz.

3.2. Elkartegintza

Hezegune txikiak Aranguren Ibarreko eta Eguesibarko Udalek egin dituzte, Nafarroako Gobernuarekin batera, La Caixak finantzaturik. Gainerako jarduerak koordinazioan egiten dira Udalen baliabideak erabiliz. Aranzadi Zientzia Elkartek urteroko erroldak egiten ditu.

3.3. Jasangarritasuna

Aurkeztutako jarduketak erakusten du toki entitateak batu egin daitezkeela lurraldea batera zaintzeko. Horrez gain, erakusten du askotan ez direla inbertsio handiak egin behar helburu hori gauzatzeko; bai, ordea, entitateen arteko konpromisoa, denboran iraun duena. Izan ere, urtero, anfibio eta odonatoen erroldak egiten dira, proiektuari segida emateko.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Proiektu pilotu honen bidez, administrazio publikoak inguru horretako paisaia eta ingurumena hobetzen ari dira. Inguru horretan, hiri-sare zabala dago, eta hau bezalako ekimenak behar dira.

Ingurua ingurumenaren aldetik hobetzeko lanak dira, eta jendearen eta komunitatearen bizi-kalitatearen hobetarako ere bai. Horregatik, herritarren artean onarpen maila handia dute.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte-ratzea

Proiektuak genero-ikuspegia du, hau da, gizonen eta emakumeen lan hau abiaraztearen inguruan dituzten beharrak, egoerak eta espektatibak aztertzen dira fase guztietan.

Erabiltzen den idatzizko eta ikusizko komunikazio mota orotan, hizkuntza zaintzen da sexista ez izateko.

Ikuspegi horren erabilerak emakumeen eta gizonen artean diren desorekak konpondu beharra planteatzen du.

Horrez gain, pertsonen buruz biltzen diren datuak sexuen arabera banatuta egonen dira.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Proiektu pilotua denez, izaera berritzaile nabarmena dauka. Bestalde, proiektuak anfibioen populazioetan eta habitaten hobekuntzetan izan dituen emaitza onak ikusirik, etsenplua da beste administrazio batzuentzat antzeko ekimenak egin ditzaten.

3.7. Transferentziak

Proiektu honen bidez hezegune txikietan egindako laginketek erakutsi dute proiektuak eragin onuragarria izan duela ingurumen baldintzak hobetzeko; horrenbestez, baita anfibio populazioen ere. Ekintza mota horiek aldaketa ekarri dute ekoizpen handiko nekazaritza-inguruneak lehertzeko jarduerara, Iruñerrian, adibidez.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Hezegune txikiak egitea: Biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia

Aranguren Ibarra eta Eguesibar

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Proiektua lurraldean eta arloan eskumenak dituzten hiru administrazioek sustatua eta babestua da (Nafarroako Gobernua, Eguesibarko Udala eta Arangurengo Udala), eta "la Caixa" Gizarte Ekintzaren diruekin finantzatua. Bi udalek ekimenaren jarraipenaz eta finantzabideaz arduratzeko konpromisoa dute.

4.1.2. Aukerak

- Proiektu pilotua; beraz, erabat esportagarria da.
- Antzeko baldintzak dituzten Iruñerriko beste leku aunitzetan aplikatzeko aukera handia dago: hau da, nekazaritza-presioa, biodibertsitate galera, eta hiri nahiz gizarte sare handia dagoen lekuetan.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Jarduketa-eremuak mugatzea, jabetza pribatua nagusi baita jarduketa egin daitekeen lekuetan.

4.2.2. Mehatxuak

- Klima-aldaketa.
- Nekazaritza-presioa.
- Herritarren presioa, erabilera txarrak direla eta.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2015	URTEA 2017	URTEA 2018-2022	GUZTIRA
Bazkidea 1: La Caixa Gizarte Ekintza	34.493 €			34.493 €
Bazkidea 2: Aranguren Ibarreko Udala		2.108,34 €	10.853 €	12.961,34 €
Bazkidea 3: Eguesibarko Udala	2.353 €	1.008 €	4.477€	7.838 €
AURREKONTUA GUZTIRA	36.846 €	3.116,34 €	15.330 €	55.292,34 €

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

Berdesia Estrategia

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

JARDUERAREN KOKALEKUA

Tafalla

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Hiri inguruko eremua, Tafallako udal-barrutia

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Berdesia Elkartea

ENTITATE MOTA

Irabazi-asmorik gabeko elkartea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2016ko iraila**

Bukaera: **indarrean dirau**

Beste data interesgarri batzuk: Lortzen ari diren mugarrak

HARREMANA

Mauricio Olite Ariz

Kultur etxea, Tubal k 19. 31300 Tafalla (Nafarroa)

Tel. 670 615 898

www.berdesia.com / berdesiatafalla@gmail.com

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

Berdesia Estrategia

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

BERDESIA 2016ko irailean sortu zen, Tafallako hiriaren ingurunea hobetzeko asmoz. Izan ere, ingurune hori azpiegitura ugari zeharkatua dago, sekulako hesiak sortzen dituzte, eta ez dago neurri aringarririk zolan, kutsadura eragiten dute, zaratak eta paisaiaren hondamena. Horrez gain, obra-hondakindegia, legartegiak, harri metak, tratatu gabeko lubetak, hormigoizko hesi pasaezinak, goi tentsioko lineak, laborantza intentsiboak hiri-bilbearen ertzean, etab.

Abeltzaintza gobernatzeko modua galdu eta aldatu denez, eta oihana tokiko xede energetikorako aprobetxatzearen ondorioz, kezka-iturria da gure maseen zainketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa.

Oso latza da Tafallako hiri-bilbearen eta azpiegitura berdeen arteko trantsizioa, bai eta landa-hiri interfazeen arteko pasabidea ere. Konektibotasun hobea behar da, osasungarriagoa, klima-aldaketak areagotutako ondorio hondagarrietatik bizilagunak babeste aldera (bero-boladak, uholdeak eta mendiko sute handiak).

2.2. Jarduketa

Agertoki horretan dihardu BERDESIA Estrategiak, eta Tafallarako babes berde bat sortzean sustatzen du. Hiriaren ingurunea izan dadila biodibertsitate handikoa eta osasungarria, halako mosaiko bat eratuko duena laborantza ekologikoz, larrez, zuhaizkaz eta baso txikiz osaturik, hau da, inguruz inguru berezko azpiegitura ber-

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

de bat osatuko duena, Tafalla inguruko 400 hektareatan gutxi gorabehera. Era berean, azpiegitura berde horren (indartzeko dagoena) eta Zidakos ibaiaren arteko konektibitatea hobetu nahi da (ibaia baita gure udal-barrutiko azpiegitura urdin nagusia, ingurumenaren aldetik ere hobetu beharrekoa). Eta ere berean, lotura behar da udalerrian diren beste azpiegitura berde batzuekin: Monte Plano, Buskil, Valgorra, Juncal aintzira, etab.

Horrez gain, gune hondatuak lehengoratzeko proiektuen bidez jarduten da, hala nola legartegiak, azpiegitura ertzetako zerrenda abandonatuak, eta tokiko paisaia leheneratzea.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

Berdesia Estrategia

BERDESIA estrategia zuhaitzak landatzea baino askoz ere gehiago da, argi baitugu landatze hutsarekin gune hondatu baten lehengoratzeko bakarrik hasten dela.

Gizarteak parte hartzeko hainbat proiektu ari gara aldi berean gauzatzen. Horietako bat aurten aurkeztu dugu Europako Bauhaus berrian “bideen arteko” sektorean (hau da, 30 ha-ko inguruan jardutea da, beste ekintza batzuen artean, hesiak kentzeko, bideak hobetzeko, behatokia jartzeko, iturri historikoa zaharbertzeko, askaldegia sortzeko, landaketa berezia egiteko eta autopistatik babesteko landare-pantaila paratzeko).

Halaber, ingurumen-hezkuntzan lan egiten da (basa fauna), ingurumeneko boluntariora lanean eta Herritar zientzian (basa erleen jarraipena egitea eta zaintzea), landa arkitektura tradizionalako elementuak berreskuratzea (erlategiak), dokumentazio funts bat sortzea etorkizuneko Lurralde eta Biodibertsitatea Zentrorako, eta dokumentazio erantsian azaldutako beste ekimen batzuk.

2.2.1. Prozesua

Elkartea 2016an lotu zitzaion bideari, lan-idea zehaztuta eta hasierako talde eragilea eratu-ta. Talde horrek egungo Berdesiaren izaeraren txostena idatzi zuen. Gainera, Tafallako beste bizilagun batzuek lagundurik, talde horrek Berdesia elkarte eratu zuen legez 2018an, 10 elkarte-kiderekin.

Aurrez, landarea sortzeko mintegia berreraiki eta jarri zen abian, Tafallako Udalak lekua lagatzeko erabakia hartu ondoren.

Bazkideak hartzeko kanpaina egin zen. Bada, azken 6 urtean egindako lanari esker, erakundeak 140 bazkide ditu.

2018an, La Pedrera baso txikia landatu zen; 2019an, eskola-mintegien sorrera bultzatu zen, programan herriko ikastetxeak sartuta, eta Ereta baso txikia landatu zen, bai eta El Serrallo baso txikia ere.

2021ean, “Tafalla-Berdesiako lurralde garapen jasangarrirako hitzarmena” sinatu zen, eta haren baitan, BERDESIA Estrategia lan taldea osatu zen, eta hartan ere solaskide gisa ari da Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetarako Departamentua, Lursarea enpresa publikoaren laguntza ere jaso zen. Baso txiki gehiago landatu ziren (Aitonon baso txikia, San Sebastián Erretiratuen Elkartearekin batera; Mendigoizaleena, Alaitz mendi taldearekin batera; Peñena, Tafallako hiru peñek lagundurik, hau da, Cierzo, Empuje eta Aguazón peñek; 75 almendrondo Miriam García parkean eta Serrallon landatu ziren, Tafallako Ikastolako ikasle eta irakasleekin batera; legartegi zaharra lehengoratu zen Raso del Monte Planon baso txikia auzolanean landatuz, eta Kanaleko luzerako baso txikia, hori ere auzolanean).

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

- Tafallako udalerrian azpiegitura berdeak sortzea eta lotzea.
- Tokiko biodibertsitatea sustatzea.
- Espazio hondatuak lehengoratu eta zaintzea.
- Tokiko ekonomiari mesede egitea.
- Ingurunea errespetatzen duten ohiturak sustatzea.
- Klima-aldaketara egokitzea.
- Herrian gizartearen inplikazioa eta elkartegintza sustatzea.
- Tokiko biztanleria finkatzea.

2.2.3. Garatutako estrategiak

- Tafallako Udalarekin koordinatutako lana.
- Tokiko mugimendu, kolektibo eta elkarten lankidetzeta eta inplikazioa BERDESIA estrategian.
- Jardun-eremuan erabilgarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak baliatzea.
- Finantzaketa bilatzea alde aurreko plangintza estrategikoaren bidez, hainbat zerbitzu tekniko publikotan oinarrituta (Nasuvinsa-Lursarea, Proiektu Estrategikoetako Departamentua, Tafallako Udal...) eta Elkarte osatzen dutenen gaitasun teknikoa baliatzea, eta laguntza teknikoaren kontratazioa.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

Berdesia Estrategia

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

- Tafallako Udalarekin koordinatutako lana.
- Tokiko mugimendu, kolektibo eta elkarten lankidetzatza eta inplikazioa BERDESIA estrategian.
- Jardun-eremuan erabilgarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak baliatzea.
- Finantzaketa bilatzea alde aurreko plangintza estrategikoaren bidez, hainbat zerbitzu tekniko publikotan oinarrituta (Nasuvinsa-Lursarea, Proiektu Estrategikoetako Departamentua, Tafallako Udala...) eta Elkartea osatzen dutenen gaitasun teknikoa baliatzea, eta laguntza teknikoen kontratazioa.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

Berdesia Estrategia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Hektarea landatuak: 14.

Zuhaitz kopurua: 12.058.

Herri landaketa jardunaldiak, eta elkartee-kin: 28.

Espezieak: Askotarikoak, 18 baino gehiago (ar-tea, erkametza, Alepo pinua, pinazi-pinua, tara-ya, astigarra, zugarra, olibadia, intxaurrendoa, pikondoa, arbendola, aranondoa...).

Jarraipena eta zaintza: (fitxa-kontrola landaketa bidez, zenbaketa, ureztatzeak, marrak berrezartzea, etab. Elkarreak egin du, Udalarekin lankidetzan).

Landaketak zaintzeko gizarte-babeseko estrategia bat lortu nahi dugu. Elkarreak, kolektiboek, lagun-koadrilek, landatu ez ezik, konpromisoa hartu, bere egin, jarraipena egin, birjarri, ureztatu eta abar egiten dute.

Tafallako elkarte, kolektibo eta hezkuntza-erakunde mota guztiakin esku hartu da, edo esku hartzen ari gara (erretiratuen elkarreak, mendi-elkarreak, ehizatarien elkarte, merkataritza elkarte, lehen hezkuntzako eskolak, musika eskolak...). 5 ikastetxerekin lankidetzan aritzea.

3.2. Elkartegintza

Elkarrea 2016an sortu zen, talde eragile bat osatuz; 2018an, legez eratu zen, 10 pertsonarekin. Gaur egun 140 bazkide ditu.

Gainera, beste elkarte-mugimendu propio batzuen eta hurbileko erakundeen jarduera sustatzen du; erakunde horiek bere jardueretan txertatzen ditu eta Berdesiaren helburuekin bat egiten duten haien jarduerak lagundu.

3.3. Jasangarritasuna

Elkarrearen helburu eta xedeak ingurumen-ingurunea hobetzea da, jardunbide egokiaren helburuetan ikus daitekeen bezalaxe.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Jardunbide egoki horrek ekarpena egiten dio komunitatearen lidergoari eta indartzeari; izan ere, Berdesia elkarrearen bidez egituratutako Tafallako bizilagunen antolamenduak berak identifikatzen ditu helburuak eta diseinatzen ditu klima-al daketara egokitzeko estrategia eta lehentasunezko neurriak, herriarentzat beharrezkoak direnak, eta halaber, buru-belarri parte hartzen du neurri horiek gauzatzeko finantza-zioaren bilaketan.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Gaur egun, elkarrearen batzordea 9 pertsonak osatzen dute, eta horietatik 3 baizik ez dira emakumeak. Barruko ekintzak egiten ari dira emakumezko kide elkartuak animatzeko eta bultzatzeko, gure erakundearen erantzukizuneko karguak har ditzaten.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Ekimen honen berrikuntza, nagusiki, haren plangintza estrategikoan datza, bai eta auzo-antolakuntzak klima-al daketara egokitzeko eta ingurunea zaintzeko neurrien plangintzan hartzen duen protagonismoan ere.

Ekimenak transferigarritasun handia du antzeko tamaina duten herrietara, eta bertako azpiegitura berdean antzeko deskonexio arazoak dituzten herrietara. Izan ere, antzeko ekimenak hasi dira Erriberrin, Berdesiak lagundurik.

3.7. Transferentziak

Erriberrin (Artea Erriberrin) herri mugakidean, antzeko helburuak dituen erakunde bat sortzen eta abian jartzen lagundu da. Harremana mantentzen da, ikuspegia, eginkizuna eta jarduteko irizpideak partekatuta. Era berean, elkarlanean aritzen da ekintzak burutzeko, mintegiko landareak lagaz.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Berdesia Estrategia - Hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobek sortze aldera

Berdesia Estrategia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Ekimenarekin engaiatutako pertsonen talde sendoa.
- Baterako kudeaketan eta lurraldearen zaintzan oinarritutako lan-sistema, nork bere erantzukizunak bere gain hartuta eta beste batzuk partekatuta.
- Jarduketak planifikatu, diseinatu eta proiektatu aurretik egiten den lana, laguntza publikoen deialdietan aurkezteko aukera ematen baitute.

4.1.2. Aukerak

- Ekimenaren helburuak bat datoz klima-aldaketara egokitzeko Europako, estatuko, eskualdeko eta tokiko akordioekin.
- Badira eskura dauden hainbat finantzaketa-iturri, nazioarteko akordio horiei lotuta, proiektuen tipologia hori laguntzeko.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Lurretan sartzeko zailtasuna (jabetza pribatua, herri-lurrak eta herri-lurretara sartzeko araudia...).

Diru aldetik egon daitezkeen arazoak, garrantzi handiko proiektuak onartzen abdira.

4.2.2. Mehatxuak

Lehentasun sozialak aldatzea, egungo egoera geopolitikoak dela eta.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2019	URTEA 2020	URTEA 2021	GUZTIRA
Bazkidea 1:	10.774 €	7.685,70 €	14.741,84 €	33.201,54 €
AURREKONTUA GUZTIRA	10.774 €	7.685,70 €	14.741,84 €	33.201,54 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

- 1. INFORMAZIOA**
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

JARDUERAREN KOKALEKUA

Iruñeko Udalerria

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Iruñeko udal-barrutia. Arrotxapea eta Txantrea

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Iruñeko Udala

ENTITATE MOTA

Toki entitatea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2021eko ekaina**

Bukaera: **Garatzen ari da**

Beste data interesgarri batzuk:

2020ko ekaina (jarduera pilotuaren hasiera)

2020ko iraila (jarduera pilotuaren amaiera)

2. jarduketaren hasiera)/2021eko urria

2. jarduketaren amaiera eta 3. jardueraren hasiera)

2022ko otsaila (3. jardueraren amaiera)

2022ko maiatza (4. proiektua eta ajruketen funtsen onespena)

HARREMANA

María Isabel Gómez Jiménez

Armada etorbidea 2. 9 solairua. Iruña (Nafarroa)

Tel. 948 420 995

www.pamplona.es/area-de-proyectos-estrategicos-movilidad-y-Jasangarritasuna / m.gomez@pamplona.es



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

2. DESKRIBAPENA

2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Iruñeko Udalak energiari eta CO2 isuriei buruzko diagnostikoa egin zuen 2021ean. Horren arabera, garraioak isurien % 56 eragiten du. Diagnostiko horretatik abiatuta, Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Estrategia egin zen. Estrategia horretan, mugikortasun-ereduaren aldaketa bultzatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak jaso ziren, uholdeei eta temperaturaren igoerari erantzute aldera, bai eta haien ondorioei ere. Kontua da hiria iragazkorregia dela eta azalera handia duela trafiko motordunari eskainia, eta horrek guztiak ondorioak larriagotzen dituela.

Udalak Mugikortasun Ordenantza berria du (2019ko abuztua), eta bi berrikuntza garrantzitsu ekarri zituen: noranzko bakoitzeko errei bakarra duten kale guztietan abiadura 30 km/h-ra murgatzea, eta oinezkoedako pasabideetan ikusmen-oztopoak kentzea, harrapatzeak oso ugariak baitira.

Biak betetzea erronka da, eta estrategia berritzaileak harri behar dira praktikan, dirua lortzeaz gain.

2.2. Jarduketa

Proiektu estrategiko, Mugikortasun eta Jasangarritasun Alorra hiru jarduketa pilotu egin ditu oinezkoedako pasabide iragazkorretan, munta eta azalera txikienetakoetatik hasita Arotxapean eta Txantrean, eta jarduketa integral baterako proiektua ari da lantzen Iturramako karrika bat

alderik alde egokitzeko. Lan horiek hiri osora zabaldu nahi dira. Hiria birnaturalizatzeko eta iragazkortzeko estrategia barnean baitaude.

Pasabide iragazkorretan hainbat irtenbide tekniko erabiltzen dira era askotako helburu osagarriekin, hiriko ingurumena kalitatez hobetzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

- Trafikoa hirigintzaren bidez egiazki baretzea (espaloi-mailara goratzea, galtzada mehartzea, oinezkoedako pasabide-tartea murriztea, eta pasabidearen inguruan ikusizko oztopoak kentzea, hiriaren iragazkortasuna oinezkoaren alde jarrita) eta mugikortasun-ereduaren aldaketa bultzatzea, zirkulazioari eta ibilgailu motordunak aparkatzeari trabak paratuz.

- Euri-ura lurrezko eta legarrezko geruzetan iragaztea, trafikotik heldu diren aireko eta lurreko kutsagarriak atxikitze aldera (metal astunak, bentzenoak, etb.), ibaira ez isurtzeko, ohiko bilketa eta kanalizazio sistemetan gertatzen den bezala. Lorategietako landareak egokituak dira; beraz, erakargarriak dira biodibertsitaterako, giroa freskatzen dute eta hiri-eszena hobetzen dute, eta hori ona da jendearen osasun fisikorako eta mentalerako.

Ikastetxe inguruko kokapenak aukeratu dira, eta hezkuntza-komunitateak diseinuan, landaketan eta mantentze-lanetan inplikatu ditugu.

Halaber, klima-aldaketa eta hari aurre egiteko estrategiak aztertu dituzten hezkuntza-proiektuen gunea izan dira. Era berean, komunitatearen eta auzoaren zerbitzuko jarduerak eragin dituzte, ingurumeneko erantzunkidetasuna areagotuta.

2.2.1. Prozesua

Proiektu estrategiko, Mugikortasun eta Jasangarritasun Alorraren iritziz, jarduketa aurreko egoera ikusirik, sekulako aukera dago hirirako, oinezkoedako pasabide guztiei ekiteko (2.609 pasabide), hainbat estrategia integraturen bidez, hiriko ingurumenaren kalitatea hobetzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko. Eragin handia sordezake hiri osoan, pasabide asko baitira eta hiri osoan daude barreatuta.

Zer jarduketa behar den zehazte aldera, urratsen auditoria egin zen. Auditoriaren arabera, ikusi zen beharrezkoa zela pasabide erdietan baino gehiagotan esku hartzea, bide-segurtasuneko arrazoiengatik; orduan, zehaztu zen zeinetan zen interesgarria ekitea lurzorua iragazkor bihurtzeko eta gure hiriko azpiegitura berdea sustatzeko.

Premia larria dago oinezkoedako pasabideen aurreko metroetan aparkatzeko debekua betetzeko; bestalde, esperientzia gutxi dago euri-lorategiak egiten edo eskala txikiko drainatze-sistema jasangarriak hirian aplikatzen. Beraz, gomendatzen dute Herritarren Segurtasunerako Alorrak premiaz ekitea jarduketari, bai eta Proiektu Estrategikoetako Alorrak ere.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

Hori guztia “oinekoendako pasabide iragazkorra” ereduaren garapenean gauzatu eta laburbiltzen da. Honako hauek hartzen ditu barne: euri-lorategiak (drainatze jasangarriko sistemak) oinezkoen bidegurutzearen inguruko espazioetan, eta trafikoa eraginkortasunez baretzeko neurriak aplikatzea, irtenbide tekniko berritzaileen bidez. Baina badira lan prozesu berritzaileak ere: udal zerbitzuen arteko lankidetzak, baina baita herritarrekin ere, hasiera batean urrats iragazkor horiek gauzatzen diren inguruetako ikastetxeak inplikaturik (pasabidea, euriarentzat eta ibiltzen diren pertsonentzat).

Proiektatzen den jarduketa berriak (kale oso bat modu integralean eraldatzeko), jarduketa pilotuetakoa baino askoz azalera handiagoa iragazkor bihurtzea lortuko du, eta hiri-drainatze jasangarriko hainbat irtenbide aplikatuko dira, ez soilik oinezkoendako gurutzebideen ondoko eremuak aplikatuta, baita hainbat espaziorik aplikatuta ere (biribilguneak, aparkalekuak). Galtzadak hartuko da beti, eta asfaltozko azaleraren ordez lur naturala eta espezie egokituak landatuko dira. Jarduera hori Next Generation EU funtsek finantzatuko dute, Espainiako Gobernuaren Lehengoratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta behin betiko bultzada izanen da birnaturalizatze jarduerak horiek orokortzeko; lotua egonen da, gainera, mugikortasun-eredua aldatzearekin, oinezkoak ibiltzeko erraztasunekin eta autoak zirkulatzeko eta aparkatzeko arazo penekin.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

Era berean, bigarren plan pilotuaren gauzapena Toki Erakundeentzako Dirulaguntzen Deialdiak finantzatu du, hirigintzaren arloko ekintza berritzaileak egiteko, 2021ean dokumentuak prestatuz eta espazio publikoetan inbertsioak eginez, eta hori ere barne bultzada izan da maila politikoan eta teknikoan.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

- Espazio publikoan oinezkoek lehenetsia duten hiri bat lortzea, espazio hori iragazkorra izan dadin eta oinez doazentzat oztoporik izan ez dadin.
- Oinezkoen bidegurutzeari gertatzen diren harrapatze kopurua murriztea, eta hiri-ikuspegiak “zero” moldekora izatea: zero harrapatze, zero istripu, zero biktima, eta hirigintzaren bidez eta trafikorekin egiazki baretuz egitea, seinaleak baino askoz eraginkorragoa baita.
- Mugikortasun-ereduaren aldaketa eta deskarbonizazioa bultzatzea, oinezkoen joan-etorriak lehenetsiz eta ibilgailu motordunen zirkulazioa zailduz, eta zirkulazio horretarako eta autoak aparkatzeko lekua murriztuz.
- Hiriko azalera iragazkorra murriztea, bereziki zirkulazio motordunerako eta ibilgailuak aparkatzeko azalera asfaltatuak hartzen duena, uholde-arriskua murrizteko, erauntsi handiak direnean euri-ura bideratzeko azpiegituren jarriate-ura eta karga murrizte aldera.

• Ibaien kutsadura saihestea, lehen deskargako euri-ura iragaziz. Ur hori asfaltozko gainazale-tatik igarotzen da, eta trafikokoak sortzen dituen kutsatzaileak eramaten ditu berarekin, gaur egun zuzenean bildu eta bideratzen den urarekin gertatzen den bezala, hau da, lurretik igaro gabe.

• Hiriko azpiegitura berdea handitzea, euri-lorategiak sortuz. Lorategi horiek espezie egokituak hartzen dituzte, eta hainbat onura ekartzen dituzte (hiri-paisaiaren naturalizazioa, biodibertsitatea erakartzea, giroa freskatzea, tenperaturak igotzen ari diren honetan).

• Maila tekniko eta politikoko klima-aldaketaren eta hiri-ingurumenaren kalitatearen arloko erantzunkidetasuna lortzea Iruñeko Udalean, hainbat udal-zerbitzuren lankidetzak eta inplikazioa eskatzen duen proiektu berritzaile bat garatuz, eta, horren bidez, ikaskuntza bateratuan aurrera egitea.

• Klima-aldaketaren aurrean, bai eta hiriak ingurumenarekin eta gizarte arloan dituen beste erronka batzuen aurrean ere, erresilientzia areagotzea, herritarrak eta gizarte-eragileak lankidetzazko proiektuetan engaiatuz, eta ikasteko eta zerbitzua emateko, ikastetxeekin batera sustatutakoen kasuan.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

• Hiri hezitzaile bat erdiestea, hau da, hirigintza eraginkorra eginez, ingurumen eta gizarte arloko balioak dakartzana, eta mugikortasun eredu osasungarri, jasangarri eta inklusibo berri bat barne hartzen duena.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Iruñeko Udala indartu egin da, erreferente gisa egin baitu aitzinera funtsezko jasangarritasun arloetan, hala nola klima-aldaketan, mugikortasun osasungarri, jasangarri eta inklusiboko mugikortasun eredu berrian eta hiri birnatura-lizatzeko.

Hori bi mailatan izan da:

1. Barne mailan

Erantzunkidetasun maila handiagoa lortu baita teknikoki eta politikoki jasangarritasun gaietan, eta espazio publikoan diharduten zerbitzu guztiak irtenbide tekniko jasangarrietan lerrokatuta.

2. Kanpo mailan

Eredugarri izanez eta arlo teknikoan zein sozialean aldaketak gidatuz, eta halako omena eskuratuz. Horrela, estatu mailako lan taldeetara gonbidatzen dute, haren gidaritzza positiboa indartuta.

Nabarmen aurreratu da klima-aldaketara egokitzeko irtenbide teknikoetan eta mugikortasun eredu berria bultzatzeko, hainbat jarduketa pilotu arrakastaz eta lankidetzaz gauzatu, eta

ekintza hurrengo urratserako bideratuz, hau da, eskala handiagoko irtenbide integralagoen bidez esku hartzeko.

2.4. Oharrak

Azken taulan lanen kostua ageri da. Barne daude bai obra zibila, paisajismo arloko laguntza teknikoa, landaketa, eta ureztaketa-sistema kasu batean.

3. Jarduketako aurrekontuan ez da bereizi Ezkaba kalean bidegorri bat egitearen kostua, ezta Eunate BHLra joateko berrantolamendu garrantzitsua ere, pasabide iragazkor handia eginen baita.

Iturramako karrika bat eraldatu eta bere osoan birnaturalizatzeko aurrekontua 200.000 eurotik gorakoa izanen da, obra zibila eta drainatze-sistema jasangarriak barne.

12 
PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

A) Etxebizitza jasangarria eta garapen komunitarioa

4. Plangintza eta parte-hartze komunitarioa erabakiak hartzeko eta baliabideak esleitzeko. Lankidetzazko plangintza egin da toki administrazioan, espazio publikoan diharduten hain zerbitzu jokoan jarrita: Mugikortasuna, Berdeguneen Kontserbazioa, Ingurumena, Herritar Segurtasuna, Hiri Proiektuak. Eta, era berean, udal administrazioaren eta beste gizarte eragile batzuen artean: jarduketan inguruko ikastetxeak eta, herritarrak, oro har.

B) Hiri- eta eskualde-garapen jasangarria

2. Kutsadura murriztea eta ingurumen-osasuna hobetzea. Galtzadetan eta airean (lehen deskarga) euri-urak biltzen dituen zirkulazioko metal astunak eta bestelako kutsatzaileak ibaira isurtzea eragoztean da. Trafikoak airearen eta zarataren kalitatean duen eragina murriztea.

5. Hirian lorategiak jartzea eta espazio publikoaren erabilera eraginkorra. Euri-lorategiak edo drainatze-sistema jasangarriak sortzea eta oinezkoendako espazioa handitzea, gaur egun autoek okupatzen dutenaren kaltetan.

7. Natur baliabideak eta ingurumena babestea eta zaintzea. Ibaien osasuna zaintzea eta, aldi berean, pertsonena zaintzea eta hiri-ingurunean biodibertsitatea sustatzea.

10. Hiria garatzeko estrategia integratuak eta globalak formulatzea eta praktikan jartzea. Hiri-espazioaren mugikortasun- eta kalitate-ereduaren aldaketa sustatzea: trafikoa egiazki baretzea, espazio publikoa oinezkoentzat iragaztea, eskola-ingurune seguru eta osasungarriak, hiri-paisaia hobetzea, etab.; klima-aldaketara egokitzea: uholde handietako jariatze-urak murriztea eta giroa freskatzea; jendea inplikatzeko jarduketan inguruneko ikastetxeak eta eskola-komunitateak inplikatzeko, eta herritarrak, oro har, ere bai; udal-unitate teknikoaren eta talde politikoaren erantzunkidetasuna sustatzea klima-aldaketaren aurkako eta jasangarritasun integraren aldeko borrokan.

C) Kokaguneeen kudeaketa jasangarria, eraginkorra, arduratsua eta gardena egitea

4. Hondamendiaren aurkako prestakuntza hobea, arintzea eta berreraikitzea. Drainatze-sistema jasangarriek jariatze-ura eta erauntzien inpaktua murrizten dute, uholdeak saihestuta.

6. Lidergoa ekintza eta aldaketa inspiratzean, politika publikoaren arloko aldaketak barne. Hiria iragazkortzeko proiektu pilotuak, asfaltoaren ordez euri-lorategiak jarrita, herritarrak barne, eta hainbat maila teknikotan eta maila politikoan lankidetzan arituz eredu garria eta inspiratzailea da.

3.2. Elkartegintza

2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak: kooperatibak, korporazioak, fundazioak, federazioak eta elkarteak. Josenea laneratze eta gizarteratze enpresaren laguntza izan dugu espezieak landatzeko.

4. Autonomoak eta mikroenpresak. Marion Stefanie Disenowski paisajistak eta Sustrai tokiko mintegiekin parte hartu dute. Biak ere ari dira kudeaketa partaideteko lorategien garapena kudeatzen udalarentzat.

5. Bestelako elkarteak. Jarduketan inguruko ikastetxeak eta eskola-komunitateak; zehazki, diseinuan, gauzapenean eta ikaskuntza- eta zerbitzu-proiektuen garapenean inplikatuak.

3.3. Jasangarritasuna

b) Errepika daitezkeen eskualde- edo toki-maialako gizarte-politikak eta/edo estrategia sektorialak. Hiri osoan errepikatzen eta edozein hiri eta hiri-inguruntara transferitzeko bokazioa duen proiektua da, esku-hartzeak errepikatu ahala gero eta inpaktu onuragarri handiagoa izanen duena.

d) Giza baliabideak, baliabide teknikoak, finantzarioak eta naturalak modu eraginkorragoan erabiltzen dituzten kudeaketa-sistema eraginkor, garden eta arduratsuak. Irtenbideak probatzeko eta eskala handiagoan erreproduzitu ahal izateko proiektu pilotuak.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

a)) Ekintza eta aldaketak inspiratzen dituen lidergoa, politika publikoaren arloko aldaketak barne.

Jasangarritasunaren aldeko, klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta mugikortasun-ereduaren aldaketaren aldeko apustua nabarmentzen duten irtenbide berritzaileak aplikatzea, inspiratzaileak politika, teknika eta herritar mailan, sektore guztiak inplikaturata.

b) Pertsonak, auzoak eta komunitateak indartzea eta haien ekarpenak gehitzea.

Udalak gonbidapena egin die jarduketan inguruko eskola-komunitateei proiektu pilotuetan parte har dezaten, haien diseinuan, gauzapean, kontserbazioan eta komunikazioan.

d) Transferentziarako, egokitzapenerako eta errepikagarritasunerako aukera izatea.

Irtenbideak hobetu ahala, konfiantza politikoa eta teknikoa sortzen da, eta errepikatzeo aukerak izugarriak dira gutxieneko egokitzapenak eginez. Aurrekontuetan diru gehiago baliatuko da, erreplika azkartu ahal izateko.

e) Tokiko baldintzei eta garapen-mailei dagozkien neurriak.

Udal-langileek gaitasun teknikoa dute eta, gainera, kanpoko aholkularitza tekniko aditua jasotzen da. Aurrekontua udalerritik bertatik dator,



eta aurrekontu berezia, berriz, Lehengoratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte-erantzukizuna

Ez dira genero berdintasuneko neurri berriak aplikatu, baina, jakina denez, oinezkoen mugikortasuna bultzatzen duten neurriek, batez ere ikastetxeen inguruetan, emakumeei egiten diete mesede. Izan ere, oinezkoen dabiltean eta auto-erabileran ez duten emakumeen ehunekoa handiagoa da. Ikastetxeetako lankidetzan, gainera, ikasteko zailtasunak dituzten haurrak sartu dira, berdinen artean ezagutzak transferitzeko jardueren bidez.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Jarduera berritzailea da maila teknikoan, bai eta prozesuetan ere, bai udal barnean, bai jarduketan hiri-testuinguruan eta tokiko komunitatean txertatzeko moduan, eta hasiera-hasieratik izan du bokazioa, bai hiri osoan errepikatzeo, bai beste jardueren eta testuinguru batzuetara transferitzeko.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021-2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

Proiektu Estrategiko, Mugikortasun eta Jasangarritasun Alorraren ekimena izan da. Alorrek, zehazki, hiriaren trantsizio ekologikoa eta barne mailako aldaketak gidatzen ditu, ingurumen jasangarritasunaren balioak udal jarduera guztietan txertatzeko eta hainbat gizarte eragilerekin lankidetzan aritzeko.

3.7. Transferentziak

a) Eragin ukigarria; ideia, trebetasun, prozesu, ezagutza, abilezia eta/edo teknologia bat edo gehiago transferitzearen ondoriozkoa dena.

Lehenengo inpaktua oinezkoen hiru pasabide iragazkor arrakastaz gauzatu izana da, irtenbideak probatuz eta hobetuz orokortzea eta errepikagarritasuna prestatzeko; bigarrena, barneko lankidetzaren indartzea eta hiriaren eraldaketan esku hartzen duten udal-zerbitzuak ingurumeneko jasangarritasunaren balioekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin letroratzea.

b) Aldaketak politiketan edo praktiketan.

Jarduera horiek jarduketekiko konpromiso politikoa areagotu dute bai klima-aldaketara egokitzeke, bai mugikortasun-eredua aldatzeko, eta hori gauzatzeko barne-praktikak hobetu dituzte.

c) Transferentziaren jasangarritasuna, denboran iraungo duen ikaskuntza- eta aldaketa-prozesu jarraitu baten atal gisa.

Jarduerek aurrera jarraituko dute eta onurak



esponentzialki handituko dira. Une honetan, jarduketa integral bat diseinatu da, karrika oso bati eragin diona, eta horrek aurrerapauso handia ekarriko du jarduketaren eskalan eta eraginean. Next Generation EU funtsekin finantzatu da, Espainiako Gobernuaren PRTRren baitan.

Era berean, Udalak lortu du RUNA2025 proiektua onartzea, hots, Espainiako hirien birnaturalizazioa eta erresilientzia sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen deialdira aurkeztua, Biodiversidad Fundazioaren 2021eko Lehengoratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan. Horren bidez, funtsak lortzen dira auzo guztietan jarduke-

tak orokortzeko, eta lurzorua iragazkortasuna handitzeko hiri-drainatze jasangarriaren estrategia zehazteko: beharren analisia, diseinu-gomendioak jasotzen dituen gida, mantentze-protokoloak, prestakuntza eta jarraipena.

Iruñeko hiri-espazioaren birnaturalizazioa abian da, eta aurrerantzean, irtenbideak ugaritu eta hobetuko dira, bai azpiegitura berdea iragazkortzeko eta handitzeko, bai horri lotutako oinezkoen iragazkortasuna areagotzeko.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Iruñea iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian

Iruñeko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Udalaren barneko gaitasun teknikoa eta aholkularitza eman dezaketen laguntza teknikoak, eta borondate politikoa bai gobernu-taldean, eta taldeen laguntza.
- Proiektu estrategiko, Mugikortasun eta Jasangarritasun Alorrak, bertan espazio publikoaren eraldaketan esku hartzen duten eta eraldaketa trantsizio ekologiko bihurtzeko lankidetzan ari diren zerbitzuak biltzen baitira, guztiak `Go Green Pamplona` estrategiaren babespean.
- Arrakastaz gauzatutako jarduera pilotuak, irtenbide berritzaileen gaineko beldur politiko-teknikoak murrizten dituena.

4.1.2. Aukerak

- Europako programetatik eta Estatuko dirulaguntzen deialdietatik datozen funts berriak horrelako jarduketak egiteko.
- Interes politikoa eta Iruñetik beste hiri batzuetara ezagutza transferitzea eskatzen duten estatu-erakundeekin aldetik (jarduketak CONAMA eta "Red de Ciudades que Caminan" sarearen urteko biltzarrean aurkezteko hautatu dira).
- Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Estrategia garatzea. Estrategia horretan, lehentasuna eman zaio neurriari, lagungarria delako garraioaren deskarbonizazioan eta klima-aldaketarako egokitzapenean.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Aurrekontu luzatuak, jarduketak lehenestera behartzen dute, eta testuinguru horretan, "beharrezkoenak" aukeratu daitezke (mantentze-lanak, kontserbazioa, konbentzionalak) trantsizio ekologikoan aurrerapausorik handienak emanarazi diezaguketen jarduketan aldean (zorionez, Europako funtsak ez dira arriskuan jartzen).

Euri-lorategiak mantentzeko beharra eta Hiri Kontserbazioko zerbitzuek beren gain hartzeko zailtasunak, dagoeneko lanez gainezka baitaude eta, era berean, herritarrak etengabe inplikatu behar izatea.

Auzo batzuetan beste batzuetan baino zailtasun handiagoak daude jarduteko, bai oinezkoendako eta autoendako espazioa banatzeagatik, bai euri-lorategiak arrakastaz egiteko aukerengatik, bai lur motagatik, bai zimenduetara dauden distantziengatik, etab.

4.2.2. Mehatxuak

Horretara behartzen duen legeriarik eza, horrek askoz azkarrago aurrera egiten lagunduko baiduke, batez ere behar den aurrekontua ziurtatuko litzatekeelako.

Konponbide horien inguruan adostasun politiko eta teknikoan aurrerapausoak eman diren arren, oraindik errezeloak daude, jarraitzeko erabakia ez dago finkatuta, ez bide-segurtasunaren eta oinezkoen iragazkortasunaren arloan, ez lur-zoruaren iragazkortasunaren eta irtenbide berritzaileen mantentzearen arloan.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ingurutzaileren isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan

Xabier Zubialde Legarreta

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Ingurutzaileren isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan

JARDUERAREN KOKALEKUA

Irurtzun

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Arakil, Larraun, Iza, Leitzarain, Goñerri, Ollaran, Gulibar, Imotz eta Irurtzun

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Xabier Zubialde Legarreta

ENTITATE MOTA

Autonomia, ingeniaria

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **2021/06/15**

Bukaera: **2021/08/16**

HARREMANA

Xabier Zubialde Legarreta

Arganbela 16, Bidaurreta 31174

Tel. 619 383 471

xzubialde@energia.eus



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ingurutzaileren isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan

Xabier Zubialde Legarreta

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA

2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Irurtzungo Udalak Irurtzungo Atakondoa eskolako ingurutzaileren isolamendu termikoaren maila hobetzeko diseinua eta gauzapen-proiektua eskatu ditu.

Erabakia bi helburu nagusik bultzaturik hartu da:

- Eskola barnean konfort termikoko baldintzak hobetzea.
- Eskolan energia termikorako eskaria murriztea, horrek dakartzan ondorio onuragarriekin:
 - Energiari lotutako urteko faktura ekonomikoa murriztea; beraz, energia erabiltzeari lotutako mendekotasun energetikoa murriztea.
 - Energia erabiltzeak eragiten dituen isuri kutsagarriak murriztea.

2.2. Jarduketa

Proposamen energetikoa hutsarteetan zelulosa injektatzean datza.

Zelulosa mekanikoki birrindutako paper birziklatutik abiatuta sortu beharko da.

2.2.1. Prozesua

Hainbat baliabide-zirkulu edo -fluxu planteatzen dira eta horiek, aldi berean, intersekzio-puntuak dituzte eta guztien artean helburu komun bat dute.

- Zirkulu soziala, "Proiektu soziala": Gizarteak, erakunde publikoen bidez, ingurutzaileren transmitantzia termikoa hobetzeko proiektuan

inbertitzen du eraikinean, eta proiektuak inbertsio hori itzultzen dio gizarteari, tokian enplegua sortuz (ekonomia zirkularra) eta eraikina birgaituta.

- Hondakin zirkulua, "Birziklapen Proiektua": Paper-hondakintzat hartu eta horrela kudeatu beharko liratekeen egunkari hondakinak, kasu honetan batera bildu eta biltegitratzen dira, eta zerbait erabilgarri bihurtzen dira. Beraz, hondakin izateari utzi eta material isolatzaile baliotsu bihurtzen da. Lehen hondakintzat jotzen zen zerbait balorizatzen da.

- CO2 zirkulua, "Biomasa proiektua": Paperezko zelulosa sortu aurretik zuzaitzatik datozen biomasa-hondarrak xehatu eta lehortuko dira, hondakin hori balorizatzeke, eta lehengai erabilgarri eta interesgarri bihurtzeko. Energia eta CO2 metatzen dituen lehengai da, atmosferara itzuliko ez dena, zabortegei batean degradatuko balitz edo erraustegi batean erraustuko balitz gertatuko litzatekeen bezala. Hormek biltegitratu eginen dute birgaitzean isuririk CO2aren zati bat.

- Energia zirkulua, "Energia proiektua": Egunkarietatik datorren zelulosak fabrikazio/kudeaketa prozesuan jada kontsumitu den energia metatzen du (kWh). Orain, eraikinaren energia termikoaren eskaria murrizteko elementu gisa erabiliko da. Energia termikoaren eskaria murriztuz (beroa eta hotza).

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

Auzolan bat abian jartzea beste ekintza bat egiteko, oraingo honetan Udalaren, eskolaren, haurren, bizilagunen, eta gurasoen artean. Auzolan bat antolatzea egunkari zaharrak biltzeko. Paper-hondakintzat hartu eta horrela kudeatu beharko liratekeen egunkari hondakinak, kasu honetan batera bildu eta eskolan biltegitratuko ditugu; zerbait erabilgarri bihurtzen dira. Beraz, hondakin izateari utzi eta material baliotsu bihurtzen da.

Behin egunkarien gaikako bilketa bukatutakoan, Iruñeko enpresa batera eramanen ditugu, isolamendu bihurtzeko, betiere egunkariak duten zelulosan berean oinarriturik, eta papera fabrikatzeko erabili ziren zuzaitzetatik heldu dena. Lehen hondakintzat jotzen zen zerbait balorizatuko da.

Lantegia bisitatzen da, hondakin bat zerbait erabilgarri nola eraldatzen den ikasteko, eta gero, enpresak egunkarietatik datorren zelulosa eskolan injektatzen du. Erosotasun termikoa hobetzen da, gas naturalaren erabilera murrizten da, emisio kutsatzaileak murrizten dira, eta diru publikoaren faktura energetikoa beste behar batzuetan erabil daiteke.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Inguratzaileren isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan

Xabier Zubialde Legarreta

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2.2.3. Garatutako estrategiak

Eskolako langileei prestakuntza eman zaie, eskola barnean lan pedagogikoa egin da, komunikazioa egin da familiarekin, herriarekin, Udaleko langileekin. Hori guztia idatziz, ahoz eta tresna digitalekin.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

190.000 egunkari erabili dira (90 tona paper). Horrek esan nahi du 90 tona CO2 inguru biltegi-ratuko ditugula eskolako hormen barnean.

Hau da, tximiniatik ateratzen diren urteko CO2 isuriak murrizteaz gain, berogailuaren kontsumoa murriztearen ondorioz, hormetako hutsartean egunkarietako zelulosa injektatzeak esan nahi du zelulosan dagoen CO2a –hau da, zuhaitzek aldeztatik xurgatutakoa– hormetan biltegi-ratuko dela, berriz ere atmosferara isuri beharrean.



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ingurutzaileren isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan

Xabier Zubialde Legarreta

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Espero da urtean 50.417kWh aurreztea energia termikoan; horrek esan nahi du urtean 5.000 € baino gehiago aurreztuko direla (aldakorra, gas naturalaren prezioaren arabera) eta urtean 11 tona CO2 aurreztuko dira gas naturalean. Eskola hobetu eta birgaitu egiten da.

3.2. Elkartegintza

Elkartegintza egiten da Udalaren eta Eskola Komunitatearen artean.

Elkartegintza egiten da Udalaren eta Familien artean.

Elkartegintza egiten da Eskola Komunitatearen, bizilagunen, irakasleen eta udalaren artean.

Elkartegintza egiten da aurreko guztiaren eta enplegua sustatzearen artean, ekonomia zirkularrak eraginda.

3.3. Jasangarritasuna

Ekintza bideragarria izan da ekonomikoki; gizarterari begira, ez baztertzaila; ingurumena errespetatzen du, eta, gainera, aldaketa iraunkorrrak lortzen ditu etorkizunean, epe laburrera eta luzera, Eskolaren energia-kontsumoaren faktura energetikoetan.

Mendekotasun energetikoa eta ekonomikoa murrizten du. Murrizketa horri esker, Udalak beste

politika eta inbertsio mota batzuk eginen ditu. Bestalde, jardueraren aurretik eta ondoren energiaren erabilerari lotutako kostu ekonomikoaren inguruko informazioa eman zaio gizarterari.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Bat-eginik jarduten da Udalaren eta eskola-komunitatearen artean.

Bat-eginik jarduten da Udalaren eta familien artean.

Bat-eginik jarduten da Eskola Komunitatearen, Bizilagunen, Irakasleen eta Udalaren artean.

Bat-eginik jarduten da aurreko guztiaren eta enpleguaren sustapenaren artean, ekonomia zirkularra dela eta.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektua idazterakoan hizkera ez-sexista erabili da, eta gauzapenerako proposamenak eskatzerakoan, genero-ikuspegian oinarriturik enpresan berdintasunaren alde erabilitako neurriak eskatu dira.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Izaera berritzailea du, eredugarria, eta beste esperimentzia publiko batzuek imitatu eta egokitu

dezakete, baina baita pribatuek ere. Birziklapenetik datorren zelulosarekin isolatu daiteke eta 50 km-ra baino gutxiagora fabrikatu, enplegua sortuta.

Nabarmendu egin behar da, jarduketa bereizgarria dela bere sektorean egiten ohi den jardunarekiko; izan ere, hainbat helburu lantzen dira, guztiak ere bereizgarriak eskolaren ingurutzaila isolatze hutsaren emaitzen aldean. Ekintza honek ez du inor epel utzi.

3.7. Transferentziak

Ekintzaren nabarmena da argi eta garbi, jarduketa aurreko eta ondoko gas naturaleko fakturen bidez.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Inguratzaillearen isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan

Xabier Zubialde Legarreta

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Komunitatearen zati handi bat inplikatzeko da, dibertsitate handikoa: erakunde publikoak (Udala, Eskolako irakasleak), pribatuak (fami- liak, haurrak, bizilagunak), kultur aniztasuna, mundu guztia berdin inplikatzeko duelako. AUZOLAN handia da egiazki.

4.1.2. Aukerak

- Oso errepikagarria da, eredugarria da eta erai- kin pribatu eta publikoetan aplikatu daiteke. Ikas- kuntza era askotakoa da, hondakinen kudeaketa, denok elkarrekin zerbaitetan lan egitea, honda- kinen balorazioa, ekonomia zirkularra, hurbil enplegua sortuz, erregai fosilen erabilera murriz- tea, isuri kutsatzaileak murriztea, ingurune- ko in- gurumen-kalitatea hobetzea, energia-faktoretan diru publikoaren gastua murriztea; horrenbestez, diru hori beste behar batzuetarako erabilteza.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2021
Bazkidea 1: Ayuntamiento de Irurtzun	56.000 € + 6.092 € + IVA
PRESUPUESTO GUZTIRA	76.111,42 €



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ardantzea, klimara egokitutako lorategia

Atarrabiako Udala

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA
Ardantzea, klimara egokitutako lorategia

JARDUERAREN KOKALEKUA
Atarrabia

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA
Udalerrri guztia

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA
Atarrabiako Udala

ENTITATE MOTA
Udala

JARDUKETAREN GAKO-DATAK
Hasiera: **2022/02/04**
Bukaera: **2022/11/04**

HARREMANA

Mikel Baztan Carrera
Karrika nagusia 22, 31610. Atarrabia (Nafarroa)
Tel. 948 136 680
www.villava.es / ayuntamiento@villava.es

- 1. INFORMAZIOA**
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ardantzea, klimara egokitutako lorategia

Atarrabiako Udala

1. INFORMAZIOA
2. **DESKRIBAPENA**
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Atarrabiako hiri-bilbea hein handian definitzen duten ezaugarrietako bat da zoladura eta eraikinak nonahi daudela; ondorioz, gainazala berotzen da eta bero-uhartea eragiten du, gero eta handiagoa, gainera. Ardantzea plaza errealitate horren adierazgarria da.

Etxebizitza-eraikinen eta zenbait udal ekipamenduren artean kokaturiko hainbat espazio zolatuk osatua dago (hezkuntza, kirol eta elkarte arloko ekipamenduak). Egoera txarrean dauden eta tamaina nabarmenik hartzeko aukerarik ez duten txorko zuhaizdun batzuk kenduta, proiektuak hartu duen ia inguru osoa zoladura gogorraren eremu latza da. Itzal gutxi eta batere goxoa ez

den osaera horren ondorioz, jendeak pasabidetzat soilik dauka plaza, udal ekipamenduetarantz edo aldameneko etxebizitzetarantz joateko edo haietatik etortzeko.

2.2. Jarduketa

Berdeguna jasangarriak eta zuhaitz lerrokadura sortu nahi ditugu, leku horretako tenperatura, itxura eta zerbitzuak hobetzeko, plazan jolas-esparruak eta egoteko lekuak jarrita, eta ingurumen hezkuntzari, partaidetzari, mantentze-lan urriei eta biodibertsitatearen hobekuntzari bidea eginda. Plazaren erdiko esparruak eraldatu eta hainbat esparru bereizgarri sortzeko asmoa dago, publikoaren edo eman beharreko zerbitzuaren arabera, betiere funtsezko eginkizunaren

barnean, hau da, aterpe klimatikoa eta jasangarria sortzea. Kontzeptu berritzaile bat garatu nahi dugu, honako kontzeptu hauek uztartzeko eta aberasteko: Klimara egokitzea eta huraxe zaintzea; ingurunea eta Jasangarritasuna; gizarte kohesioa eta belaunaldi-artekotasuna, aisia aktibo eta parte-hartzailea, osasuna eta Biodibertsitatea babestea.

2.2.1. Prozesua

Udalak oinarrizko proposamena idatzi du; ondoren, prozesu parte-hartzailea egin da huraxe hobetzeko; lizitazioa eta gauzapena, herritarrek eta ikasleek faseka parte hartuta. Funtzionamenduan jartzea, eta bizilagunen eta ikasleen jarraipena, bai eta herritar zientzia ere.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ardantzea, klimara egokitutako lorategia

Atarrabiako Udala

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

• Egokitzapen helburua

Egoki II proiektuaren eta udal-azpiegitura berdearen planaren osagarri eta jarraipen gisa, proposatzen du aterpe klimatikoak sortzea, urteko edozein garaitan erabiltzeko diseinatuak, biztanleria eta jarduera dentsitate handiko eremu batean, zoladura gogorreko espazioak kentzeko eta, haien ordeztu, itzala emateko zuhaitzez osaturiko berdeguneak paratzeko.

• Gizarte helburua

Sektore interesdun eta adin-tarte guztiak proiektuari lotzea, bai proposamenaren garapenean, bai ondorengo erabileran.

Ikastetxeen eta Gaztelekuren hurbiltasuna aprobetxatzea, eta kontuan hartzea erretiratuek bertan egoteko eta erabiltzeko tokiak nahi dituztela.

Frogatzea klima-aldaketara egokitzeak ondorio zuzenak izan ditzakeela biztanleen bizi-kalitatea eta haien ingurunea hobetzeko.

• Ingurumen helburua

Bizi-espazio bat sortzea, eta zoladura gogorren ordeztu, belardiek, zuhaitz-masa eta zuhaixkak jartzea. Flora eta fauna interesgarria gordetzen eta erakartzen duten biotopo txikiak sortzea. Lurzorua iragazkor bihurtuko duten eta euri-uren sareko jariatze-ura eta gainkarga murriztuko duten hiru Drainatze Sistema Jasangarri handi sortzea, eta, aldiz, zorupea kargatzea.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

• Helburu ekonomikoak

Ardantzea aterpe klimatikoak sortzea, ohiko edozein berdegune bako gauzatze-gastu txikiagoarekin, eta ondorengo mantentze-lanen kostua murriztea, zuhaixka-tapizatueta eta erabilera estentsiboko belardi loredunetan oinarritutako diseinuaren bidez.

2.2.3. Garatutako estrategiak

Herritarren ekarpenak eta aterpearen gauzapenean nahiz erabileran parte hartzea gako dira lorategiak arrakasta izateko. Hori dela eta, lehen hezkuntzako lau ikastetxeen, bigarren hezkuntzako bien, udal gazte zentroaren eta erretiratuen elkartearen atxikimendua eskatu da, eta denek baiezkoa eman dute.

Herriko bizilagunek parte hartzeko prozesua garatzen ari da, proiektu berritzaile hau ezagutzera emateko, ekarpenak jasotzeko, hasierako diseinua hobetzeko eta ondorengo gauzapen fasean parte-hartzea sustatzeko, eta herriko beste leku batzuetan erreplikatzeko.

Bereziki emanen zaio informazioa hurbileko biztanleriari, are gehiago parte har dezaten sus-tatuta.

Gainera, proiektuak eta lizitazio agiriak ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko irizpideak eta ezaugarriak biltzen ditu, proiektuaren inguruan jasangarritasuna areagotzeko, baliabide gutxi erabiliz, hondakin gutxi eraginez, 0 km-ko ber-

tako landarea erabiliz eta ureztapen-sistema eraginkorra nahiz itzalgune handia sortuz. Horren ondorioz, mantentze-lan gutxiago egin behar dira.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Espazio zolatuaren ordeztu, klimara egokitutako berdegune bat jarriko da, freskoa eta itzaltsua, bihurturatsua, paseorako, jolaserako edo egonaldi-rako erakargarria, zuhaitz eta zuhaixka dentsitate handikoa, horrek dakarren biodibertsitate erantsiarekin; horrek, gainera, beste zerbitzu batzuk sortuko ditu, hala nola osasuna edo ingurumen-hezkuntza, ikastetxeekin eta herritarrekin egindako lankidetzari esker.

2.4. Oharrak

Proiektu berritzailea da eta onarpen zabala dauka udalerrian.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ardantzea, klimara egokitutako Iratategia

Atarrabiako Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Hirigintza, ingurumen eta osasun arloko hobekuntza, espazioaren erabilera hobekuntza, ahalik eta mantentze-lanik txikiak lehenetsi dituen diseinu baten barnean. Plaza berriaren itxura txundigarria izan da, aurreko egoera eta ondokoa aldatzeko.

Proiektuaren hasieratik bukaerara bitarteko irudiak hartuko dira, eta udalerrian eta hartatik kanpo hedatuko dira.

3.2. Elkartegintza

Udalerriko ikastetxeek lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu dute: Atargi, Lorenzo Goicoa, La Presentación, Pedro de Atarrabia eta Paz de Ziganda.

Gazteleku udal gazte zentroa ere lankidetzan ari da, bai eta herriko eskaut taldea, erretiratuaren elkarte eta kultur erakundeak ere.

3.3. Jasangarritasuna

Jasangarritasuna pertsonen eta erakundearen parte-hartzean datza, eta hainbat xede ditu oinarri: bizi-kalitatearen, osasunaren eta autoestimatuaren hobekuntza; biodibertsitatea sustatzea eta azpiegitura berdea haztea berdegune berri horren bidez, betiere kontuan harturik inbertsio-gastua mugatua izan dela eta mantentze-lanak urriak izan direla, espazioaren eta bertako landare-diaren diseinu jasangarriari esker.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Proiektuak beste modu bat erakutsi nahi du espazio publikoak urbanizatzeko eta hobetzeko, jendea kontuan harturik eta ingurune habitatuaren egokitzapena sustatuta, klima-aldaketaren eta haren erronken aurrean.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektu guztia bideratua dago berdintasuna jakinarazpenetan eta garatu beharreko ekintzetan txertatua egon dadin.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Urbanizatzeko modu berri bat da, eta erronka bat da helburuak transmititzea eta haren bertuteak erakustea; baina espero da aldaketak garatu ahala aurrera egin ahal izatea eta, halaber, espazioak bolumena eta itzala hartu ahala. Halaber, ondorioak ateratzea espero da, datozen urteetan azpiegitura berdean sortu edo egokitu beharreko berdeguneetan aplikatzeko.

3.7. Transferentziak

Informazioa, oro har, tokiko hedabideetan eta prentsan emanen da, bai eta gure proiektuan interesa izan dezakeen erakunde orori ere, klima-aldaketaren aurrean gure herri eta hirietako aldaketak azkartzeak duen garrantzia ikusirik.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Ardantzea, klimara egokitutako lorategia

Atarrabiako Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Erraz samarra da abiaburuko egoera hobetzea.
- Udalbatzaren eta ikastetxeen inplikazio handia.

4.1.2. Aukerak

- Urbanizatzeko eredu berri bat sortzea.
- Hedatzeko, hezteko eta kontzientziatzeko aukera.
- Gizarteko hainbat sektore erakartzea.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

- Zailtasuna jendea erakartzeko eta parte hartzeko.
- Hainbat urte behar dira zuhaitzek egokitzeko baldintzak sortu arte: itzala eta freskotasuna.

4.2.2. Mehatxuak

- Landareak errotu eta garatzea zailtzen duten bero-bolada goiztiarrak.
- Erraza da landaketak hasieran bandalizatzea, behar adina hazi arte.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2022
Bazkidea 1: Atarrabiako Udala	59.230,64 €
Bazkidea 2: Nafarroako Gobernua (Diru-laguntza)	30.000 €
PRESUPUESTO GUZTIRA	89.230,64 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

Urraulbeitiko Udala

1. INFORMAZIOA

2. DESKRIBAPENA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

4. EGOERAREN AZTERKETA

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

JARDUERAREN KOKALEKUA

Nardoze Andurra, Urraulbeitiko Udalerria

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Urraulbeitiko Udalerria

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Urraulbeitiko Udala

ENTITATE MOTA

Udala

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **osteguna, 2013ko irailaren 26a**. Udalak bilkuran erabaki du 16. poligonoko 84. lurzatiko A azpilurzatia (guztira 29.653m²-ko azalera) laborantza ekologikoko herri-baratzetarako erabiltzea.

Bukaera: **Baratzeak 2018tik ari dira ekoizten eta iraunaldi mugagabea dute.**

Beste data interesgarri batzuk:

2016ko abendua. Nardoze Andurrako udal herri-baratze ekologikoen emakida eta erabilera arautzen duen Ordenantzaren onartu zen.

2017: Proiektua abian jarri zen: ur-kanalizazioa, depositua, hesia, heskaia eta sarbidea eraiki ziren.

2017ko azaroa: lurzatiaren lehen esleipena.

2022ko apirila: lurzatiaren azken esleipena.


HARREMANA

Ana Jesús Equísoain

La Plaza k- 18, Artieda (Nafarroa)

Tel. 948 883 037

www.urraultbajo.es / ayuntamiento@urraultbajo.es



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

Urraulbeitiko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA



2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Urraulbeitiko Udalak 2013. urtean hauteman zuen hainbat bizilagunek barazki eta fruta ekologikoak ekoizteko lurrak erabiltzeko interesa zutela, bai norberak edo etxekoek kontsumitzeko eta baita erabilera profesionalerako ere, hau da, produktua beste pertsona batzuei saltzeko. Hala, lanpostuak sortzeko eta biztanleria balaian errotzen laguntzeko aukera sortu zen.

Udalak, landu daitezkeen herri-lurren jabe denez, 16. poligonoko 84. lurzatiako A azpilurzati horretarako erabiltzea erabaki zuen; hots, ordu-ra arte lehorreko laborantza-lurra zena laborantza ekologikoko herri-baratze bihurtu zuen. Nardoze Andurrak iturburu du “la Fuente” izeneko

barrutian, eta, Itoizko urtegiko ura ekarri arte, hori erabili ohi zen herria urez hornitzeko. Erabiltzeari utzi zitzaionean, baratzeak ureztatzeko iturburu bera eta Udalaren ponpaketa-etxola erabiltzeko aukera mahai gainean jarri zen.

2.2. Jarduketa

Lurzatia aipatu laborantza lanetarako erabiltzea adostu ondotik, erakundeak denbora ugari eman zuen beharrezkoak ziren ordenantza mailako kudeaketak eta izapideak prestatzen, eta hainbat parterekin elkartu zen: lurzatiaren esleipena eskuratu zuenarekin, CHerekin, Ingurumenekoekin, memoria teknikoak ondu zuen enpresarekin, hasieran proiektuarekiko interesa agertu zuten bizilagunekin eta CERDENA GA-

RALURekin (toki garapenerako agentzia). Obra 2017an egin zen, beharrezkoak ziren baimen guztiak lortuta: Ingurumenekoena, “lehorreko laborantza lur” izatetik “laborantzarako lur ureztatu” izatera aldatzeko; CHereka iturburuaren erabilera aldatzeko; eta Ingurumen Kalitatearen eta Aldaketa Klimatikoaren Zerbitzuko Ingurumen Ebaluazioko Atalarena ingurumen-eraginak baimentzeko. Aldi berean, 2016an, herri-lurren aprobetxamendua arautzen duten Ordenantzak aldatu ziren, aipatu lurzatiaren azalera ekoinzpen ekologikoko baratzeak jarri ahal izateko, bai familiek erabiltzeko eta baita profesionalak erabiltzeko ere. Horrela, behin betiko onartu zen udal baratze ekologikoen emakida eta erabilera arautzen duen Ordenantza.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

Urraulbeitiko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Gauzak horrela, 2017. urtean lehen esleipenak egin ahal izan ziren, eta 2018. urtean bildu zen lehen uzta.

Egun, 15 lurzatia esleitu zaizkie Udalerriko 3 herritako 6 bizilaguni: Artieda, Nardoze Andurra eta Arripodas. Bi pertsona esleipendunek euren ekoizpena saltzeko erabiltzen dute, eta gainerako lauek familia elikatzeko.

2.2.1. Prozesua

2016 eta 2017 artean memoria teknika egin zen eta obrak aurrera egin zuen. 2017an bukatu ziren. Aurretik zegoen instalazioari behar zituen azpiegiturak gehitu zitzaizkion, 29.000m²-ko azalerako herri-lursaila ekoizpen ekologikoko barazki eta fruten laborantzarako erabili ahal izateko: ura depositu berriraino eramateko kanalizazioa, sarreraren egokitzapena, ingurua ixteko hesia paratzea eta heskaia landatzea.

Lurzatiak esleitu ondoren, tantaka ureztatzeko sistema eta ur-kontagailua jartzea erabiltzailearen ardura dira.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

Proiektu honek Aalborgeko konpromisoetan jasotako helburuak aintzat hartu ditu, Udalak 2017ko ekaineko bilkuran akordioarekin bat egi-
tea erabaki baitzuen:

- 2 Jasangarritasunera begirako Udal-kudeaketa
- 3 Herri-ondasun naturalak
- 4 Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

- 8 Tokiko ekonomia bizi eta jasangarria
- 9 berdintasuna eta justizia soziala.

Helburu orokorrak

1. Nekazaritza ekologikoa sustatzea, norbanako bezala, familian eta baita merkatuari dagokionez.

2. Lurra jabetzan izateko zailtasun edo ezintasunak dituzten pertsonen baratzea izateko duten behar sozial edo ekonomikoari erantzuna ematea.

3. Enplegua sortzen laguntzea.

Helburu zehatzak

a. Ekonomia jasangarriaren, ekoizpenaren eta kontsumoaren eredia babestea, baliabide propioak eta produktu eta praktika ekologikoak lehenetsiz.

b. Bertako biztanleei aukerak ematea bertan errotzeko berme bezala.

2.2.3. Garatutako estrategiak

- Udal araudiaren garapena.
- Herritarrak jakinaren ganean jartzea bileren, bandoen argitalpenen eta bilkuretako akten bitartez.
- Eraginkortasun ekonomikoa: LGPri aurkeztea.
- Hedabideen eta Udalaren webgunearen bitartez zabaltzea.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Egun, 6 pertsonen dauzkate esleitutako laborantza lurzatiak: 2 gizon eta 4 emakume dira, Udalerriko 3 herritakoak: Artieda, Nardoze Andurra eta Arripodas. Esleipena 25 urterako da gehienez ere.

2.4. Oharrak

Nardoze Andurrako herri-lursaileko baratze horiek enplegua sortzeko balio dute eta bailarako bizilagunei familia-ekonomia indartzeko lagungarri izan daitekeen baratze txiki bat erabiltzeko aukera eskaintzen die.

Horrela, Urraulbeitiko Udalak eredu ekonomikoa jasangarri baten alde egiten du, lurrari lotuta, eta bertako produktuei lehentasuna emanez. Nekazaritza jasangarria sustatzen du, eta oinarria du jardunbide egokietan, baliabide naturalak zaintzean eta ingurumena babestean.

Gai kimikoak baztertzen dituen laborantza mota honekin –pestizida eta ongarririk gabekoa–, Urraulbeitiko Udalak ekoizpen eta kontsumo ohi-tura ekologikoa sustatu nahi ditu, hau da, etorkizunari begira dagoen sistemarekin bat egiten du, ekoizpen modu tradizionalak alde batera utzi gabe.

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

Urraulbeitiko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Zuzeneko eragin nabarmenena lurzatien esleipendun diren Urraulbeitiko bizilagunek jasaten dutena da, laborantza ekologikoan ekoizteko egokitutako herri-lurra erabiltzeko aukera dutelako. Eragina du ere baratze horietako produktak jaten dituzten pertsonengan.

Ekoizpen ekologikoaren baldintza bezala ezartzea berria da Urraulbeitiko Udalaren herri-lurretan. Jasangarritasunaren alde egiten du, eta honako mezua bidaltzen die herritarrei: egungo betebeharrak asetzeko gai den ekoizpena da, etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe.

Tantakako ureztatze sistema erabiltzeko betebeharrak aurrezteari eta eraginkortasunari begiratzen die, ura baliabide bezala zaintzeko, gure klima azpi-mediterraneo honetan oso urria baita. Eragina du paisaiaren aniztasunean ere, eta, horrekin loturik, baita biologikoan, zereal laborantzak eta marga lurra nagusi baitira gurean.

Gizarte mailan, berdintasunaren alde egiten du, emakumeek eta gizonek aukera berdinak baituzte ordenantza bidez; lehentasuna ematen zaie, ordea, lur ureztatuen jabe ez direnei. Bizilagunei dagokionez, espazio publikoari balioa emateko jardunbide egokia da, eta eredugarri izan daiteke beren baratze propioak dituztenentzako.



Labore ezberdinak eta lurzatia berean elkartzen diren pertsonak elkarrentzat oso aberasgarriak izan daitezke, laborantza ekologikoari buruzko ezagutza eta trebetasunak, eskarmentua edota haziak erein eta gordetzeko moduak partekatzean.

3.2. Elkartegintza

Espazioa, baliabideak, lurra, ura eta instalazioak (hodia, depositua, hesia, sarbidea) partekatzeak elkartrukerako egoera ezin hobea sortzen dute esleipendunen artean, esperientzia, ezagutza edota materialari dagokionez, behintzat.

Bestalde, Udalak, proiektuaren bultzatzaile den aldetik, eta esleipendunek WhatsApp talde bat dute sor litezkeen beharrak, matxurak, aldaketak, etab. jakinarazteko. Denboraldia bukatzean, bertako abeltzainak bere artaldea sartzen du aipatu lurzatian, gera litezkeen hondarrak jan ditzan. Aldi berean, artaldeak hurrengo

denboraldian erabiliko den ongarria ematen dio lurriari. Jarduerak aurrera egin ahala, laborantza ekologikoan aritzen diren beste ekoizle edo erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko aukera dago, hala nola, INTIA edo CPAEN, haziak, landareak, izurrien aurkako tratamenduak, etab. eskuratzeko.

3.3. Jasangarritasuna

Proiektu hau nekazaritza alorraren baitakoa da, hain garrantzitsua bailara honetan, eta baliabide naturalak modu eraginkorrean erabili nahi ditu: laborantza lurra (gure udalerrian gehien duguna) eta ura.

Dibertsifikazioa dakarkio sektoreari eta baliabide naturalen ustiapen jasangarria: lurra parametro ekologikoen menpe lantzen da, eta ura eraginkortasun eta aurrezte irizpideak jarraituz erabiltzen da (tantakako ureztatzea).

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021-2022

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

Urraulbeitiko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
- 3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK**
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Dauden baliabideak optimizatuz, kalitate hobeaz lortzen da. Batetik, kalitatezkoak dira elikaduraren eta osasunaren ikuspegitik, eta, bestetik, ekoizpen produktioa errespetatzen dute: gai kimikoak baztertzen dituen laborantza da (ez pestizidarik eta ezta ongarririk ere). Egindako inbertsio ekonomikoari esker, martxan jarritako proiektuak luze iraunen du.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Proiektuaren helburua udalerrira osoan aldaketa eragitea da. Herritarren kontzientzia piztu nahi du, kalitatezko elikagaiak, ekologikoak eta gertu ekoiztuak kontsumitu ditzaten.

Eredu ekonomiko jasangarri baten adibidea da, lurrari lotua eta gertuko elikagai ekologikoak lehenesten dituen.

Bizilagunen artean inguruarekiko sentsibilitatea eta errespetua hedatu nahi du.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektuan parte hartzen duten pertsonen artean, ez dago inolako diskriminaziorik genero arrazoiengatik.

Egun, 4 emakume eta 2 gizon dira lurzatiak erabiltzen dituzten pertsonak.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Proiektua hainbat arrazoierengatik da berritzailea gure udalerrian:

- Lehen aldiz erabiliko da herri-lursail bat laborantzarako.
- Urraulbeiti udalerrian, laborantza ekologikora bideratutako 2. herri-lurzati da.
- Erakundeak parte-hartze handia du baliabide ekonomiko zein materialei dagokienez, eta baita antolakuntzan ere. Proiektua baliabide berak dituen edozein eremutan errepika daiteke: landu daitekeen lursail publikoa, ura, eta, nola ez, laborantza konbentzionaletik ekologikora aldatzeko prest dauden pertsona eta erakundeak behar dira.

3.7. Transferentziak

Batetik, posible da proiektua edozein Kontzeju edo Udalerrira eramatea; behar den bakarra laborantzarako herri-lurrak, ureztatzea eta ekologikoki ekoizteko asmoa dira.

Bestetik, erabiltzaileek beren lan eta uztarekin pilotzen ari diren ezagutzak, datuak, esperientziak, etab. partekatzen ahal dira, eta aberasgarri suerta dakizkioke baratza eta fruta zuhaitz ekologikoen lanean aritzen den edozeini. Jardunbide egokiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu, bai herri-lurretan eta baita pribatuetan ere.



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti

Urraulbeitiko Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Udalak proiektu honekin duen konpromisoa. Bertan parte hartzen duten bizilagunak.
- Lursailetan aritzen diren pertsonen arteko harremanak eta ezagutza trukea.
- Udalerri honetan hain ugaria den baliabide baten erabilera (laborantza-lurra), etorkizunean izanen duen kalitatea (emankortasuna) arriskuan jarri gabe.

4.1.2. Aukerak

- Ibarreko herritarren zati baten kontzientzia eragitea gertuko laborantza ekologikoko kalitatezko produktuak kontsumitu eta ekoitzi ditzan. Jarduera honek luze irauten ahal du. 2014-2020 LGPren bidezko laguntza ekonomikoa.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Duela 6 urtetik ohiko zereal laborantzarako erabili ez den arren, gaur-gaurkoz lurra ez da oso emankorra baratzean aritzeko. Kanpoko eragileekiko menpekotasuna dago, ekoiztiko produktuak saltzen diren ala ez eta horren etekinen menpe baitaude profesionalak. Ekoizpen ekologikoko ziurtagiri ofizialik ez izatea.

4.2.2. Mehatxuak

Gizarteak, orokorrean, bertako produktuak edo ekologikoki ekoiztuak kontsumitzeko edo ekoizteko duen interes txikia. Materiala lapurtzea: inguruko hesia ixteko eguzki-plaka.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2022
Bazkidea 1: Urraulbeitiko Udala	33.672,70 €
Bazkidea 2: EDLP (Leader) Nafarroako LGP baitan	22.259,20 €
AURREKONTUA GUZTIRA	33.672,70 €



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA
Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

JARDUERAREN KOKALEKUA
Mendabia

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA
Legarda bidea, Mendabia

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA
Mendabiako Udala

ENTITATE MOTA
Udala

JARDUKETAREN GAKO-DATAK
Hasiera: **2022ko martxo**
Bukaera: **2022ko ekaina**

HARREMANA

Teresa González Ezquerro
Udaletxe plaza, 1 Mendabia 31587 (Nafarroa)
Tel. 948 685 176
www.mendavia.es / tgonzalez@mendavia.org

- 1. INFORMAZIOA**
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 
PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021-2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

2. DESKRIBAPENA

2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Legardako bidea Mendabiako hiri-inguruan dago, eta lotura da hirigunearekin, udal igerilekuekin, Legardako ermitarekin eta Ebro ibaiarekin. Jendeak asko erabiltzen du paseatzeko.

Herritik hurbilen dagoen zatian, 1 km ingurukoa, bideak oinezkoentzako bide bat du. Oinezkoentzako bide horren ondoan, 5-20 metro arteko zabalera duen espazio luzanga dago.

Gune horretan hainbat eremu bereizten dira: askaldegi bat eta mahaiak, iraganean lerro-lanak egindako gune bat, eta herritik hurbilen dagoen eremu bat, erabilerarik gabeko azekia bat zuena, baina azekian hodia paratu zen.

Erabilerarik gabeko eremu horrek 450 m-ko luzera eta 2.000 m² inguru zituen; itxura abandonatua zuen, jarlekuak hondatuak zeuden, eta zuhaitzen batek itzala ematen zuen.

2.2. Jarduketa

“Legarda bidea – Bizitza Bidea” proiektua erabilerarik gabeko espazio publiko baten jarduketa integrala da, azpiegitura berdea hobetzeko, hirigintzako praktika jasangarrien eta leheneratze ekologikoko jarduera estrategikoen bidez, eta hori guztia paisaia-proiektu baten gidaritzapean.

Helburua espazio txiki horren irisgarritasuna, funtzionaltasun ekologikoa eta paisaia-integratzea hobetzea zen.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



12 

PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

Espazioa egokitu da honako hauek sortzeko:

- **“Tximeleten oasi gunea”**

Ikusi eta ikasteko. 27 tesela hexagonal, tamaina ezberdinekoak gramineoen itsaso baten gainean. Helburua tximeletentzako hexagono-habitat txikiak sortzea da, espezie nutriferorekin eta nektariferorekin. Hexagono bakoitzean lore-kolore bereko espezie autoktonoak landatzen/ereiten dira, estetika hobetzeko. Oasia Zerynthia Elkarteko Tximeleten Oasien Sare Nazionalan sartua dago.

- **“Mix border Eremua”**

Landare-hesi formako landaketa mistoa espezie autoktonoekin. Intsektu polinizatzaileentzat korridore ekologiko bat sortzea da helburua, oasi-eremutik egote-eremura lekualdatzea errazteko. Lekadun espezieak ere sartu dira lurzorua hobetzeko.

- **“Zona estancial”**

Leku hexagonal txikiak dituen eremu ibilgarria da, lurrezko zoladurarekin eraikia, eta espezie autoktonoz landareztatutako eremu naturala, orban hexagonal handietan antolatutak eta zurziurtatuko trabesekin zedarrituak.

Gainera, proiektua osatzen duten beste jarduerak batzuk egin dira:

- Hegazti intsektujaleentzako habia-kutxak, izurriteen kontrol naturala errazteko.
- Intsektu-hotela, polinizatzaileen garrantzia erakusteko baliabide hezitzaile-hezigarri gisa.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

- Plastikoaren errefusa duten hondakinekin egindako altzari jasangarriak paratzea. Guztira, 2.000 kg-ko plastiko biziberritu dira.

- Erabili den zurak ekoizpen jasangarriko ziurtagiria dauka.

- Ur behar oso txikia duten tokiko espezie autoktonoak hautatu dira.

- Espezie inbaditzaileak ezabatu dira.

2.2.1. Prozesua

Mendabiako Udala konturatu zen erabilera gabeko espazio bat zuela, herritarren BIZI KALITATEA hobetzeko erabil zitekeena. Udalak argi zuen jendeak espazioa erabiltzea nahi zuela, baina, gainera, mantentze-lanak minimizatu behar zituen. Erronka handia zen, oso leku gutxi zegoelako eta baliabide gutxi zuelako.

Horrela, Ingenieria Ebro enpresarekin hitz egin zuen. Leheneratze Ekologikoko Proiektuen koordinatzaileak dira egoera azaltzeko eta ingururako proiektu bat proposatzeko.

Hasierako diagnostikoa egin ondoren, Ingenieria Ebro-k diziplina anitzeko talde bat osatu zuen, proiektuaren behar guztiak barnebiltzeko. Honatx taldekideak: Mingo-Basarrate, paisajista gisa; Ekosistemak Lehengoratzeko Nazioarteko Fundazioa, biodibertsitatea ho-

betzeko eta ingurumen-hezkuntza lantzeko, eta Ingenieria Ebro, proiektuaren eta obraren zuzendaria izateko.

Lehenik eta behin, proiektuaren paisaia-kontzeptua definitu zen, funtzionala izateaz gain, estetikoak izatea nahi genuelako. Paisaia-diseinu horretatik abiatuta, gainerako lehengoratzetan lan guztiak ezarri ziren.

Proiektu horretatik sortu zen “BIZITZA-BIDEAK” izeneko proiektu ildoak, hiri-inguruko beste bide batzuetan lehengoratzearen kontzeptua errepikatzen saiatuko zena.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

- a) Azpiegitura berdea handitzea.
- b) Espazioaren paisaia-integrazioa hobetzea.
- c) Basa polinizatzaile basatien populazioak indartzea; tximeletak, bereziki.
- d) Hegazti intsektujaleak sustatzea izurriteen kontrol biologikorako.
- e) Espazioaren estetika eta hezkuntza- eta aisialdi-funtzioa hobetzea.
- f) Ekonomia zirkularra bultzatzea.
- g) Berdeguneak herritarrengana hurbiltzea.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

2.2.3. Garatutako estrategiak

Edozein leheneratze-proiekturen oinarritzko ildo gisa, funtsezkoa izan da, ahal den neurrian, tokiko biztanleak kontuan hartzea. Diseinu-fasean zein gauzatze-fasean gizartea inplikatu nahi izan dugu. Jendeak parte hartzeko hainbat jarduera egin dira, online formatuan zein aurrez aurre, mendabiarren ideiak eta proposamenak entzuteko. Era berean, proiektua gauzatzekoan, inguruko kontratistei lehentasuna eman zitzaizen tokiko ekonomia bultzatzeko aldera.

Espazioaren paisaia-diseinuak hexagonoa definitu zuen, erleei eta polinizatzaileei erreferentzia eginez, hori espazio osoari koherentzia ematen dion paisaia-elementu erreplikagarria baita. Denak hexagono itxura du.

Landare-espezieen hautaketa irizpide ekologiko-estetiko adituarekin egin zen. Aurretik, floraren azterketa egin behar izan zen erreferentziatzeko eremu batean, bertako espezie autoktonoak ezagutzeko. Landareztatzearen helburua zehaztu zen, eta halaber, hautatutako espezieek kokalekuaren arabera bete beharreko irizpideak ezarri ziren.

Proiektu honetarako, halaber, hainbat jarduera egin dira zabalkunderako eta ingurumen-hezkuntzarako. Espazioa jendeak erabiltzeko diseinatuta dago, ez bakarrik paseatzeko, baita herritarrentzako baliabide hezigarria izateko ere. Han jarri diren azalpen-kartel guztiez gain,

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA



proiektuaren berri eman zaio Mendabiako Ikastetxeko zuzendariari, eta ingurumen-hezkuntzaren gaineko jardunaldi bat egin da ikastetxeko haurrekin eta zenbait tutorerekin; balio izan du haiek “Legarda bidea-Bizitza bidea” proiektua erabiltzeko, eskola teorikoen osagarri.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Biztanleak dagoeneko espazioa erabiltzen ari dira, proiektuaren helburuetako bat BIZI-KALITATEA HOBETZEA baita. Estetika eta funtzionaltasun ekologikoa errotik hobetu ditu. Era berean, herritarrak berdeguneetara hurbiltzea eta ingurumen-kontzientziazioa sortzea ahalbidetzen ari da. Jendeak inkesta bidez jarduera oso ontzat jo du, eta horrelako espazio gehiago eskatu ditu.

2.4. Oharrak

Proiektuan, diseinuaren bidez eta jarraibide orokorren bidez, jarduketa gehiago egin daitezke nahi denean. Aukera asko eskaintzen ditu, bai gozatzeko, bai mantentzeko, bai eta egiten diren jardueren jarraipena egiteko ere. Ekintza gehiago egin ahal izanzen dira zabalkunderako, ingurumen-hezkuntza lantzeko, biodibertsitatea indartzeko, partaidetza sendotzeko, etab. Espazioa BIZIRIK dago eta BIZITZEKO da.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Pertsonen bizitzan duen eragina zuzena eta onuragarria da. Izan ere, “Bizitzara Bidea” proiektuaren izena sortu zen, Proiektuaren helburua BIZI KALITATEA hobetzea delako, jarduera jasangarriak eginez.

Proiektuak hiri-inguruko espazio bat birgaitzea ahalbidetu du, herritarrek goza dezaten, mendabiarren iritziak kontuan hartuta. Praktika jasangarrietatik (zura, esaterako) eta ekonomia zirkularretik (plastiko birziklatua) datozen materialak erabiltzea ahalbidetu du.

Proiektuaren kontzeptuak berak (leheneratze ekologiko estrategikoa) hiri-garapen jasangarria bultzatu du. Izan ere:

- Kutsadura murriztea eta birziklapena sustatzea plastiko birziklatua erabiliz.
- Erabilerarik gabeko espazio publikoa erabiltzea.
- Ingurumen-osasuna hobetzea, biodibertsitatea hobetzearen ondorioz.
- Berdeguneak handitzea eta haietarako irisgarritasuna hobetzea.
- Biodibertsitatea babestea eta zaintzea.

3.2. Elkartegintza

Proiektua Mendabiako Udalak bultzatu zuen, eta Udala ere haren diseinuan eta gauzapenean aritu zen.

Proiektuaren ezaugarriak direla eta, hirigintza-ekintzetarako dirulaguntza eskatu da, espazio publikoetan inbertsioak eginez (apirilaren 21eko 21E/2022 Ebazpena), hiri-garapeneko eta lurralde jasangarriko helburuak lortzen laguntzeko. Ebazpenaren zain gaude.

“Legarda Bidea-Bizitza Bidea” proiektua diseinatze aldera, diziplina anitzeko aditu talde berritzaile bat eratu zen. Honatx kideak: enpresa txiki bat bat, Ingeniería Ebro (proiektuaren koordinazioa-zuzendaritza), Mingo-Basarrate enpresa txikia (paisajista) eta irabazi-asmorik gabeko fundazio bat, Ekosistemak Lehengoratzeko Nazioarteko Fundazioa. Halaber, Zerynthia Elkartek kartelen diseinuan parte hartu zuen, tximeletetan adituak baitira.

Proiektua gauzatze aldera, Fundazioak berak landaketa guztiak egin zituen, eta inguruko enpresa txikiek obra zibileko lanak egin zituzten (zoladurak konpontzea eta trabesak paratzea), bai eta seinaleak ere (kartelak inprimatzea eta euskarriak fabrikatzea).

Aipagarria da, halaber, Udaleko langileen brigadak berak egindako lan handia, ahalik eta gauzarik gehienak egin baitituzte (lur-mugimenduak, altzariak jarri, espezie inbaditzaileak ezabatu...).

3.3. Jasangarritasuna

Honatx proiektuaren helburu orokorra: jarraibide orokorrak ezartzea ingurumenaren ikuspegitik jarduera jasangarriak egiteko eta eskuragarri dagoen espazioa hobetzeko.

Erraz erreplikatzeko moduko eta beste berdegune batzuetara egokitzeko moduko proiektua egin nahi izan zen, honako hauei esker: (1) leheneratze ekologikoko ekintzak gauzatzea, gutxieneko batean lurraren erabilerarengatik lehiatzen baitira; eta (2) mantentze-lan eta inbertsio txikiak behar izatea.

Jarduketa sorta bat proposatu zen, guztiak osagarriak, aurrekontuaren arabera gauzatu ahal izateko. Oinarrizko diseinu bat egin zen, eta horri jarduketa gehiago edo gutxiago gehitu ahal izan zitezkeen. Proiektuaren jarraibide orokorrak ezarri direnez, posible da etorkizunean proiektua ekintza gehiagorekin osatzea, eta hori abantaila da.

12 
PREMIO

JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

Proiektuak hiri- eta lurralde-garapen jasangarriko helburuak lortzen eta pertsonengan oinarritutako hirigintza garatzen laguntzen du, honako printzipio eta irizpide hauekin bat egiten baitu:

- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina:

(a) 52.1.b art.

Hiri-inguruko espazio bat berreskuratuko du, erabilera publikoz hornitzeko.

(b) 52.2.a art.

Proiektua leheneratze ekologiko gisa hartzeak bermatzen du mantentze minimoko espezie autoktonoak erabiliko direla.

(c) 52.5.c art.

Diseinu-taldean badira ingurumen-adituak, paisajistak eta espazio hondatuen leheneratze ekologikoan espezializatutako Fundazio bat. Natur balioak kontserbatu eta berreskuratzeak proiektu guztia egituratzen du.

(d) 53.1.b art.

Oinezkoentzako bidea egokitu eta hobetuko da, eta espazio publikoa zabaldu, jendeak goza dezan.

- 7/2015 Legegintzako Dekretuaren Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina:

(e) 3.2.a eta d art.

Natura, flora eta fauna zaintzeko eta hobetzeko

eta paisaia babesteko neurriak ezartzen ditu, eta (b) airearen, uraren, lurzorua eta lurpearen kutsadura prebenitu eta minimizatzeko neurriak.

(f) 3.3.c art.

Funtzio anitzeko espazio publiko bat sortuko da atsedenerako eta gozamenerako.

(g) 3.3.h art.

Erabiltzen diren altzariak plastiko birziklatuz fabrikatuko dira. Zura erabiliz gero, jasangarritasun-ziurtagiria izanen du.

(h) 3.3.i art.

Bertako landare-espezieak hautatuko dira, ureztatzeak eta mantentze-lanak minimizatzeko.

Gainera, lagungarria da Espainiako Hiri Agendaren 2.,3.,4. eta 5. helburu estrategikoak garatzeko.

Proiektua leheneratze ekologikoaren diziplinan oinarritua sortu da, eta klima-aldaketaren aurrean espazioaren erresilientzia hobetzeko ekintzak jaso ditu.

Helburua da lehendik dauden berdeguneak biodibertsitaterako gune lagunkoi bihurtzea, baliabideen kudeaketa eraginkorra egiteko, bertako animalia- eta landare-espezieen kontserbazioa sustatzeko, eta landarediari eusteko eta iragazkortasuna hobetzeko gai den lurzoru-azalera handitzeko.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Azkenik, proiektuak irizpide hauek jasotzen ditu: 1.2.; 3.1.; 3.4.; 3.6.; 3.7.; 6.4.; 6.5.; 9.1.; 11.1.; 11.5.; 11.7.; 12.1.; 12.2.; 12.6.; 12.7.; 12.9.; 13.4.; eta 14.3. Irizpide horiek Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak garatu duen “Iruñerriko eremuko eta inguruko udalerrietako azpiegitura berdeak” dokumentuaren I. eranskinean daude jasota.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Udalak proiektua bultzatzea funtsezkoa da beste udal batzuei beste “Bizitza Bide” batzuk egiteko inspirazioa emateko, jakinik ez dela mugatzaile, ez espazio erabilgarria, ez aurrekontua.

Leheneratze ekologiko estrategikoko proiektuek espazioaren eta aurrekontuaren arabera diseinatzeko dituzte ekintzak.

Proiektuan komunitatea sor daiteke. Bizilagunek landaketen eta faunaren diseinuan esku har dezakete, bai eta gauzapenean, mantentze-lanetan eta jarraipenean ere. Beraiena dela sentitu dezakete, eta ingurumen-erantzukizuneko sentimendu bat sortu.

Proiektua baliabide hezigarria eta hezitzailea izateko ere diseinatu da.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

Ingurumen-hezkuntzako elementuak txertatu ditu, gidatuta erabil daitezkeenak, ingurumen-hezkuntzako jardunaldi antolatuen bidez edo nor bere kasa, bertan jarri diren azalpen-kartel guztien bidez. Ikastetxea inplikatzeko aukera eman digu proiektuaren kontzeptua transferitzeko, irakasleek haren baliabideak aprobetxatzeko aukera izan dezaten.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarte- ratzea

Proiektua jende asko ibiltzen den espazio publiko batean egin da, udal igerilekueetatik hurbil, eta publiko guztiarengana iristea du helburu. Kartel oso grafikoak jarri dira, irakurlearen erakargarri, eta ingurumen-kontzientzia hartzeko egin diren helburu eta ekintzen berri ematen dio.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testu- guruan eta transferibilitatea

“Legarda Bidea-Bizitza Bidea” Proiektua proiektu berritzailea da, eta proiektu horretatik “Bizitza Bidea” izeneko proiektu ildo berri bat sortu da, Ingeniería Ebro-k eskainitako zerbitzu berri bat ekarriko duena. Edonola ere, proiektuko jarduketak errepikagarriak izan daitezke, eta erabilerarik gabeko beste espazio batzuetara egokituak: bide mugak, finketako mugak, erabilerarik gabeko orubeak...

Proiektuaren izaera berritzailea honetan datza: (1) leheneratze ekologikoan oinarritutako ikuspegia; eta (2) naturan oinarritutako irtenbideen

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

aplikazioa. Irtenbide horiek ekosistemen funtzioak eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak erabiltzen dituzte, herritarrentzat eta biodibertsitatearentzat onura ugari sortzeko, eta, aldi berean, klima-aldaketaren aurrean espazioaren erresilientzia hobetzen dute.

Hiriguneetako eta hiri-inguruko berdeguneek funtzio arras garrantzitsuak betetzen dituzte jendearen eta naturaren osasunerako (kutsadura murrizten dute, babesleku, elikadura toki eta hazkuntza leku dira hainbat espezierentzako, bero-uhartearen efektuari aurre egiten diote, edo aisialdirako eta erlaxaziorako leku dira, besteak beste).

Hala ere, eremu horietan erabili ohi diren ohi-ko lorezaintza-teknikek (intsektizidak eta pestizidak, espezie exotikoak edo ur-eskakizun handiak dituzten espezieak landatzea, bereizi gabeko ureztatzea, lurzoruko orbela kentzea, besteak beste) eragin kaltegarriak eragin ditzakete tokiko mailan.

3.7. Transferentziak

Proiektu hau parte-hartzaile guztien sare sozialen bidez partekatu da, ezagutzaren transferentzia sustatzeko.

Proiektu honek taldekideen ezagutzak handitu ditu. Orain, proiektu estrategikoa da haien zerbitzu-zorroan.

Era berean, kolaboratzaile guztiak sentsibilizatzea lortu da proiektuak irizpide jasangarriekin egin beharraz.

Eta, azkenik, herritarren eta Udalaren interesa piztu du, leheneratze-jarduera gehiago eskatzen baitituzte.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Azpiegitura Berdea Hobetzea “Legarda Bidea - Bizitza Bidea”

Mendabiako Udala

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Kostu txikia. Proiektua eskura dagoen aurrekontura egokitzen da
- Mantentze-lan txikiak. Ur beharrak oso txikiak dira. Ez da ohiko lorategia eta ez da inausketarik behar.
- Biodibertsitatea hobetzen du; horrenbestez, bizi-kalitatea ere bai.
- Diziplina anitzeko talde bat sortzeak proiektuaren emaitza aberastu du.
- Leheneratze ekologikoko espezialistek proiektua koordinatzen eta zuzentzen dute, eta horrek erabaki zuzenak hartzea errazten du.
- Udaleko langileen inplikazioa funtsezkoa izan da proiektua garatzeko.

4.1.2. Aukerak

- Erraz erreplikatzekoa bai beste bide batzuetan, bai edozein udalerritan erabiltzen ez diren beste gune batzuetan.
- Gizartea gero eta kontzientziatuago dago ingurumena babestearekin, eta ildo horretako ekintzak eskatzen ditu.
- Pandemiak kalitatezko berdeguneak izateko premian jarri du arreta.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

- Landatutako landaredia mantendu egin behar da lehen 2 urteetan.
- Landarediarekin eta elementu biziekin lan egiteak landare hilak ordeztzea eska dezake lehen urteetan.

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

- Espazio publikoa denez, biztanleriak ematen dion erabilera egokia funtsezkoa da hura kontserbatzeko. Gizalegearen aurkako portaerek kalte egin diezaiekete egindako jardueri.

4.2.2. Mehatxuak

- Borondatezko proiektuak dira, eta udalek proiektu haiek gauzatzeko duten sentsibilitatearen mendean daude.
- Erabilerarik gabeko espazioen leheneratze ekologikoa ez da lehentasunetako bat politiketan.
- Espazio publikoetako lehengoratzeko proiektuek finantzaketa publikoa behar dute.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2022
Bazkidea 1: Mendabiako Udala	48.505,38 €
PRESUPUESTO GUZTIRA	48.505,38 €

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa

Lodosa Udala, Prebentzio Mahaia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

1. INFORMAZIOA

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa

JARDUERAREN KOKALEKUA

Lodosa

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA

Estelleria

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA

Lodosako Udala, Prebentzio Mahaia

ENTITATE MOTA

Toki entitatea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK

Hasiera: **27/06/2022**

Bukaera: **26/07/2022**

Beste data interesgarri batzuk: Praktikak egiteko aukera dago, eskolen ondotik urtebetean ikasitako edukiak praktikan jartzeko

HARREMANA

Maria Gurpegui Aguirre

C/ Ancha, 1 behea. 31580 Lodosa (Nafarroa)

Tel. 948 693 642

www.lodosa.es / www.lodosa.info / desarrollolocal@lodosa.es



12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa

Lodosa Udala, Prebentzio Mahaia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2. DESKRIBAPENA

2.1. Jarduketa garatu aurreko egoera

Lodosako Udalak hainbat ekimen mota proposatu ditu herriko biztanleriaren atal garrantzitsu bat –gazteak– ingurumenaren aldetik sentsibilizatu, hezi eta prestatzeko, bai eta jasangarritasuna sustatzeko ere. Ekimen guztiak, gainera, jarraituak izan dira. Hala ere, prebentzio komunitariorako mahaiarekin batera, pentsatu zen horrelako kezkek zituzten gazteak prestatzea tresna erabilgarri eta interesgarria izanen zela, prozesu honen baitan eragile aktiboak izan daitezzen.

2.2. Jarduketa

Lanbide arteko alde zuzena duen bidez, “Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitoreak” prestakuntza ikastaro bat prestatzea, gazteak ingurumenaren aldetik eragile aktibo gisa gaitzeko, inguruan esku-hartze jasangarriak garatze aldera.

Prestakuntza horrek lotura zuzena du balioen transmisioarekin.

2.2.1. Prozesua

Zeharka lantzen da hainbat modulutan, eta bereziki ondare historikoan eta natur ingurunearekiko sentsibilizazioan.

Inguruko gazteak dinamizatzen dira, herritar-tasun aktiboa bultzatuz eta parte-hartzea sustatuz. Horren ondorioz, aisialdi osasungarriko jarduerak eta proposamenak sor daitezke, eta



pertsona gehiago erakarri inguru horretara, arrisku-zailtasunen aurrean (adikzioak, jokabide arazoak, etab.) gazteak babesteko faktore gisa jardun dezaten eta, aldi berean, tokiko garapen jasangarriarekin konprometitu eta aktiboak diren herritarrak sortzeko.

2.2.2. Lortu beharreko helburuak

Tinguruan prestakuntza arautua sortzea du helburu, aldi berean enplegarritasuna sustatzea, horretan lan egin ahal izateko pertsonak pres-

tatzea, jasangarritasunari buruzko ezagutza duten tokiko turismo-gidariak izaten ahalko dira.

Prestakuntzaren eragina inguruan gauzatu da dila, jarduera jasangarriak babestuz. Ikastaro honen bidez, aisialdi osasungarriko aukerak sortu ahal izatea gazteei, beren bizi-proiektuetan babes-faktore gisa jardun dezaten.

12 
PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa

Lodosa Udala, Prebentzio Mahaia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

2.2.3. Garatutako estrategiak

Inguruari buruzko berariazko prestakuntza, irakasleek zeharkako gaiak landu ditzaten, gai interesgarriak gazteentzat, haiek geroa baitira, egungo egoera eta haiek izan ditzaketen interesak eta kezak. Denbora librean hezten dira hezkuntza integrala bermatzeko, gizakia bere osoan hartuko duena, pertsonen bizitza guztiari harrera, orientabidea eta zentzua emanda, helburu argi bat gogoan hartuta: Jasangarritasuna eta Aisia Osasungarria.

2.3. Jarduketa garatu ondoko egoera

Ikertutako alorretako bat Turismoa, Aisia, Kiro-la eta Kultura izan zen, betiere ingurumena eta JASANGARRITASUNA lotura gisa harturik, azken hori ere aztertu baitzen. Horrexek bultzaturik egin genuen ikastaroa; eta saiatuko gara gazteek praktikak egin ditzatela eta inguruan hainbat jarduera egin ahal izan ditzatela ikasitako guztia praktikan jartzeko.

2.4. Oharrak

Ikastaro guztia alde edo moldez Jasangarritasunean oinarritua dago. Baliabide endogenoak ongi ezagutzen dituzten inguruko pertsonak kontratatu dira, hau da, ondare historiko eta artistikoa, ura, Ebro ibaia, natura, etab. baina prebentzioa alde batera utzi gabe.



12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa

Lodosa Udala, Prebentzio Mahaia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
4. EGOERAREN AZTERKETA
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

A. OINARRIZKOAK

3.1. Eragina

Gazteei dagokienez, gazte guztiak izaten ahaliko ditugu eskura gure inguruko edozein tokitan monitore-jarduerak egiteko; beraz, gazteen enplegarritasuna sortzen da, eta haiek beste edozein udalerritan gauza bera egitera animatzen ditugu, etab. Inguruneari dagokionez, ahalik eta kalte gutxien eragitea eta ingurunea ezagutaraztea, errespetatzea eta datozen belaunaldientzat zaintzea.

Jarduerak gaur egungo guneetan egiten dira, ingurunea ahalik eta gehien zainduz, Okm, etab. Ikastaro honen inguruko guztia jasangarritasunean eta norberarekiko eta besteekiko errespetuan datza, herriaren nortasun-sentsazioa eta lagunen artekoa uztartuz. Alderdi hori zeharka lantzen da ikastaro osoan, eta, zehazki, kultur aniztasunaren eta herritartasun globalarendako hezkuntzaren moduluan.

3.2. Elkartegintza

Tokiko elkarte batzuk jarduera batzuetan aritu dira lankidetzan. Izan ere, ikastaroaren barnean, gazteei helburuetako bat irakatsi diete, elkartegintza, boluntarioritza. Denbora Librean heztea hezkuntza sozialaren barnean dago eta kolektibitatearen eragile dinamizatzailetzat jotzen da ekintzaren bidez.

Horren eginkizuna da gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea diseinatu eta hartan ardatza

izatea, gizabanakoen arteko harremanak hobetzea xede harturik, eta era berean, hezkuntza-ekintzaren bidez optimizatu daitezkeen egoera sozial haietan eragitea.

3.3. Jasangarritasuna

Proiektu hau AL21 programaren baitan dago. TEDER elkarteak laguntza ematen du Lodosako Udalak proposatutako ekimenetan, jasangarritasuna sustatzeko eta gure gazteriarren zati bat ingurumenaren aldetik sentsibilizatu, hezi eta prestatzeko.

B. GEHIGARRIAK

3.4. Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Alderdi hori zeharka lantzen da ikastaro osoan, eta, zehazki, kultur aniztasunaren eta herritartasun globalerako hezkuntzaren moduluan. (Gara-penerako hezkuntza.

GJH) Aisialdiko hezkuntzak, berez, ingurumena errespetatu behar du. Balioetan eta pertsonaren garapen integrarean oinarritutako hezkuntza da, eta horrek zerikusia duten alderdiak lantzerantz behartzen du, eta gero beste pertsona batzuei transmititzen zaizkie.

3.5. Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Alderdi hori zeharka lantzen da ikastaro osoan, eta, zehazki, harreman afektiboaren moduluan, betiere genero ikuspegiari oinarriturik.

3.6. Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Ikastaroaren helburuetako bat lurraldearekiko lotura da, ondare publikoa zaintzeko eta hobetzeko informazioa emanez eta funtsezko alderdiak erratuz. Toki-administrazioarekin koordinatutako ekintzak egin daitezke, helburu horiek zehazteko.

Parte-hartzaileek tokiko ekonomiaren sustapenean eragina duten ekimenak eta proposamenak sor ditzakete, eta aisialdiarekin lotutako negozioak sortu.

3.7. Transferentziak

Praktikaldian edo ondoren sor daitezkeen proiektuak zahartze aktibora eta bizitza osasungarri-
ra bideratuta egon daitezke. Ikastaroan badira osasunari dimentsio guztietan heltzen dioten hainbat modulu daude ikastaroan.

Ikastaroko modulu batzuk lagungarriak dira parte-hartzaileek beren burua gehiago ezagutzeko eta genero arloko rolak eta estereotipoak haus-
teko.

Horrela, prozesu indibidualak nahiz kolektiboak lagundu ahal izanen dira, berdintasunetik eta aniztasunarekiko errespetutik abiatuta. Etor-
kizuneko proposamenek familien lana eta bizitza familiarra erraztuko dituzte.

12 

PREMIO

**JOSÉ IGNACIO
SANZ ARBIZU**

DE BUENAS PRÁCTICAS
EN DESARROLLO
LOCAL SOSTENIBLE
DE LA COMUNIDAD
FORAL DE NAVARRA

2021 - 2022

Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa

Lodosa Udala, Prebentzio Mahaia

1. INFORMAZIOA
2. DESKRIBAPENA
3. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK
- 4. EGOERAREN AZTERKETA**
5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

4. EGOERAREN AZTERKETA

4.1. PUNTU SENDOAK

4.1.1. Indarguneak

- Denbora Libreak denbora askatzailea izan behar du. Giza harremanen hazkundea eta komunikatzeko gaitasuna sustatu behar ditu. Pertsonen adierazpena eta sormena handitu behar ditu, obra berrien eratzaile eta egoera berrien sortzaile egiten baitute. Bizitzarekiko errespetuan heztea ahalbidetzen du, naturarekiko harremanaren bidez. Balio duten ekintzen eta jarreraren balorazioan hezten du.

4.1.2. Aukerak

- Ikastaroak behar diren tresnak ematen ditu negozio-ideia bat abian jartzeko edo hezkuntza formalarekiko osagarriak diren ekintzak antolatzen dituzten edo aisian eta denbora librean ari diren entitateak kontratatzeko.

- Behin hezitakoan, neska-mutil horiek beren etorkizuneko helburuak ireki ditzakete beren herrian bertan lan egiteko. Beste neska-mutil batzuk ezagutuko dituzte eta, orain, elkarrekin lan eginen dute, kezka berberak bultzaturik.

4.2. PUNTU AHULAK

4.2.1. Ahulguneak

Ikastaro baten ondotik, zailagoa izaten da ahalegina eskatuko dien lan batean aritzea; are gehiago, pandemia baten ondotik. Prestakuntzak duen garrantziaz ohartarazi behar zaie, eta batez ere, Jasangarritasunak haien etorkizunerako duen garrantziaz.

4.2.2. Mehatxuak

Ez dugu horrelakorik topatu, gauza berria baita gure neska-mutilendako. Beharbada, beste ikastaro batzuk online direla, eta hau, berriz, aurrez aurrekoa, baina ez dago jasangarritasuna lantzen dun ikastarorik. Era horretako lehena da Nafarroan.

5. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Inbertsioen zenbatekoa, guztira

Bazkide bakoitzaren ekarpena

BAZKIDEA	URTEA 2022
Bazkidea 1: Lodosako Udala	3.000 €
Bazkidea 2: Agenda Local 21	7.000 €
PRESUPUESTO GUZTIRA	10.000 €